

2 0 2 2
INFORMES TERRITORIALES

EUSKADIKO BAZTERKERIAREN ETA GIZARTE- GARAPENAREN INGURUKO TXOSTENA

INTEGRAZIOAREN ETA
GIZARTE-BEHARRIZAN
INGURUKO INKESTAREN
EMAITZAK. 2021



FUNDACIÓN FOESSA
FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA



Caritas

Euskadiko bazterkeriaren eta gizarte-garapenaren inguruko txostena

Integrazioaren eta Gizarte-Beharrizan
inguruko Inkestaren Emaizak. 2021



FUNDACIÓN FOESSA
FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA

Koordinazioa

Daniel Rodríguez de Blas

FOESSA Fundazioaren Batzorde teknikoko kidea

Azterketa eta idazketa

Raúl Flores Martos

Pedro Fuentes Rey

Idoia García Goikoetxea

Marina Sánchez-Sierra Ramos

Raquel Sanz Álvarez

Pilar Pallero Soto

Thomas Frederic Ubrich

Joseba Zalakain Hernández

Imanol Ilárraz Rodríguez

Sara Peña Valderrama

FOESSA Fundazioko idazkari teknikoa

FOESSA Fundazioko kolaboratzailea

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

FOESSA Fundazioko talde teknikoa

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

FOESSA Fundazioko Kolaboratzailea

FOESSA Fundazioko Batzorde teknikoko kidea

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

Diseinurako lagina

Manuel Trujillo Carmona

Gizarte Ikerketa Aurreratuen Institutua

Eremu-ikerketa

FRESNO Azterketa eta

Ikerketa *the right link*

Madriren, 2022an

© FUNDACIÓN FOESSA
Embajadores, 162
28045 Madrid
informacion@foessa.org
www.foessa.es

© Cáritas Española Editores
Embajadores, 162
28045 Madrid
Teléf.: 91 444 10 00
publicaciones@caritas.es
www.caritas.es

ISBN: 978-84-8440-863-5
Depósito Legal: M-1969-2022

Aurreinprimaketa eta inprimaketa:
Gráficas Arias Montano. S. A.
www.ariasmontano.com

Espainian inprimatua/Printed in Spain

Aurkibidea

Sarrera	7
Egikaritze- laburpena	11
1. blokea Gizarte-Integrazioa eta bazterkeria-prozesuek kaltetutako familien ezaugarriak Euskadin	31
1. atala Integrazioa eta gizarte-bazterkeria Euskadin	33
1.1. Gizarte-integrazio tasak mantendu egin dira, baina nabarmen ugartu dira bazterkeria-egoera larriak	33
1.2. Gizarte-bazterkeriaren ardatzak eta dimentsioak Euskadin	40
1.2.1. Arlo ekonomikoan bazterkeria-egoerak pairatu dituzten herritarren ehunekoa handitu egin da, aldiz, murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan izandako eragina	41
1.2.2. Arlo batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoa murriztu egin da, eta igo egin da eguneroko bizitzako lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituztenena	44
1.2.3. Hazi egin da lan-arloan arazoak dituzten pertsonen ehunekoa eta murriztu kontsumoan, etxebizitzan eta osasunean arazoak dituztenena	47
1.2.4. Langabezia, laneko ezegonkortasuna, etxebizitzaren gehiegizko gastuak eta politikan eta gizartean parte hartzeko mugak dira arazorik ohikoenak, eta herritarren % 8 eta % 15i artean eragiten dio	51
2. atala Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin	61
2.1. Sarrera	61
2.2. Gizarte-bazterkeriak gehien eragiten dien kolektiboak: etxebizitza pobreak edo diru-sarrerarik ez dutenak, sostengatzaile nagusia lan bila ari denean eta atzerritarrak	63

2.3.	Bazterkeria hazi egin da pobreen edo diru-sarrerarik ez dutenen artean, familia ugarietan eta atzerritarren artean	65
2.4.	Baztertutako pertsonen gehiengoa hiriguneetan bizi da, Espainian jaio-takoa da eta gizonak buru diren etxebizitzetan bizi da	67
2. blokea	Egun krisian baztertzailleenak diren faktoreak eta COVID-19ak sortu edo ikusarazi dituen beharren erantzuna	75
3. atala	COVID-19aren eragina lan-merkatuan eta enpleguaren eta gizarte-integrazioaren arteko harremanean	77
3.1.	Sarrera	77
3.2.	COVID-19ak astindutako lan-merkatua	78
3.3.	Bazterkeria-egoeran dauden herritarrek lan-arloan dituzten zailtasunak	86
4. atala	Hazi egin dira etxebizitza-bazterkeriaren egoerak eta etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten herritarren ehunekoa	93
4.1.	Sarrera	93
4.2.	Jaitsi egin da etxebizitza arloan arazoak dituzten herritarren ehunekoa, nahiz eta igo egin den etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituztenen kopurua	94
4.3.	Etxebizitza ezegonkorra edo desegokia duten herritarren ehunekoa hazi egin da	97
5. atala	Osasun arazoak, gizarte-bazterkeria eta COVID-19a	101
5.1.	Sarrera	101
5.2.	COVID-19aren eragina Euskadin: kutsatze gehiago eta hilkortasun handiagoa Espainian baino	102
5.3.	Pandemiak okertu egin du Euskadiko herritarren erdiaren gogo-aldar-tea	104
5.4.	Osasun arloan gizarte-bazterkeria arazoak dituzten herritarren ehuneko-koa jaitsia egin da	107
5.5.	Gaixotasunek edo buruko nahasmenduek bazterkeria areagotzen dute ia arlo guztietan	110

6. atala	Pandemiak eta horrek eragindako krisiak familiako babes-sareak tenkatu eta higatu ditu	113
6.1.	Sarrera	113
6.2.	Gizarte-gatazka egoerak murriztu dira eta apur bat igo dira isolamendu-arazoako	113
6.3.	Pandemiak etxebizitzaren arteko laguntza-sareak ahuldu ditu	118
7. atala	Arrakala digitala, elementu baztertzailer berria	121
7.1.	Sarrera	121
7.2.	Arrakala digitalak bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetara eragiten die gehienbat	121
7.3.	Bazterkerian dauden etxebizitzaren ia % 20k aukerak galdu ditu arrakala digitalaren ondorioz	124
8. atala	Pobrezia eta diru-sarreraren bermea: Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eta DBEren eragina pobrezia eta bazterkeria egoeretan	127
8.1.	Sarrera	127
8.2.	Hazi egin dira pobrezia eta desberdintasuna, nahiz eta materialen ga-beziarekin lotutako adierazleen zatirik handiena hobetu egin den	129
8.3.	Sortu eta urtebetera, Euskadiko biztanleriaren % 1,2k jasotzen du Bizitzeko Gutxieneko Errenta	134
8.4.	DBEk pobrezia eta desberdintasunak murrizten ditu Euskadin eta pobrezia egoeran dauden herritarren diru-sarreraren % 40 baino gehiago da	137
8.5.	Pobrezia eta bazterkeria-egoeran dauden herritarrek bizitzeko gutxieneko errenta jasotzeko dituzten arazoak	140
Metodologia		145
Glosarioa		149

Sarrera(1)

2020ko martxoa gogoangarria izango da gure herrialdean COVID-19aren krisia lehertu zen hilabetea izan zelako. Krisia Asian hasi zen arren, mundu mailako pandemia bilakatu zen laster eta egungo munduaren ezaugarri nagusienetako bat agerian utzi zuen horrela; globalizazioa. Planetan bizi garen pertsona gehienek abesti berberak entzuten ditugu, ikus-entzunezko produktu berberak kontsumitzen ditugu, arropa berbera janzten dugu... Elkarren artean hain dago lotuta mundu hau, ezen koronabirusak aste gutxi batzuk behar izan baitzituen Wuhanetik irten eta mundu osoko osasun-krisia bilakatzeko, herrialde gehienak gelditzeko ahalegin irmoak egin bazituzten ere.

COVID-19aren krisia ziurrenik mundu mailako lehen pandemia bihurtu den arren, ondorioak oso desberdinak ari dira izaten herrialdearen eta eskualdearen arabera. Herrialde bakoitzean errotuta dauden gizarte harremanetarako ohiturak, geldiarazteko neurrien gogortasuna eta egokitasuna, gobernuek ezarritako prebentzioak, herritarrek arazoarekiko duten sentsibilizazioa edo osasun-zerbitzuen arretarako gaitasuna gakoak izan dira osasun-krisiaren ondorioak gutxitzeko garaian.

Osasun-krisitik eratorri den gizarte- eta ekonomia-krisiari dagokionez, asko dira baita ere herritarrengan eragin handiagoa edo txikiagoa izaterako orduan erabakigarriak izan diren faktoreak. Elementu horien artean daude osasun-krisiaren eragin maila, ekonomia geldiarazi edo moteldu duten murrizketa-neurriak, produkzio-ereduaren sendotasuna eta kaltetuenak izan diren sektoreekiko menpekotasuna (turismoa, aisialdia, etab.) eta gobernuek herritarren eskura jarri dituzten gizarte-babesaren erantzunak.

(1) Txosten honetan Euskal Herria eta Euskadi terminoak berdin erabili ditugu.

Une hauetan osasun-krisiaren intentsitatea aurreko hilabeteetan bizitakoa baino baxuagoa den arren, oraindik goiz da bai osasun-egoera bai hortik eratorritako gizarte-egoera kontrolatzeko esanguratsuenak izan diren neurriak eta faktoreak ebaluatzeko.

FOESSA Fundaziotik, aldiz, garrantzitsua eta egokia iruditu zaigu une hauetan gure gizartean dagoen bazterkeriaren irudia ateratzea, pandemia hau izaten ari den tsunamia igaro ostean, edo bitartean. Martxoan konfinamendua hasi eta egun gutxira, erantzuna behar zuten hainbat galdera egiten hasi ginen: Nola eragiten die krisi honek gure herrialdeko bazterkeria- eta integrazio-mailei? Pandemiak berdin eragin die gizarteko geruza guztiei, edo, berriro ere abantailarik gutxienak dituzten etxebizitzak al dira kaltetuenak? Testuinguru berri honetan bazterkeria sortzen duten elementu berriak identifika ditzakegu?

Galdera hauei eta beste batzuei erantzuteko, FOESSAko (EINSFOESSA 2021) Integrazio eta Gizarte-Beharren Galdetegi berri bat bidali dugu, eta 2021eko martxoa eta maiatza bitartean egin genuen eremu-ikerketara. Galdetegi horren erantzunek osatzen dute hein batean txosten hau, estatistika-iturri ofizialetatik ateratako informaziorik esanguratsuenarekin batera. Dokumentu honen helburu nagusia da bazterkeria-egoera eta COVID-19aren krisiak Euskadiko bizi-baldintzetan eta gizarte-egituran zehazki izan duen eragina deskribatzea. Lurralde-ikuspegia du eta «Gizarte-kohesioaren eta COVID-19aren ondorioak Espainian» txosten orokorra irakurketarekin osatu beharko litzateke. Dokumentu hori zabalgoa da errealitatearen xehetasun interpretaziozkoagoak eta etorkizunekoagoak ditu.

2007tik, FOESSA Fundazioak gizarte-bazterkeriaren bilakaera sistematikoa behatu eta ikertzeko hautua egin du. Hainbat olatutan (2007, 2009, 2013 eta 2018), FOESSA Txostenak gizarte osoaren bizi-baldintzen inguruko gogoeta egin du eta, bereziki, pertsona eta kolektiborik zaugarrienak direnena. Horretarako, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa (GBIS) erabili dugu.

Indize horrek pertsonak gizartean parte hartzeko duten gaitasuna eta aukerak neurtzen ditu 37 adierazleren bitartez, eta oinarritzko 8 arlo aztertzen ditu: enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-gatazka eta gizarte-isolamendua. Kasu honetan, GBIS berrikusi eta handitu dugu, gizarte-bazterkeria-egoeran dauden pertsonen errealitatea hobeto identifikatu ahal izateko.

2007an hasitako lan-prozesuak ordutik ahalbidetu digu desberdintasun-egoerak sortu edo mantentzen dituzten egitura-izaera duten elementuak salatzea, eta, aldi berean, koiunturalagoak diren aldaketak aztertzea eta ikertzea, krisialdien, oparoaldi ekonomikoaren edo gizarte-bazterketaren dimentsioen, gizarteratzearen eta gizarte-kohesioaren gainean eragina duten politiketan izandako funtsezko aldaketen ondorioz. Alde horretatik, bi berrikuntza daude txosten honetan: babes sozialerako tresna gisa Bizitzeko Gutxieneko Errenta ezartzea eta bazterketa sortzen duen aldagai berri gisa, arrakala digitala.

Horrela, EINSFOESSAren edizio honekin, Euskadiko bazterkeriaren irudia eguneratu eta ikuspegi bikoitzetik aurkeztu dugu: luzerakoa eta konparatiboa. Luzerakoa Euskadiko bazterkeria datuen bilakaera erakusten duelako 2018tik eta konparatiboa kasu guztietan erkidegoetako datuak Espainia osoko datuekin alderatzeko aukera dagoelako.

Euskadin, Espainian bezala, osasun-krisi honek arrasto sakona utzi du. Espero zen bazterkeriaren eta pobrezia-ugaritzeaz gain, ondoriorik larriena gizarte-bazterkeriaren zabalpena izan da, batez ere integratzeko zailtasun handienak zituzten pertsonen eta familien artean.

Joera honek ohartarazi digu krisian zehar bazterkeria azkar hazten den arren, gero etortzen diren susperraldi eta hazkunde ekonomikoaren garaietan ez direla bazterketa maila horiek erritmo berean jaisten. Horrela, azkeneko hamarkadetan ikusi dugu krisi garaietan bazterkeria jasatea erraza dela, baina hortik irtetea zailtasun bilakatzen dela, baita oparotasun aldietan ere.

Funtsean, ezjakintasun eta berehalakotasun garaiotan, FOESSA Fundaziotik, alde batetik, krisiaren eraginaren dimentsioa hartzen laguntzeko datuak eskaini nahi dizkiogu gizarteari, pertsona eta talderik kaltetuenak identifikatuz, eta, bestetik, gogoeta sakona sustatu nahi dugu, Gizarte-eredua, eredu ekonomikoa eta banaketa-eredua birpentsatzeko, baita gure bizikidetzaren oinarria izango diren balioak ere.

Azken helburua pobrezia-egoeren kronifikazioa eta gizarte-bazterkeria saihestea izango da, gizarte bidezkoagoa lortzeko gizarte-eraldaketan jarriz begirada.



Egikaritze-laburpena

Edukia

1.	Gizarte-integratioko tasa altuak mantentzen dira, baina nabarmen hazi dira bazterkeria-egoera larriak	13
2.	Arlo ekonomikoan bazterkeria-egoerak pairatu dituzten herritarren ehunekoa handitu egin da, aldiz, murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan izandako eragina	14
3.	Arlo batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoa apur bat murriztu da, eta igo egin da eguneroko bizitzako lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituztenena	15
4.	Langabezia, laneko ezegonkortasuna, etxebizitzaren gehiegizko gastuak eta politikan eta gizartearen parte hartzeko mugak dira arazorik ohikoenak, eta herritarren % 8 eta % 15i artean eragiten diotea	16
5.	Gizarte-bazterkeriak gehien eragiten dien kolektiboak dira: etxebizitza pobreak edo diru-sarrerarik ez dutenak, lan bila ari den pertsona sostengatzaile nagusia eta atzerritarrak	17
6.	Bazterkeria hazi egin da pobreen edo diru-sarrerarik ez dutenen artean, familia ugarietan eta atzerritarren artean	18
7.	COVID-19ak gogor astindu du lan-merkatua eta nabarmen ugaritu dira enpleguarekin zerikusia duten arazoak	19
8.	Jaitsi egin da etxebizitza arloan arazoak dituzten herritarren ehunekoa, nahiz eta igo egin den etxebizitzaren gehiegizko gastuak edo etxebizitza-egoera desegokiak edo zalantzazkoak dituztenen kopurua	20
9.	Osasun arloan gizarte-bazterkeria arazoak dituzten herritarren ehunekoa jaitsi egin da, COVID-19aren eragina gorabehera	22
10.	Gizarte arazoak murriztu egin dira eta isolamendu-arazoak apur bat igo	23
11.	Arrakala digitalak bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetara eragiten die gehienbat	24
12.	Hazi egin dira pobrezia eta desberdintasuna, nahiz eta materialen gabeziarekin lotutako adierazleen zatirik handiena hobetu egin den	25
13.	Biztanleriaren % 1,2 inguruk –pobrezia-egoera larrian dauden biztanleen % 20k– jasotzen du bizitzeko gutxieneko errenta Euskadin	27
14.	DBEk pobrezia eta desberdintasunak murrizten ditu Euskadin eta pobrezia egoeran dauden herritarren diru-sarreraren % 40 baino gehiago da	28

Egikaritze-laburpena

Egikaritze-laburpen honetan, Euskadiko Bazterkeriaren eta Gizarte-Garapenaren inguruko txosten honen ondorioz garrantzitsuenak azalduko ditugu, FOESSA Fundazioak 2021eko Integrazioaren eta Gizarte-Beharren inguruko Galdetegiarekin eginiko ikerketaren arabera. Lan honen helburua da COVID-19aren pandemiak eta sortu duen gizarte- eta ekonomia-krisiak bazterkeria eta integrazio maileri nola eragin dien azaltzea. Bazterkeria-egoeraren inguruan lortu dugun irudi berri honetatik, kaltetuenak izan diren gizarteko sektoreetan sakonduko dugu eta testuinguru berri honen bazterketa konfiguratzen duten elementu berrien bilaketan murgilduko gara.

Jarraian azalduko ditugun ondorioek Txosteneko datu-multzotik atera ditugun titular batzuk erakusten dituzte. Egikaritze-laburpenak ikuspegi orokorra eta zabala eskaintzen duen arren, xehetasunez irakurriz gero, Euskadin bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eta etxebizitzaren egoera zehatza eta zabala deskribatzen du datuen bitartez.

1. Gizarte-integrazioko tasa altuak mantentzen dira, baina nabarmen hazi dira bazterkeria-egoera larriak

2021ean, Euskadiko biztanleriaren % 57,7 erabat integratuta zegoen, % 26,1aren integrazioa prekarioa zen, % 7,3 bazterkeria-egoera arinean zegoen eta % 9 bazterkeria-egoera larrian. Gizarte-bazterkeria-egoeran daude Euskadiko herritarren % 16,3, hau da, gutxi gorabehera Erkidegoko sei biztanletik bat –360.000 biztanle inguru– bazterkeria-egoera arinean edo larrian zegoen 2021ean.

Euskadiko egungo egoera Espainia osokoa baino nabarmen positiboagoa da, eta halaxe izan da 2018tik izan duen bilakaera ere.

Espainiarekin alderatuta Euskadik egoera hobea du, horrek, ordea, ez du ezkututzen bazterkeria-tasek okerrera egin zutela nabarmen 2018 eta 2021 artean, bazterkeria kasu larriek batez ere. Alde batetik, gizarte-bazterkeria-egoeran dauden biztanleen kopurua % 20 handitu da, eta biztanleria osoaren % 13,9 izatetik % 16,3 izatera igaro da. Aldaketarik adierazgarriena baina, bazterkeria-egoera larrian dauden biztanleen kopuruaren eta ehunekoaren igoera nabarmena da, biztanleriaren % 4,4 izatetik % 9 izatera igaro baita (eta etxebizitzaren ikuspegitik, % 3,6tik % 6,8ra). Era berean, bazterkeria-egoera arinean dauden biztanleen ehunekoa murriztu egin da, % 9,5etik % 7,3ra jaitsi da. Beraz, nabarmendu behar dugu, gizarte-integrazioko maila orokorrak asko murriztu ez dituen arren, COVID-19aren krisiak bazterkeria-egoerak areagotu dituela Euskadin, eta, batez ere, bazterkeria-egoerarik larrienak, baita muturrekoenak ere. Izatez, etxebizitzetan bizi diren eta Bazterkeriaren Indize Sintetikoan (ISES) puntuazio altuagoa duten biztanleak % 1,3 izatetik % 6,1 izatera igaro dira.

2. Arlo ekonomikoan bazterkeria-egoerak pairatu dituzten herritarren ehunekoa handitu egin da, aldiz, murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan izandako eragina

EINSFOESSAren metodologiak bazterkeriaren hiru ardatz nagusi bereizten ditu: ekonomikoa, politikoa eta gizartekoa eta harremanena. Ardatz ekonomikoan, enpleguarekin eta kontsumoarekin lotutako dimentsioak hartzen ditugu kontuan. Alde batetik, etxebizitzak eta haien kideak lan-harreman normalizatu izatetik baztertzen dituzten prozesuak aztertzen ditugu, eta, bestetik, diru-sarrerara ekonomikoak gizartean parte hartzeko nahikoak eta/edo kalitatezkoak diren aztertzen dugu, baita oinarrizko beharren gabezia-egoerak ere. Bigarren ardatzak, politikoa eta gizartekoak, politikan, hezkuntzan, etxebizitzan eta osasunean parte hartzeko bazterkeriari egiten dio erreferentzia. Parte-hartze politikoaren dimentsioan kontuan hartzen ditugu ordezkari politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea, eta baita politikan eta gizartean parte hartzeko gaitasun eraginkorra ere.

Gizartearekin lotutako dimentsioetan, berriz, gainerako biztanleek hezkuntzarako, etxebizitzarako eta osasunerako dituzten sarbide-baldintzak

berberak ote dituzten aztertzen dugu. Azkenik, harremanekin lotutako bazterkeriak erreferentzia egiten die, funtsean, gizarteko gatazka- eta isolamendu-egoerei. Horien barruan sartzen dira, alde batetik, aurkako gizarte-harremanak eta gizarteko eta/edo familiako beste gatazka-egoerak, eta, bestetik, giza harremanen eta babesaren gabezia.

Inkestaren datuen arabera, Euskadiko biztanleriaren % 24ri eragiten dio bazterkeria ekonomikoak, % 31,47ri politikoak eta % 7,1i harremanekin zerikusia duenak. Euskadiko egoera Espainiako baino askozaz ere hobea da hiru ardatzen kasuan: ardatz ekonomikoari dagokionez, kaltetutako biztanleen ehunekoa 8,5 puntu baxuagoa da; ardatz politikoan, 12,5 puntu baxuagoa eta harremanei dagokien ardatzean, 4,9 puntu baxuagoa.

Bilakaerari dagokionez, 2018 eta 2021 artean murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan gabeziak dituzten biztanleen kopurua (% 6 eta % 10, hurrenez hurren). Alabaina, aldi berean, arlo ekonomikoan arazoak dituzten herritarren ehunekoa igo egin da, Espainian gertatu den moduan; eta Euskadiko biztanleen % 15,6 izatetik % 24,4 izatera igaro da. Gainera, igoera Espainiako baino handiagoa izan da.

3. Arlo batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoa apur bat murriztu da, eta igo egin da eguneroko bizitzako lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituztenena

Aurreko atalean azaldu ditugun bazterkeriaren hiru ardatzak (ekonomikoa, politikoa eta harremanena) zortzi dimentsio jakinen bitartez osatzen dira, eta dimentsio horiek eguneroko bizitzako beste dimentsio askori egiten diete erreferentzia: enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-gatazka eta gizarte-isolamendua.

Inkestaren datuen arabera, Euskadiko herritarren % 57,7ri ez dio zortzi dimentsio horietako bate berak ere eragiten, aldiz, % 6,7ri lau dimentsio edo gehiagok eragiten diote.

Biztanleria eragiten dien dimentsioen kopuruaren arabera banatuz gero, egoeraren bilakaerak erakusten du dimentsio batean ere arazorik ez duten herritarren kopurua apur bat murriztu dela –% 59,7tik % 57,7ra–; dimentsioen batean arazoak dituzten biztanleen kopurua apur bat hazi dela (% 20,5etik %

21,4ra); bi edo hiru dimentsiotan arazoak dituztenen ehunekoa jaitsi egin dela (% 15,9tik % 14,2ra); eta, batez ere, lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituzten herritarren kopurua nabarmen hazi dela, Euskadiko herritarren % 4 izatetik % 6,7 izatera igaro da.

Pertsona edo etxebizitza bati eragin diezaioketen bazterkeriaren dimentsioen kopuruaz gain, funtsezkoa da dimentsio horietako bakoitzean arazoak dituzten herritarren ehunekoa jakitea eta baita 2018tik 2021era ehuneko horrek izan duen bilakaera ere. Euskadiko herritarrek gabezia gehien dituzten dimentsioa ekonomikoa da (herritarren % 21i eragiten dio), eta, gero etxebizitza (% 17,2), parte-hartze politikoa (% 13,6) eta osasuna (% 11,7). Espainiarekin alderatuta, kaltetutako biztanleen kopurua baxuagoa da Euskadin aztertutako dimentsio guztietan, eta alderik esanguratsuenak gizarte-gatazkan, hezkuntzan eta kontsumoan daude. Euskadiko eta Espainiako egoera antzekoagoa da enpleguaren kasuan, bi lurraldeetan kaltetutako herritarren ehunekoa berdintsua baita.

4. Langabezia, laneko ezegonkortasuna, etxebizitzaren gehiegizko gastuak eta politikan eta gizartean parte hartzeko mugak dira arazorik ohikoenak, eta herritarren % 8 eta % 15i artean eragiten diote

Aipatu ditugun bazterkeriaren ardatzak eta dimentsioak familiek eta pertsonek 37 adierazle espezifikoren inguruan bizi duten egoeraren ondorio dira. Adierazle horiek jasotzen dituzten egoerek zenbat pertsona eta familiari eragiten dioten ezagutzeak eta 2018tik izan duen bilakaera aztertzeak Euskadiko behar nagusien erradiografia egitea ahalbidetzen dute eta politikak behar horietara bideratzea.

Euskadin bost arazo nagusi daude eta biztanleen % 8ri eragiten diote: etxebizitzaren gehiegizko gastua (herritarren % 15,2 egora horretan bizi da); laneko ezegonkortasun larria (% 13,8); etxebizitzan bizi diren eta adin aktiboan dauden pertsona guztiak langabezian egotea (% 9,7); medikamentuak erosteko edo tratamendu medikoak

jasotzeko zailtasun ekonomikoak izatea (% 9,2) eta parte-hartze politikoan mugatuta egotea (% 8,6). Adierazlearen arabera, 200.000 pertsona ingururi eragin zioten gabezia-egoera horiek 2021ean Euskadin. Bestalde, bistakoa da bost adierazleen artean dagoen lotura; dimentsio edo arlo desberdinetakoak

diren arren —enplegua, politika, etxebizitza eta osasuna—, beharrei erantzuteko gutxieneko diru-sarreraren gabeziatik eratortzen diren arazoak dira.

Bestalde, nabarmendu behar dugu aztertutako 37 adierazletatik 18k EAEko herritarren % 2 baino gutxiagori eragiten diotela eta horietatik 9k % 1 baino gutxiagori. Zehazki, horiek dira familiako sostengatzaile nagusiak enplegu baztertzailea duten etxebizitzak (etxeetako saltzaileak, saltzaile ibiltariak, kualifikatu gabeko etxeko langileak...); gizartearen % 95 baino gehiagorentzat oinarrizkoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten etxebizitzak; infraetxeetan bizi diren familiak; osasun-arretarik ez duten pertsonak dauden etxebizitzak; kideen artean harreman txarrak, nahiko txarrak edo oso txarrak dituztenak; alkoholarekin, drogekin edo jokoarekin arazoak dituzten edo azken 10 urteetan arazoak izan dituzten pertsonak dauden etxebizitzak; justiziarekin arazoak dituzten edo azken 10 urteetan arazoak izan dituztenak (aurrekari penalak); auzokoekin harreman txarrak edo oso txarrak dituztenak eta azken urtean instituzioetan (espetxean, etab.) egon direnak.

5. Gizarte-bazterkeriak gehien eragiten dien kolektiboak: etxebizitza pobreak edo diru-sarrerarik ez dutenak, sostengatzaile nagusia lan bila ari denean eta atzerritarrak.

Bazterkeria eta integrazio egoerak ez dira ausaz banatzen herritarren artean eta, hein handi batean, aldagai soziodemografikoen eta sozioekonomikoen menpe daude. Ikuspuntu horretatik, zortzi profil edo gizarte-taldek dute Euskadin % 40 baino altuagoa den bazterkeria-tasa: lehen lekuetan daude pobrezia-egoera larrian dauden familiak (% 98,3); sostengatzaile nagusia lan bila dagoen familiak (% 91,4); diru-sarrerarik ez duten familiak (% 84,6) eta pobrezia-egoeran dauden familiak, larria ez izan arren (% 82,1). Bazterkeria-tasa apur bat baxuagoa dute, baina altua oraindik ere, sostengatzaile nagusia atzerritarra den familiak (% 59,6); guztiak atzerritarrak diren familiak (% 58,8); bost pertsona edo gehiago bizi diren familiak (% 49,2) eta sostengatzaile nagusiak ikasketarik ez duten familiak (% 44,7).

Aldiz, bazterkeria-tasarik baxuena duten bost profil edo taldeak dira 65 urtetik gorako pertsonak (% 2,2); sostengatzaile nagusizat adin horretako pertsona bat duten familiak (% 3,5); sostengatzaile nagusizat goi-mailako ikasketak dituen pertsona baten duten familiak (% 3,9) eta sostengatzaile nagusitzak erretiratutako edo aurretik erretiratutako pertsona bat duten familiak (% 4,2).

Bazterkeria-tasa apur bat altuagoak dituzte, baina biztanleria osoarenak baino dezente baxuagoak, sostengatzaile nagusiak lana egiten duen familiak (% 8,6); adin txikikorik ez duten familiak (% 9,1) eta pobrezia egoerarik ez duten familiak (% 10).

Bestalde, ikusi dugu bost aldagaiek zehazten dutela etxebizitzak bazterkeria-tasarik altuenak edo baxuenak dituztenen artean egongo diren, aldagai horrekiko pertsonak eta familiek duten posizioaren arabera. Beraz, ikuspegi horretatik —eta aldagai bakoitzaren kategoria kopurua, biztanleriak kategoria horien arabera duen banaketa eta aztertu gabeko beste ezkutuko faktore batzuekin izan ditzaketen harreman posibleen azterketa sakonagoa alde batera utzita—, aldagai bereziki erabakigarriak dira bazterkeria pairatzeko arriskuari dagokionez, kategorien artean desberdintasun handiak baitaude. Aldagai horiek elkarren artean lotuta daude hein handi batean, eta honako hauek dira: diru-sarrerara mota, pobrezia-maila, okupazioaren egoera, pertsona nagusiaren ikasketak maila, etxebizitzaren tamaina eta jatorria.

Aurrekoak, noski, ez du esan nahi beste aldagai batzuek ere desberdintasun esanguratsuak sor ditzaketela, esaterako sexuak edo adinak: zehazki, adina bazterkeria pairatzeko arrisku-faktorea da oraindik ere, bai Euskadin bai Espainian. Adinak gora egin ahala, murriztu egiten da bazterkeria-egoeren prebalentzia, eta aldea bereziki nabarmena bilakatzen da 65 urtetik gora. Etxebizitza mota eta tamainarekin batera, adin txikikoak izateak ere lotura zuzena du bazterkeria-egoeraren prebalentziarekin: adin txikikorik ez duten etxebizitzetan bazterkeria-tasa % 9,1ekoa da eta bi adin txikiko edo gehiago bizi diren etxebizitzetan, % 24,4koa.

6. Bazterkeria hazi egin da pobreen edo diru-sarrerarik ez dutenen artean, familia ugarietan eta atzerritarren artean

2021ean bazterkeria-tasarik altuenak zein kolektibo edo profileen izan zituzten jakitetik harago, datuek aukera ematen dute 2018tik prebalentzia zeinetan jaitsi eta igo den gehien aztertzeke.

Prebalentzia gehien handitu da pobrezia-egoera ez larrietan dauden pertsonen kasuan (% 54,8tik % 82,1era), ikasketarik ez duten edo ikasketak osatu gabe dituzten pertsonak buru diren familietan (% 17,5etik % 44,7ra) eta familia ugarien artean (bost kide baino gehiagokoak), horien bazterkeria-tasa % 32,4tik

% 49,2ra igo da. Bazterkeria-tasak ere asko igo dira diru-sarrerarik ez duten etxebizitzetan kasuan, lan bila ari diren pertsonak buru dituzten familietan, soilik laguntza bidezko diru-sarrerak dituztenetan eta atzerritarrek diren eta/edo sostengatzaile nagusia atzerritarra den etxebizitzetan.

Aldiz, nabarmen jaitsi da bazterkeria-tasa Euskadin bi adin txikiko edo gehiago bizi diren etxebizitzetan (% 33,8tik % 24,4ra); sostengatzaile nagusiak 65 urte baino gehiago dituen etxeetan (% 10,8tik % 3,5era); erretiratuak du aurretik erretiratuak buru dituzten familietan (% 18tik % 7,3ra) eta 65 urtetik gorako pertsona-multzoen kasuan, bazterkeria-tasa % 6,9tik % 2,2ra jaitsi da. Bazterkeria-tasak ere nahiko murriztu dira sostengatzaile nagusizat emakumezko bat duten etxebizitzetan, goi-mailako ikasketak dituen pertsona bat dutenetan edo lanean ari den pertsona bat dutenetan.

7. COVID-19ak gogor astindu du lan-merkatua eta nabarmen ugartu dira enpleguarekin zerikusia duten arazoak

2020an zehar, COVID-19aren pandemiak eragindako jarduera ekonomikoaren beherakadak eta mugikortasunaren murrizketek enplegua suntsitzeko prozesua ekarri zuten, eta aurretik ikusi ez zen intentsitatea izan zuen. Urte horretako bigarren hiruhilekoan, Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkestak hiruhileko batean inoiz ikusi zen enplegu-suntsiketarik altuena jaso zuen (milioi bat lanpostutik gora). Hurrengo hilabeteetan, murrizketak arintzen joan ziren heinean, okupazio mailak ere hazten joan ziren, baina gutxiagotuz, 2021eko lehen hiruhilekoan negatiboa izan baitzen.

Euskadin ere pandemiak eragin handia izan zuen lan-merkatuan eta eragin horrek gizarte-bazterkeria kasu larriak areagotzea ekarri du. Lan-merkatuaren funtzionamenduaren ikuspuntutik, nabarmendu behar dugu pandemiaren lehenengo olatuetan zehar langabezia-tasak igo egin zirela –% 11ra arte 2021eko udaberrian zehar–; epe-luzerako langabezia hazi egin zela; Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE) zabaldu egin zirela, 2020ko apirilean Euskadiko Gizarte-Segurantzian afiliatutako herritarren ia % 17k hartu zituen; edo lanean ari zen pertsona bakoitzeko lan-kostu gordina erori egin zela, aurreko urtearekin alderatuta % 1,2.

Espainiarekin alderatuta EAEko lan-merkatuak egoera hobea izan zuen arren pandemian zehar, INFOESSAren datuek erakusten dute Euskadin

nabarmen okertu direla arlo ekonomikoko bazterkeria-egoerak: Espainian ardatz horretako bazterkeria % 23,9tik % 32,9ra igo zen, Euskadin, aldiz, ardatz horretan bazterkeria pairatzen duten herritarren kopurua % 15,6tik % 24,4ra igaro zen. 2021ean gabezia-egoera horien prebalentzia Euskadin Espainian baino baxuagoa izan zen arren, hazkundera nabarmen handiagoa izan zen EAEn (Espainian igoera % 37koa izan zen eta Euskadin % 56koa).

Euskadiko bi urte hauetan izan duen bilakaera oso desberdina izan da kontuan hartzen dugun dimentsioaren arabera –enplegua edo kontsumoa–. Enpleguaren kasuan –erreferentzia egiten die bereziki etxe barruko langabezia egoerei, kontraturik edo gizarte-segurantzako babesik gabeko enpleguei, bazterkeriako enpleguei edo ezegonkortasun handia duten enpleguei–, aurretik aipatu dugun moduan, herritarren ehuneko handi batek bazterkeria-egoerak pairatu ditu, % 10etik % 22,1era igaro baita. Espainian izandako igoera baino handiagoa izan da, nahiz eta enpleguaren arloan dauden bazterkeria-tasak estatu mailakoak baino baxuagoak diren. Kontsumoaren kasuan, berriz, (materialen gabeziarekin eta pobrezia ekonomikoarekin lotutako egoerak hartzen ditu kontuan bereziki) Euskadin –Espainian ez bezala– egoera arazotsuak nabarmen murriztu dira, herritarren % 10i eragitetik % 7,8ri eragitera jaitsi da. Espainia mailan, aldiz, % 14,5etik % 17,6ra igo da.

Bestalde, enpleguarekin lotura duten adierazle guztien artean Euskadin gehien hazi dena, zalantzarik gabe, lan-egoera ezegonkorra duten pertsona aktiboena da. 2018an egoera horretan zeuden familien ehunekoa % 2,3koa zen Euskadin, 2021ean, ordea, % 12,9ra heldu zen, eta Espainiako intzidentzia gainditu zuen, bertan % 10,3ko baita portzentaia.

8. Jaitsi egin da etxebizitza arloan arazoak dituzten herritarren ehunekoa, nahiz eta igo egin den etxebizitzaren gehiegizko gastuak edo etxebizitza-egoera desegokiak edo zalantzazkoak dituztenen kopurua

Enpleguaren kasuan bezala, Euskadin etxebizitzak duen egoera askoz ere hobea da Espainiakoa baino, Izan ere, bertan, krisiak etxebizitza duin bat lortzeko sarbidea erraztu beharrean, kontrakoa eragin du, eremu batzuetan bereziki. Euskadiren kasuan, etxebizitzaren arloko arazoek kaltetutako pertsonen ehunekoa apur bat murriztu da, Espainian, berriz, goraka egin du. Etxebizitzaren arloan arazoak dituzten biztanleen murrizketa bateragarria da Euskadin etxebizitza lortzeko kostuek izan duten hazkunderarekin, bai alokairuan

bai erosterakoan, baita seguruak ez diren edo desegokiak diren etxebizitzaren igoerarekin ere.

Etxebizitzaren bazterkeriak EAEko familien % 14,5i eragin zion 2021ean eta herritarren % 17,2ri, Espainian berriz familien % 20,6 eta herritarren % 24 izan ziren kaltetuak. Euskadik, dimentsio horretako bazterkeria-arazoei dagokionez, Espainia osoak baino eragin txikiagoa izateaz gain, bilakaera positiboa du, estatu mailan izandako gorakadaren aldean. 2018 eta 2021 artean, etxebizitzaren dimentsioan izan den gizarte-bazterkeria ehuneko 1,5 puntu jaitsi da etxebizitzaren kasuan eta puntu 1 herritarren kasuan.

Etxebizitzaren dimentsioaren barruan EAEko herritarren gehiengoari eragiten dion arazoa etxebizitzaren gehiegizko gastua da; etxebizitzaren % 12,4ri eragiten dio, 2018an, aldiz, % 10i eta Espainian, % 14,2ri. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, egoera horrek kaltetutako etxebizitzaren ehunekoa % 57,7koa da eta bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzena % 71,7koa.

Alde handiarekin, EAEko biztanle gehienei eragiten dien bigarren adierazlea etxebizitzaren osasungarritasunik ezarekin lotutakoa da (hezetasunak, usain txarrak, etab.). Egoera horrek etxebizitzaren % 4ri eragiten dio, Espainian, % 7,2ri. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, egoera horrek kaltetutako etxebizitzaren ehunekoa % 14,8koa da eta bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzena % 23,3koa. Gainera, EAEko etxebizitzaren % 3,7 –% 1,9 2018an– pilaketa-egoera larrian dago.

Aurretik adierazi ditugun arazoez gain, EINSFOESSAK etxebizitza-bazterkeria pairatzen duten biztanleen ehunekoa aztertzeo aukera ematen du, eta, zehazki, seguru edo egokia ez den etxebizitzetan bizi direnena, ETHOS tipologia zehaztutako terminoen arabera. Eskuragarri dauden datuek erakutsi dute EAEko herritarren % 4,7k ez duela etxebizitza segururik, eta % 8,5ek ez duela etxebizitza egokirik. Integrazio-egoeran dauden herritarren kasuan, ehunekoak % 1,5 eta % 3,2 dira hurrenez hurren, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, aldiz, kopuru horiek % 21 eta % 35,3 igotzen dira. Ia kasu guztietan, kaltetutako herritarren ehunekoa Espainiakoa baino baxuagoa da. Bilakaerari dagokionez, herritarren multzoa kontuan hartuz gero, etxebizitza seguru edo egokia ez duten herritarren ehunekoa hazi egin da Euskadin, baita Espainian ere.

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea Euskadin azken urteetan etxebizitzaren merkaturatzea murriztu egin dela, botere judzialak horren inguruan egiten

dituen estatistiken datuen arabera. Datuok Euskal Etxebizitzaren Behatokiak autonomia erkidegoetako etxebizitzaren merkaturatzearen inguruan egiten duen txostenean jasotzen dira. Autonomia Erkidegoetako datuak alderatuz eta 10.000 biztanleko merkaturatzen diren etxebizitzaren ratioa kontuan hartuz, Euskadi da etxebizitza gutxien merkaturatzen diren autonomia erkidegoa, bai pilatutako termino historikoetan bai estatistika datu ofizialak dauden urte bakoitzeko. Zehazki, 2020an, 10.000 biztanleko 3 merkaturatze izan ziren, Estatu mailan, aldiz, 6,2.

9. Osasun arloan gizarte-bazterkeria arazoak dituzten herritarren ehunekoa jaitsi egin da, COVID-19aren eragina gorabehera

2020ko martxoan hasi zen krisiaren izaera sozioekonomikoa dela eta, txosten honetan arreta berezia jarri behar dugu osasunarekin lotutako gizarte-bazterkeriaren dimentsioetan. Izan ere, testuinguru honetan, gizarte-integrazioa eta -bazterkeria osatzeko kontuan hartzen ditugun osasun arazo batzuen prebalentzia hazi egin da, bai Espainian bai Euskadin. Bestalde, datu batzuek erakutsi dute lotura dagoela bazterkeria-tasen gorakadaren eta pandemiak autonomia erkidego bakoitzean izan duen eragin desberdinaren artean. Alde horretatik, esan behar dugu lotura positiboa dagoela COVID-19aren pilatutako intzidentzia-tasaren eta erkidego bakoitzeko bazterkeria-tasen gorakadaren artean.

Gai honi lotuta, nabarmendu behar dugu 2020ko urtarrila eta 2021eko maiatza artean, Euskadiko pilatutako kutsatzeen intzidentzia Espainia osokoa baino altuagoa izan dela. Gainera, denbora-tarte berean, heriotza-tasa apur bat altuagoa izan zen Euskadin herrialde osoan baino, hala ere, ospitalizazioen eta ZIUetan sartu ziren pertsonen kopurua antzekoa izan zen.

Ikuspegi subjektiboago batetik, pertsonentzat pandemiak haien gogo-aldartean izan duen eragina kontuan hartuz gero, eragina handiagoa izango litzateke Euskadin Espainia osoan baino. Horri dagokionez, 2020ko martxoko konfinamenduaren aurretik zuena baino gogo-aldarte txarragoa duen herritarren ehunekoa handiagoa da (% 49,3) Espainian baino (% 40,1). Kontrara, apur bat baxuagoa da gogo-aldartean aldaketarik igarri ez dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 49,7 Euskadin, eta % 56,5 Espainian) eta baita gogo-aldarte hobea dutela diotenena ere.

COVID-19ak EAEn izan duen eragin bereizgarriaz harago, egia da azken hiru urteetan EAEn murriztu egin dela osasunaren arloan gizarte-bazterkeria pairatzen duten etxebizitzaren eta pertsonen proportzioa. Murrizketa horrek kontrastatu egiten du adierazle horiek Espainian izan duten hazkundearekin. EAEn, etxebizitzaren % 13,2k eta herritarren % 11,7k bizi du bazterkeria-egoera osasun arloan eta hainbat gabezia ditu dimentsio horren barruan.

Bai etxebizitzaren bai herritarren kasuan proportzio hori Espainiakoa baino nabarmen baxuagoa da, eta bilakaera aztertuz gero ere, 2018koa baino baxuagoa da. Garai hartan, etxebizitzaren % 14,3ri eta pertsonen % 13,6ri eragiten zion.

EAEko etxebizitza guztiak kontuan hartuz gero, osasunaren arloan gehien ematen diren arazoak dira arrazoi ekonomikoak direla eta medikamentuak eskuratzeko dituzten zailtasunak (EAEko etxebizitzaren % 7,1ek medikamentuak edo protesiak erosteari, tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dio arrazoi ekonomikoengatik), eta desgaitasun, gaixotasun edo osasuneko arazo larriak izatea etxebizitzako heldu guztiek (% 7,2). Arazo horien prebalentzia handiagoa da gizarte-bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetan: talde horren barruan, % 40,7k utzi du medikamentuak erosi edo tratamenduak edo dietak jarraitzeari arrazoi ekonomikoengatik, etxebizitzaren % 8tan heldu guztiek eguneroko jarduerak egitea mugatzen dien desgaitasunak, gaixotasun kronikoak edo osasun-arazo larriak dituzte. Familien % 5,5ek gosea izan dute, egun edo iraganean.

10. Gizarte arazoak murriztu egin dira eta isolamendu-arazoak apur bat igo

Espainia guztirako EINFOSSAren datuek erakutsi dute COVID-19a senideen, auzokoen eta komunitatekoan arteko harremanak tenkatzen eta higitzen ari dela. Hain zuzen ere, gizarte-bazterkeriak sortzen dituen arazoek –gatazkaren eta gizarte-isolamenduaren dimentsioetatik abiatuta hauteman direnak– igoera handia izan dute Espainia osoan: 2018 eta 2021 artean, gizartean zeuden bazterkeria-arazoen prebalentziak herritarren % 7,4ri eragitetik % 12,1i eragitera igaro zen Espainian, beraz, termino erlatiboetan behintzat, hazkunde gehien izan duen ardatza da.

Euskadiren kasuan, adierazle horien bilakaera ez da hain argia eta ardatz honetako bazterkeria-egoeren prebalentzia apur bat murriztu da (herritarren

% 7,9tik % 7,1era igaro da). Ardatz hau osatzen duten bi dimentsioek bilakaera desberdina zian dute Euskadin; izan ere, gizarte-gatzak egoeran dagoen herritarren ehunekoa jaitsi egin da (% 5,8tik % 4,9ra), baina horri dagokion gizarte-isolamendua apur bat igo da (% 2,2tik % 2,3ra). Espainiaren kasuan, gizarte-gatazkaren tasak ia bikoiztu egin dira, eta isolamendu-egoerak apur bat ugartu, Euskadin bezala.

Gizarte-gatazkaren arloko gabezia-egoerarik ohikoenak harremanik ez duten eta behar-egoeretarako babesik ez duten pertsonekin lotutakoak dira (% 4,9, Espainian % 5,4). Gizarte-isolamenduaren dimentsioari dagokionez, azken hamarkadan tratu txar fisikoak edo psikologikoak jaso dituen pertsonaren bat dagoen etxebizitzekin lotutakoak dira (EAEko etxebizitzaren % 2,6 eta Espainiakoen % 3,5). Egoera horiek kaltetutako herritarren ehunekoa Euskadin ia igo ez den arren, (% 2,5etik % 2,6ra igo da) harremanik eta babes-sarerik ez duten pertsonen kasuan, igoera apur bat handiagoa izan da behar-egoeretarako, % 3,7tik % 4,9ra igaro da.

11. Arrakala digitalak bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzei eragiten die gehienbat

Kutsatzeko arriskua murrizteko eta COVID-19aren pandemiarekin amaitzeko hartutako neurrien oinarria urruntze soziala ea mugimenduen eta pertsonen arteko harremanen murrizketak izan dira. Etxeko konfinamenduen garaian eta bai laneko bai aisialdiko bidaiak eta bisitak egitea ezinezkoa zen garaian, eremu digitala funtsezko alaitua bilakatu da. Horri dagokionez, lehenik eta behin nabarmendu behar dugu ordenagailuak eta Interneteko sarbidea dituzten, maiz sarea erabiltzen dutena eta/edo erosketak online egiten dituzten etxebizitzaren kopurua eta proportzioa etengabe areagotzen ari dela. Euskadiko biztanleria osoa hartzen badugu kontuan, portzentaia % 55,4 ingurukoa da Interneteko erosketei dagokienez –2010etik nabarmen areagotu dira– eta % 93,4koa azken hiru hilabeteetan sarea erabiltzeari dagokionez. Nabarmen igo da baita ere egunero edo ia egunero Internet erabiltzen duten EAEko biztanleen portzentaia.

Alabaina, gizarte osoari erreferentzia egiten dioten datuek ez dute ondo islatzen arrakala digitala pairatzen duten biztanleen kasuan dagoen mundu digitaleko bazterkeria eta bazterkeriaren gizarte-eremuan duen eragin zehatza. Izan ere, datuen konexio mugagabea izatea, Internet duen gailua edukitzea, eta eremu

digitalean ibiltzeko gaitasun nahikoak izatea egungo gizartean alde handia sor dezaketen hiru elementu dira. Etxean horietakoren bat ez izateak

Arrakala digitalaren egoeran erortzea dakar. EINSFOESSAK 2021ean Euskadin atera zituen datuek argi erakusten dute egoera horiek gehiago ematen direla bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetan. Hain zuzen, arrakala digitala Euskadiko etxebizitzetan % 34,5era heltzen da, eta portzentaje hori % 31,9koa da integrazio-egoeran dauden etxebizitzetan, % 44,2koa bazterkeria-egoera arinean dauden etxebizitzetan eta % 57,6ra heltzen da bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetan kasuan.

Bestalde, egungo digitalizazio maila duen gizartean, arrakala digitala bazterketa-eragilea izan daiteke, eta parte hartzeko aukerak mugatu edo murriztu ditzake nabarmen. Zehazki, integrazio-egoeran dauden etxebizitzetan artean gailuak, konexioa edo Internet erabiltzeko trebetasunak ez izateagatik parte hartzeko aukerak galdu dituztela adierazi dutenak gutxiengoa dira (% 1 baino gutxiago), baina portzentaje hori % 18,7koa da bazterkeria-egoeran dauden etxebizitzetan.

12. Hazi egin dira pobrezia eta desberdintasuna, nahiz eta gabezia materialarekin lotutako adierazleen zatirik handiena hobetu egin den

Euskadiko pobrezia-egoeren analisiak –UE osorako erabiltzen diren adierazle konbentzionalak erabiltzen dira eta, EAEn kasurako, Eusko Jaurlaritzak egiten dituen inkestetatik eratorritzen diren datuak– agerian uzten du, alde batetik, pobrezia eta pobrezia izateko arriskuaren tasak Espainiakoak baino baxuagoak direla. Hain zuzen, pobrezia izateko arriskuaren tasa % 17,8koa da, Espainian, aldiz, % 21ekoa; eta pobrezia larriaren tasa % 6,1ekoa, Espainian, berriz, % 9,5ekoa. Pobrezia mailak, beraz, askoz ere baxuagoak dira EAEn Espainian baino.

Egoera hobea izan arren, ez du estaltzen azken urteetan izan den bilakaera negatiboa: pobrezia larriaren tasak nabarmen igo dira, 2018an % 5,1ekoa izatetik %6,1era igo zen 2020an, eta 2008tik etengabe igo da. Hain zuzen, pobrezia larriaren tasa argi eta garbi igo zen 2008 eta 2014 artean, finantza-krisia izan zen bitartean; ondoren etorri zen susperraldi ekonomikoaren aldian ere igotzen jarraitu zuen –baian oso gutxi– eta berriro hasi da goraka 2018 eta

2020 artean. Pobrezia izateko arriskuaren tasa, aldiz, igotzen joan da baita ere, baina azkenaldian egonkortu egin da.

Era berean, garrantzitsua da adieraztea Eusko Jaurlaritzak egiten dituen estatistiketan erabiltzen dituen adierazle espezifikoak kontuan hartuz gero, esan daiteke mantenu-pobreziaren tasak egonkortu egin direla eta pilaketa-pobreziaren adierazleak murriztu egin direla, hortaz, benetako pobreziaren tasak murriztu egin dira (2018an EAE osoan % 6,1 izatetik % 5,6 izatera igaro da 2020an).

Aipatu berri dugun pobrezia larriaren egoeren bilakaera lotuta dago desberdintasun tasen hazkunde handiarekin, erabiltzen den adierazlea edozein dela ere. Euskadirako eskuragarri dauden datuek erakutsi dute S80/S20 ratioa –diru-sarrera handienak dituzten biztanleen % 20ren eta diru-sarrera txikienak dituztenen % 20ren diru-sarreraren arteko ratioa jasotzen du– 3,6 puntukoa izatetik 2018an, 4,4 puntukoa izatera igaro da 2020an, eta, aldiz, Gini adierazlea 25,2tik 28,2ra igaro da. Euskadiko gizartearen desberdintasun mailak Espainiakoak eta baita Europako herrialde askotakoak baino baxuagoak izaten jarraitzen duten arren, ezin da ukatu azken urteetan izan duen goranzko joera.

Euskadiko desberdintasunaren eta pobreziaren adierazleen igoera nabarmenaren arrazoia, zalantzarik gabe, errenta baxuena duten taldeen diru-sarreraren igoera txikia da. 2008 eta 2020 artean hileko per capita diru-sarrera garbi finkoak % 11,2 igo diren arren gizarte osoarentzat, herritarrik txiroenen % 10arentzat murriztu egin dira diru-sarrerak; % 9,2 erori dira. Beste modu batera esanda, Euskadin diru-sarrera gehien dituzten herritarren % 70aren diru-sarrerak % 13 areagotu dira aldi horretan –eta % 20 diru gehien irabazi duten % 10arentzat–, aldiz, errenta baxuenak dituzten % 20arentzat % 2,6 murriztu dira diru-sarrerak. Beraz, ez da aberatsenen eta txiroenen arteko arrakala handitu, biztanleriaren gehiengoaren eta pobrezia- edo bazterkeria-egoeran dauden biztanleen arteko arrakala da handitu dena. Biztanle gehienek diru-sarreraren hazkunde horrek, pobrezia-atalaseen igoerarekin batera, eta egoera ahulenean dauden taldeen osagaien murrizketarekin batera, azaltzen du, hazkunde ekonomikoaren aldi batean ere, pobrezia- eta desberdintasun-tasak nabarmen hazi izana Euskadin.

13. Biztanleriaren % 1,2 inguruk –pobrezia-egoera larrian dauden biztanleen % 20k– jasotzen du bizitzeko gutxieneko errenta Euskadin

Gizarte-Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak ematen dituen datuen arabera, 2021eko irailera arte bizitzeko gutxieneko errenta jasotzeko 47.982 eskaera jaso zituzten Euskadin, eta horietatik 24.606 tramitatu zituzten. Horietatik 16.817 onartu zituzten guztira, hau da, tramitatu zituzten eskaeren % 68 eta jaso zituztenen herena inguru. Euskadin erregistratutako ehunekoek kontrastatu egiten dute Espainiakoekin. Bertan, 336.933 eskaera soilik onartu dituzte, tramitaturikoen % 27,1 eta eskaeren % 22. Pentsatzekoa da Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako eskaeren ehunekoaren arteko aldea honako hau dela: laguntza horien zati bat DSBE jasotzen duten familia-unitateei dagokie, eta, bizitzeko gutxieneko errenta eskuratzeko baldintzak betetzen dituztenez, prestazio berrian ofizioz sartu dituzte kudeatzaileek. Era berean, Euskadin deigarria da baliozkoak ez diren eskaeren portzentaje altua (ia guztien heren bat) eta tramitatu dituzten baliozkoen portzentaje txikia.

Ikuspegi konparatu batetik, Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak (27.000 baino gehixeago edo, beste termino batzuetan, biztanleriaren % 1,2) pobrezia larrian dauden pertsonen guztizkoaren gainean eskaintzen duen biztanle onuradunen kopurua kontuan hartuta, emaitza Euskal Autonomia Erkidegoko bizitzeko gutxieneko errentaren estaldura Espainia osorako ikusten dena baino zertxobait handiagoa da.

2021eko irailean, Euskadin pobrezia egoera larrian zeuden herritarren % 20,5ek jasotzen zuen bizitzeko gutxieneko errenta, Espainian, aldiz, % 18,5ek.

Euskadin hilabeteko batez beste 514,8 euro ematen dituzte etxebizitzako, Espainiako batezbestekoabaino apur bat gehiago (448,7 euro). Zenbateko horrek pobrezia larriaren atalasearen % 75 adierazten du pertsona bakar batentzat eta pobrezia larriaren atalasearen % 50 bi pertsonentzat Euskadin. Espainiar estatuaren kasuan, portzentajeak apur bat altuagoak dira, % 83 eta % 55 hurrenez hurren.

14. DBEk pobrezia eta desberdintasunak murrizten ditu Euskadin eta pobrezia egoeran dauden herritarren diru-sarreraren % 40 baino gehiago da

Bizitzeko gutxieneko errentak Euskadin izan duen garapenaz gain, ez dago zalantzarik pobrezia-aren aurka autonomia erkidego honetan dagoen laguntzarik handiena Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) dela. 2020ko abenduan, 55.000 etxebizitza inguruk jaso zuten laguntza hori eta 100.000 onuradun inguru izan ziren. DSBEaren onuradun izan diren pertsonen tasa 44,5ekoa zen mila biztanleko 2020ko abenduan, edo bestela esanda, herritarren % 4,4. 2014. urtearen amaieran erregistratutako % 5,5etik beherako estaldura-tasa den arren, ikusi dugu 2019 amaieraren eta 2020 amaieraren artean nahiko hazkunde garrantzitsua izan dela diru-laguntzaren estalduran; 12 hilabete horietan 52.455 titular izatetik –EAEko biztanleen % 2,3– 54.747 izatera igaro zen, % 2,4.

Bizitzeko Gutxieneko Errentak erregistratzen duen biztanleria pobrearen estaldura mugatua da, aldiz, DSBEak Euskadin pobrezia larriaren atalasearen azpitik bizi diren herritarren portzentaje altuagoa hartzen du. Zehazki, 2020 amaieran DSBEa jaso zuten 98.901 herritarren % 73 pobrezia egoera larrian zeuden. Alde horretatik, eskuragarri dauden inkestek erakusten dute DSBEak eragin nabarmena duela pobrezia-larriaren prebentzioan Euskadin. Alde batetik, inkesta horien datuen arabera, EAEko etxebizitza pobreek diru-sarrerak bermatzeko errentatik jasotzen duten zenbatekoa haien diru-sarrera guztien % 42 da eta haien diru-iturri nagusia da. Gainera, DSBEak dakarren diru-sarreraren birbanaketaren kopuru handiak –2020an, urteko 432 milioi euro inguru, hau da, EAEko etxebizitzaren diru-sarreraren % 1,3– eragin garrantzitsua du pobrezia-aren eta desberdintasunaren prebentzioan Euskadin. Alde horretatik, lehenik eta behin gogorarazi behar dugu errenta baxuenak dituzten EAEko herritarren % 10aren diru-sarreraren murrizketa % 21ekoa izango litzatekeela 2008tik 2020ra, DSBEtik iristen zaizkien diru-sarrerarik izango ez balute. DSBEaren pertzepzioak diru-sarren murrizketa hori arintzen du eta % 9an geratzen da.

Pobrezia-tasen murrizketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak eginiko inkestek adierazi dute DSBEa jasotzen dutela balizko eskatzailetzat har daitekeen biztanleriaren % 70 inguruk. Biztanleria horretatik % 47 inguruk pobreziatik irtetea lortzen du diru-laguntzari esker, % 52k, ordea ez du egiten, baina diru-sarrerak nabarmen handitzea lortzen du eta pobrezia atalasearen distantzia % 75etik % 17ra murrizten du.

Hala eta guztiz ere, eskuragarri dauden datuek agerian uzten dute soilik benetako pobrezia egoeran dauden herritarren erdiak inguruk lortzen duela egoera horri aurre egitea DSBEaren diru-laguntzei esker.

EINSFOESSA inkestak ere agerian uzten du EAeko DSBEak xede-biztanleriari dagokionez estaldura handiagoa duela. Hain zuzen ere, Euskadin pobrezia-egoera larrian dauden etxebizitzaren % 74,6k DSBEa jasotzen dute, aldiz, pobrezia larrian dauden pertsonen % 33,5ek soilik jasotzen du gainerako gutxieneko errenta autonomikoren bat Espainian.



blokea

**Gizarte-integrazioa
eta gizarte-bazterkeria
prozesuek kaltetutako
familien ezaugarriak
Euskadin**

Edukia

1. atala	Integrazioa eta gizarte-bazterkeria Euskadin	33
2. atala	Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin	61

1. atala

Integrazioa eta gizarte-bazterkeria Euskadin

Lehen atalaren helburu nagusia Euskadiko gizarte-integrazioaren mailak aztertzea da eta, zehazki, gizarte-bazterkeria arinetik integrazio osora doan tartean herritarrak nola banatzen diren. Hori dela eta, ardatz horretako biztanleriaren banaketari buruzko datu orokorrak aztertu ditugu – bai Espainia osoan bai Euskadin –, horrek erkidego honetan 2018 eta 2021 artean izan duen bilakaera, eta gizarteratze-mailen eta pobrezia ekonomikoko egoeren artean dagoen lotura. Atal guztian zehar, bi ikuspegi osagarri izango ditugu kontuan: bata ebolutiboa, 2018 egoera 2021ekoarekin alderatuz, eta, bestea, lurraldekoa, Euskadiko egoera Espainiakoarekin alderatuz.

FOESSAren (EINSFOESSA) Integrazioaren eta Gizarte-Beharren inguruko Inkestak oinarri duen metodologiaren esparrua, hau da, integratuztik gizarte-bazterkeriara doan jarraipenaren azterketa hiru maila handik osatzen dute; lehenengoa eta orokorra, bazterkeriaren hiru ardatz nagusiei dagokie; ekonomikoa, politikoa eta gizarteratzea, eta harremanena; bigarrena, bazterkeriaren dimentsioei (enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-gatazka, eta isolamendu soziala); eta, azkenik, arazo zehatzei ikuspegiaskoz ere espezifikagoa eskaintzeko, dimentsioen-multzoa osatzen duten eta inkesta honen esparruaren barruan gizarte-bazterkeria eta -integrazioaren kategoriak eraikitzen dituzten 37 adierazleak hartzen dira kontuan.

1.1. Gizarte-integratuzko tasa altuak mantentzen dira, baina nabarmen hazi dira bazterkeria-egoera larriak

FOESSAren Integrazioaren eta Gizarte-Beharren inguruko Inkestaren arabera, 2021ean **Euskadiko biztanleriaren % 57,7 erabat integratuta zegoen,**

% 26,1aren integrazioa prekariora zen, % 7,3 bazterkeria-egoera arinean zegoen eta % 9 bazterkeria-egoera larrian. Gizarte-bazterkeria-egoeran daude Euskadiko herritarren % 16,3, hau da, gutxi gorabehera Erkidegoko sei biztanletik bat –360.000 biztanle inguru– bazterkeria-egoera arinean edo larrian zegoen 2021ean.

Espainia osoarekin alderatuz gero, Euskadiko egoera, oro har, positiboagoa da. Erabat integratuta dauden herritarren kopurua askoz ere handiagoa da –ia % 58 Euskadin, aldiz, Espainian % 42,2–, integrazio-egoera prekariora dauden herritarren kopurua, berriz, baxuagoa da (% 26,1 Euskadin eta % 34,4 Espainia osoan). **Guztira, Euskadin integrazio-egoeran dauden herritarren ehunekoa % 83,7koa da –erabateko integrazioa eta integrazio prekariora barne–, Espainian, berriz % 76,6koa.** Beraz, lehengo ondorioaren arabera, egoera hobea da Espainian baino, gizarte-integrazioan dauden pertsonen kopurua altuagoa da eta, integrazioaren barruan, pisu handiagoa du erabateko integrazioak: zehazki, erabateko integrazioa duten pertsonak Euskadin integratuta dauden pertsona guztien % 68 dira, Espainian, aldiz, % 55. Beste modu batera ikusita, soilik integrazio-egoeran dauden pertsonen heren batek pairatzen du Euskadin integrazio-egoera prekariora eta Espainian % 45ek.


Gizarte-bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ehunekoa txikiagoa da Euskadin Espainian baino: bazterkeria-egoera arinean dauden pertsonak biztanleen % 7,3 dira, Espainian, aldiz, % 10,7; eta bazterkeria-egoera larriek Euskadiko biztanleen % 9ri eragiten diote, eta Espainian, berriz, % 12,7ri. Oro har, **Espainian bazterkeria-egoerek ia biztanleen laurdenari eragiten diote, Euskadin, berriz, % 16,3ri.** Bazterkeriaren gizarte-eremuaren barruan, gizarte-bazterkeria larriaren pisua antzekoa da bi lurraldeetan, beraz, bai Euskadin bai Espainian, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 55 bazterkeria-egoera larrian dago.

Espainiarekin alderatuta Euskadik egoera hobea du, horrek, ordea, ez du ezkututzen bazterkeria-tasek okerrera egin zutela nabarmen 2018 eta 2021 artean, bazterkeria kasu larriek batez ere. Hain zuzen ere, bilakaeraren ikuspegitik, badirudi Euskadiko egoerak nabarmen egin duela okerrera, bereziki, bazterkeria-egoera larrian dauden herritarren kopuruari eta ehunekoari dagokionez.

2018tik, integrazioaren gizarte-esparrua apur bat murriztu da eta % 86,1etik % 83,7ra igaro da. Erabateko integrazio-egoeran dauden herritarren ehunekoa apur bat murriztu da (% 59,7tik % 57,7ra igaro da) eta integrazio prekariora

dauden herritarrei dagokien kopurua egonkor mantendu da (% 26,4tik % 26,1era). Beraz, ikuspegi horretatik esan dezakegu **integrazioaren maila orokorrak apur bat murriztu direla pandemian zehar Euskadin**, eta COVID-19ak sortu duen krisi soziosanitarioak eta sozioekonomikoak apenas murriztu dituela autonomia erkidego honetan dauden gizarte-integratiozko tasa altuak.

1. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako herritarren gizarte-integratioaren mailen eboluzioa



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021


Aldaketak sakonagoak eta negatiboagoak dira bazterkeriaren gizarte-esparruan: alde batetik, **gizarte-bazterkeria-egoeran dauden herritarren ehuneko ia % 20 handitu da; herritar guztien % 13,9 izatetik % 16,3 izatera igaro da**. Aldaketarik adierazgarriena baina, **bazterkeria-egoera larrian dauden biztanleen kopuruaren eta ehunekoaren igoera nabarmena da, biztanleriaren % 4,4 izatetik % 9 izatera igaro baita** (eta etxebizitzaren ikuspegitik, % 3,6tik % 6,8ra). Era berean, murriztu egin da bazterkeria-egoera arinean dauden herritarren kopurua, % 9,5etik % 7,3ra.

Beraz, nabarmendu behar dugu gizarte-integratioaren maila orokorrak asko murriztu ez diren arren, COVID-19aren krisiak bazterkeria-egoerak nabarmen ugaritzea eragin du Euskadin, eta, gehienbat, bazterkeria larrienen kasuak. Bazterkeria hedatu egin da Euskadin eta, batez ere, sakonagoa bihurtu da: 2018an, bazterkerian zeuden pertsonen % 31 zegoen bazterkeria larrian, eta, 2021ean ehuneko ia % 55era heldu zen.

Euskadin izan duen bilakaera eta Espainian izan duena desberdinak dira. Espainia guztiko datuak aztertuz gero, ikus daiteke erabateko integratio

egoerak murriztu egin direla nabarmen (ehuneko 8,3 puntu Espainian eta ehuneko 2 puntu Euskadin), eta, ondorioz, bazterkeria-egoerak areagotu egin direla. Alabaina, Euskadin nabarmenagoa da bazterkeria kasu larrien igoera: Oro har, **Espainian bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen ehuneko % 50 hazi da, eta Euskadin, aldiz, % 100.** Aurrerago ikusiko dugun moduan, horrek adierazten du Euskadin krisiak eragin handiagoa izan duela kolektibo eta profil jakin batzuegan, bereziki, krisiaren aurretik dagoeneko bazterkeria-egoera arinean zeuden horiengan edo, are, integrazio prekarioan zeudenengan ere.

2. GRAFIKOA Euskadiko herritarren eta familien gizarte-integrazioaren mailen eboluzioa (2018–2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

1. tulan gizarte-integrazio eta -bazterkeria-egoeran dauden herritarren eta familien ehunekoaren bilakaera ageri da xehetasun handiagoarekin, bai Espainian bai Euskadin. Tulan jasotako datuek erakusten dute gizarte-bazterkeria-egoeran dauden pertsonen **kopuruak 54.000 kasu gehiago izan dituela azken urteetan, eta 306.000 kasu izatetik 360.000 izatera igaro dela.** Bazterkeria kasu larriei dagokienez, hazkundera, aurretik aipatu dugun moduan,

1. TAULA. Euskadin eta Espainian bazterkeria-egoeran dauden herritarren eta familien kalkulua (2018–2021)

	Espain		Euskadi			
	2018	2021	2018	2021		
Herritarrak	Biztanleria osoa	46.723.000	47.345.000	2.199.000	2.213.000	
	2018tik izan duen hazkundea (%)	–	1,3%	–	0,6%	
	Gizarte-bazterkeria					
	Bazterturik daudenen proportzioa (%)	18,4%	23,4%	13,9%	16,3%	
	Bazterturik daudenen kalkulua	8.577.000	11.088.000	306.000	360.000	
	2018tik izan duen hazkundea (%)	–	29,3%	–	17,6%	
	2018tik izan duen hazkundea (aldea)	–	2.511.000	–	54.000	
	Bazterkeria larria					
	Bazterkeria larriaren proportzioa (%)	8,6%	12,7%	4,4%	9,0%	
	Bazterkeria larriaren kalkulua	4.025.000	6.028.000	97.000	199.000	
	2018tik izan duen hazkundea (%)	–	49,8%	–	105,2%	
	2018tik izan duen hazkundea (aldea)	–	2.003.000	–	102.000	
	Familiak	Familiak guztira	18.536.000	18.755.000	904.000	911.000
		2018tik izan duen hazkundea (%)	–	1,2%	–	0,8%
Gizarte-bazterkeria						
Bazterturik daudenen proportzioa (%)		16,0%	20,9%	11,4%	14,2%	
Bazterturik daudenen kalkulua		2.967.000	3.915.000	103.000	129.000	
2018tik izan duen hazkundea (%)		–	32,0%	–	25,2%	
2018tik izan duen hazkundea (aldea)		–	948.000	–	26.000	
Bazterkeria larria						
Bazterkeria larriaren proportzioa (%)		6,9%	10,7%	3,6%	6,8%	
Bazterkeria larriaren kalkulua		1.272.000	2.014.000	33.000	62.000	
2018tik izan duen hazkundea (%)		–	58,3%	–	87,9%	
2018tik izan duen hazkundea (aldea)		–	742.000	–	29.000	

Iturriak: EINSFOESSA 2018 eta 2021; herritarren datuak 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko urtarrilaren 1era bitarteko EINen Errolda Jarraituaren Estatistikatik ateratakoak dira eta familien datuak, 2018 eta 2021 urteetako EINen Familien Inkesta Jarraitutik ateratakoak.

% 105,2an kokatzen dira, hau da, 2018 eta 2021 artean 100.000 pertsona gehiago daude bazterkeria-egoera larrian Euskadin: 2018an, 97.000 herritar zeuden egoera horretan, eta 2021ean, berriz, 200.000. Alabaina, bazterkeria arinean dauden pertsonen kopurua murriztu egin da (208.000 pertsonatik 160.000ra), eta horrek azaltzen du bazterkeria larrian dauden pertsonen kopuruaren hazkundera, oro har, bazterkeria-egoeran dauden pertsonena baino handiagoa izatea.

2. TAULA Euskadiko eta Espainiako herritarren *pobrezia-arriskuaren tasaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko lotura (2021) (herritar guztien gainean kalkulaturako ehunekoen taula)

%	Espainia			Euskadi		
	Baztertuak	Ez baz tertuak	Guzt	Baztertuak	Ez baz tertuak	Guzt
Txiroak	14,0	4,2	18,1	8,0	1,0	9,1
Ez txi-roak	6,3	49,6	55,9	5,8	51,8	57,6
Informaziorik gabe	3,2	22,8	26,0	2,5	30,9	33,3
Guztira	23,4	76,6	100,0	16,3	83,7	100,0
Pobrezia-arriskuaren tasa	69,0	7,8	24,5	58,2	2,0	13,6

*Pobrezia-aren adierazlea kalkulatzeko familiak deklaraturako diru-sarrerak erabili ditugu, eta alde batera utzi ditugu diru-sarrera guztiak modu fidagarrian deklaratu ez dituzten familiak. Alabaina, informaziorik ez dagoen kasuen ehunekoa altua denez –kasuen % 33,3 Euskadin eta % 26 Espainian–, tasa hau kontuz interpretatu behar da.

Iturria: EINSFOESSA 2021

Aurrerago azalduko dugun moduan, gizarte-bazterkeria lotuta dago zuzenean pobrezia ekonomikoarekin, beraz, Euskadin, **pobrezia-tasa apenas heltzen da % 2ra, baina bazterkeria-egoeran daudenen artean % 58,2koa da.** Desberdintasunak ez dira hain handiak Espainian; pobrezia-tasa % 7,8koa da integrazio-egoeran dauden herritarren artean eta % 69koa bazterkeria-egoeran daudenen artean. Herritarrei dagozkien pobrezia-tasen artean dauden aldeak ere nabarmendu nahi ditugu; Espainian % 24,5ekoak dira eta, Euskadin, % 13,6koak. Nolanahi ere, garrantzitsua da adieraztea estatu mailako pobrezia-aren atalaseak erabiltzen direnez eta Euskadin errenta-talde guztien diru-sarrerak altuagoak direnez, pobrezia-tasak baxuagoak direla erkidego horretan.

Pobrezia- eta bazterkeria-egoeren konbinaketak –elkarren artean lotura estua duten bi fenomeno dira, baina ez berberak– aukera ematen du herritar guztiak lau eremu nagusitan banatzeko: pobrezia-rik gabeko integrazioa (pobrezia-egoeran eta bazterkeria-egoeran ez dauden pertsonen dagokie); integraturako pobrezia (pobrezia-ekonomiko egoeran bai baina bazterkeria-sozialaren

egoeran ez daudenei dagokie); pobreziarik gabeko bazterkeria (bazterkeria-egoeran dauden pertsonak baina pobrezia-aren atalasearen azpitik dauden diru-sarrerak ez dituztenak), eta, azkenik, bazterkeria pobrezia-ekin, pobrezia eta gizarte-bazterkeria-egoeran dauden pertsonak dira. Aztertutako eremu bakoitzean pobrezia-egoeran dauden pertsonen zehaztapenetik abiatuta, eta diru-sarrerenginguruko informazioa lortzerik izan ez den pertsonen ehunekoa altua den arren, Euskadin eta Espainian, bai 2018rako bai 2021erako, pobrezia- eta bazterkeria-egoeren presentzia konbinatuaren arabera biztanleriaren banaketa planteatu daiteke.

3. TAULA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa pobrezia- eta bazterkeria-egoeren presentzia konbinatuaren arabera (2018- 2021)

(%)	Espainia			Euskadi		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Pobreziarik gabeko integrazioa	66,0	49,6	-16,4	60,6	51,8	-8,8
Integratutako pobrezia	6,1	4,2	-1,9	3,0	1,0	-2,0
Pobreziarik gabeko bazterkeria	3,7	6,3	2,6	3,4	5,8	2,3
Bazterkeria pobrezia-ekin	13,2	14,0	0,8	7,9	8,0	0,1
Informaziorik gabe	11,0	26,0	15,0	25,0	33,3	8,3
Guztira	100,0	100,0	–	100,0	100,0	–

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

3.taulako datuen arabera, **pobrezia-egoeran egon gabe integrazio-egoeran zeuden herritarren ehunekoa % 51,8koa zen 2021ean (2)**. 2018an erregistratutakoa baino proportzio txikiagoa da, baina garai hartan diru-sarren inguruko informazioa falta zuten herritarren ehunekoa ere baxuagoa zen.

Integratutako pobrezia –hau da, pobrezia ekonomikoaren egoeran dauden pertsonak baina ez bazterkerian– herritarren % 1i soilik eragiten dio; aldiz, 2018an % 3ri eta Espainian % 4,2ri. Herrialde guztian bezala, **pobrezia-ekin gabeko bazterkeria areagotu egin da, herritarren % 3,4tik % 5era igaro da,**

(2) Benetako ehunekoa, zalantzarik gabe, altuagoa izango da, izan ere, tipologia honetako beste kategoria guztietan bezala, diru-sarrerenginguruko informazioa falta duten pertsonen zati bat ere kategoria honen barruan egongo da. Izatez, informaziorik gabeko pertsonak kontuan hartzen ez baditugu, ehunekoa % 77ra heltzen da.

eta baita pobrezia- eta bazterkeria-egoeran dauden herritarren kopurua ere, oso gutxi bada ere, 2018an % 7,9koa izatetik % 8koa izatera igaro zen 2021ean. (3). Aurreko taulak ere adierazten du Euskadiren kasuan indarra hartu dutela pobreziarik gabeko bazterkeria-egoerek (2018an, pobreziarik gabeko bazterkeria % 30ekoa zen bazterkeria-egoera guztietan eta 2021ean, % 42koa), eta bazterkeriaren esparruan indarra galdu dutela pobrezia-egoerek (2018an, integratutako pertsonen % 4,8 ziren pobreak, 2021ean, aldiz, % 1,9 soilik). Nolanahi ere, aurretik aipatu dugun moduan, informaziorik bildu ezin izan dugun herritarren ehuneko altua dela eta, ezin zaio egoera zehatzik esleitu herritarren % 33,3ri, eta horrek taulako emaitzak behar bezala interpretatzea eragozten du.

1.2. Gizarte-bazterkeriaren ardatzak eta dimentsioak Euskadin

EINSFOESSAren metodologiak bazterkeriaren hiru ardatz nagusi bereizten ditu: ekonomikoa, politikoa eta gizartekoa eta harremanena. Ardatz **ekonomikoa**, enpleguarekin eta kontsumoarekin lotutako dimentsioak hartzen ditugu kontuan. Alde batetik, etxebizitzak eta haien kideak lan-harreman normalizatu izatetik baztertzen dituzten prozesuak aztertzen ditugu, eta, bestetik, diru-sarrera ekonomikoak gizartean parte hartzeko nahikoak eta/edo kalitatezkoak diren aztertzen dugu, baita oinarrizko beharren gabezia-egoerak ere. Bigarren ardatzak, **politikoa eta gizartekoak**, politikan, hezkuntzan, etxebizitzan eta osasunean parte hartzeko bazterkeriari egiten dio erreferentzia. Parte-hartze politikoaren dimentsioan kontuan hartzen ditugu ordezkari politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea, eta baita politikan eta gizartean parte hartzeko gaitasun eraginkorra ere. Gizartearekin lotutako dimentsioetan, berriz, herritarrek hezkuntzarako, etxebizitzarako eta osasunerako dituzten sarbide-baldintzak hartzen dira kontuan.

Azkenik, **harremanekin** lotutako bazterkeriak erreferentzia egiten die, funtsean, gizarteko gatazka- eta isolamendu-egoerei. Horien barruan sartzen dira, alde batetik, aurkako gizarte-harremanak eta gizarteko eta/edo familiako beste gatazka-egoerak, eta, bestetik, giza harremanen eta babesaren gabezia.

(3) Kasu honetan ere, pobreziarik gabeko integrazio-egoerekin gertatzen den moduan, benetako ehunekoa altuagoa izango da ziurrenik.


Era berean, hiru ardatzok zortzi dimentsiotan banatzen dira: enplegua eta kontsumoa ardatz ekonomikoan; etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta parte-hartze politikoa ardatz politikoan; eta gatazka eta isolamendua harremanen ardatzean. Azkenik, dimentsio hauek 37 adierazle jakinek osatzen dituzte guztira eta gabeziak izan daitezkeen egoerak jasotzen dituzte.

Ondorengo epigrafeetan, Euskadiko biztanleriaren egoera aztertuko dugu, ardatz, dimentsio eta adierazle horien arabera.

1.2.1. Arlo ekonomikoan bazterkeria-egoerak pairatu dituzten herritarren ehunekoa handitu egin da, aldiz, murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan izandako eragina

Hiru ardatz nagusietan jartzen badugu arreta, inkestaren datuen arabera, **Euskadiko biztanleriaren % 24,4ri eragiten dio bazterkeria ekonomikoak, % 31,4ri politikoak eta % 7,1i harremanekin zerikusia duenak.**

3. GRAFIKOA. Gizarte-bazterkeriaren ardatz bakoitzak kaltetutako herritarren ehunekoa Euskadin eta Espainian (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021


Integrazioaren eta bazterkeriaren tasa orokorrak aztertzerakoan ikusi ahal izan dugun moduan, **hiru ardatz horiei dagokien egoera askoz ere hobea da Euskadin Espainian baino.** Bai Euskadin bai Espainian, herritarren ehuneko gehienari eragiten dioten arazoak ardatz politikoarekin eta sozialarekin lotutakoak dira (osasuna, etxebizitza, hezkuntza...), eta gutxien eragiten diotenak isolamenduarekin eta gizarte-gatazkarekin lotutakoak. Ardatz bakoitzeko

arazok kaltetutako herritarren kopurua txikiagoa da Euskadin hiru kasuetan: ardatz ekonomikoari dagokionez, kaltetutako biztanleen ehunekoa 8,5 puntu baxuagoa da; ardatz politikoan, 12,5 puntu baxuagoa eta harremani dagokien ardatzean, 4,9 puntu baxuagoa. Termino erlatiboetan, ardatz horretan dago alderik handiena bi lurraldeen artean: Espainian egoera horiek kaltetutako bost pertsonako, Euskadin hiru zenbatzen dira.

Bestalde, datuek erakusten dute bazterkeria egoerek-kaltetutako herritarren ehunekoaren bilakaera desberdina izan dela ardatz horietako bakoitzean Euskadin eta Espainian.

Herrialde osoaren datuak aztertuz gero, argi ikus daiteke hiru ardatzek okerrera egin dutela orokorrean, eta, batez ere, ardatz ekonomikoak (kaltetutako pertsonen ehunekoa % 38 igo da) eta harremanekin lotutakoak, are hazkunde handiagoa izan baitu (% 62). **Euskadin, aldiz, 2018 eta 2021 artean murriztu egin da arlo politikoan eta harremanen arloan gabeziak dituzten biztanleen kopurua (% 6 eta % 10, hurrenez hurren).** Aldi berean, dimentsio ekonomikoan arazoak dituzten herritarren ehunekoa igo egin da, Espainian gertatu den moduan; eta Euskadiko biztanleen % 15,6 izatetik % 24,4 izatera igaro da. Gainera, igoera handiagoa izan da Espainiakoa baino: bi herrialdeetan ehuneko hamar puntu inguru igo da gabezia-egoerek kaltetutako herritarren portzentajea, baina aldaketa erlatiboa % 38koa da Espainian eta % 56koa Euskadin; izan ere, Euskadin bazterkeria mailak nabarmen baxuagoak ziren 2018an.

4. GRAFIKOA **Gizarte-bazterkeriako ardatz bakoitzak kaltetutako herritarren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018-2021)**



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Alde horretatik, aurrerago azalduko dugun moduan, ardatz bakoitzak kaltetutako herritarren ehunekoaren bilakaeraren azterketak erakutsi du aurretik aipatu ditugun bazterkeria larriaren tasen igoera lotuta dagoela enpleguaren dimentsioarekin, eta ez hainbeste kontsumoaren, etxebizitzaren, osasunaren, parte-hartze politikoaren, familia-harremanen edo pertsonen arteko gatazken adierazleen okertzearekin.

Ondorengo taulan, bazterkeria-egoeren bilakaera zehatzago azter daiteke aztertutako ardatz bakoitzean eta talde handi bakoitzerako, bazterkeria larritik erabateko integrazioa doan eskalan.

4. taulatik atera ditugun daturik esanguratsuenak honako hauek dira:

- **Euskadin, bazterkeria-egoera arinean dauden pertsonen % 77,4k eta bazterkeria-egoera larrian daudenen % 97,2k ardatz ekonomikoan jasaten dituzte kalteak**, herritar guztien artean, aldiz, %24,4k. Ardatz politikoaren eta sozialaren kasuan, ehunekoak % 87,1 eta % 95,5ekoak dira, eta harremanen ardatzean, aldiz, % 31,2 eta % 17,9ra murrizten dira. Beraz, herritar guztiekin gertatzen den moduan, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arazo gehiago dituzte arlo ekonomikoa eta politikoan, harremanen arloan baino. Bestalde, bazterkeria larrian dauden biztanleen eta biztanleria-multzo osoaren arteko desberdintasun nagusiak arlo ekonomikoan daude; izan ere, gizarte-bazterkeria larrian dauden pertsonen artean kaltetutako biztanleriaren proportzioa lau aldiz handiagoa da biztanleria osoarekiko.
- 2018arekin alderatuta, bilakaera oso desberdina da. Alde batetik, **arlo ekonomikoko arazoak ugaritu egin dira integrazio prekarioan eta bazterkeria arinean dauden herritarren artean**, eta apur bat murriztu dira, baina % 100eko mailatik gertu daude, bazterkeria larrian dauden pertsonen artean. Ardatz politiko eta sozialeko arazoak argi eta garbi murriztu dira integrazio prekarioan dauden herritarren artean; aldiz, harremanen kasuan, bazterkeria larrian dauden herritarren artean jaitsi egin dira.
- Euskadiren eta Espainiaren arteko desberdintasunetan jartzen badugu arreta, **batez ere nabarmendu behar dugu integrazio prekarioan dauden herritarren artean ardatz ekonomikoko arazoek eragiten dutela gehien Euskadin** eta harremanen ardatz eta ardatz sozialak eragiten diela gutxien kolektibo guztiei, bazterkeria arinean dauden pertsonen kasuan izan ezik.

4. TAULA. Gizarte-bazterkeriaren ardatzek kaltetutako herritarren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian, integrazio-bazterkeria mailen arabera (2018– 2021)

(%)	Espainia			Euskadi		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Ardatz ekonomikoa						
Erabateko integrazioa	0,0	0,0	–	0,0	0,0	–
Integrazio prekariora	26,4	34,9	8,5	18,1	38,6	20,5
Bazterketa arina	75,2	80,0	4,7	68,6	77,4	8,7
Bazterkeria larria	97,5	97,3	-0,2	98,3	97,2	-1,1
Biztanleria osoa	23,9	32,9	9,0	15,6	24,4	8,8
Ardatz politikoa						
Erabateko integrazioa	0,0	0,0	–	0,0	0,0	0,0
Integrazio prekariora	74,6	66,6	-8,0	80,6	63,0	-17,6
Bazterketa arina	78,8	83,0	4,1	83,2	87,1	3,9
Bazterkeria larria	95,2	94,8	-0,5	97,4	95,5	-1,8
Biztanleria osoa	39,1	43,8	4,7	33,5	31,4	-2,1
Harremanen ardatza						
Erabateko integrazioa	0,0	0,0	–	0,0	0,0	0,0
Integrazio prekariora	14,4	18,9	4,5	15,6	12,6	-3,0
Bazterketa arina	13,6	21,0	7,4	29,8	31,2	1,4
Bazterkeria larria	19,0	26,1	7,1	22,4	17,9	-4,5
Biztanleria osoa	7,4	12,1	4,6	7,9	7,1	-0,8


Fuente: EINSFOESSA 2018 y 2021

1.2.2. Arlo batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoa murriztu egin da, eta igo egin da eguneroko bizitzako lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituztenena

Orain arte aztertu ditugun bazterkeriaren hiru ardatzak zortzi dimentsio jakinek osatzen dituzte eta eguneroko beste hainbat dimentsiori egiten diete erreferentzia: enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-gatazka eta isolamendu soziala. Euskadiko herritarrei dimentsio horietako zenbatak eta zeintzuk eragiten dien aztertzea da helburua, eta horretarako, 5. taulan biztanleriaren banaketa jaso dugu –bai Euskadirako bai Espainiarako, eta bai 2018rako bai 2021erako–, kaltetutako dimentsioen kopuruaren arabera.

Arreta Euskadiko 2021eko egoeran jartzen badugu, ikusiko dugu **herritarren % 57,7ri ez diotela zortzi dimentsio horietako bazterkeria-egoerek eragiten, eta, aldiz, % 6,7ri, lau dimentsiok edo gehiagok eragiten diotela**. Biztanleria eragiten dien dimentsioen kopuruaren arabera banatuz gero, egoeraren bilakaerak erakusten du, alde batetik, dimentsio batean ere arazorik ez duten herritarren kopurua apur bat murriztu dela –% 59,7tik % 57,7ra–; dimentsioen batean arazoak dituzten biztanleen kopurua apur bat hazi dela (% 20,5etik % 21,4ra); bi edo hiru dimentsiotan arazoak dituztenen ehunekoak jaitsi egin dela (% 15,9tik % 14,2ra); eta, batez ere, lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituzten herritarren kopurua nabarmen hazi dela, Euskadiko herritarren % 4 izatetik % 6,7 izatera igaro da. Beraz, pentsa genezake, 2018an inolako arazorik ez zuten herritarren zati bat dimentsio batean arazoak dituzten herritarren taldera igaro dela, eta dimentsio batean edo bitan arazoak zituzten herritarren zati bat lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak izatera igaro dela. Badirudi okerrera egiteko joera hori handiagoa dela aurretik arazo kopuru handiagoa zuten herritarren artean.

5. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoaren banaketaren bilakaera, dimentsioetan ageri diren bazterkeria-arazoen arabera (2018– 2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Herritarren banaketa eta bilakaera horrek ez du Espainiakoren antz handirik. 2021eko egoerari dagokionez, **zortzi dimentsiotan zailtasunik izan ez zuten pertsonen ehunekoak askoz ere handiagoa da Euskadin (% 57,7, esan dugun moduan) Espainian baino (% 42,2)**. Eskalaren beste muturrean, **baxuagoa da baita ere lau dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituzten herritarren kopurua Euskadin: % 6,7 Euskadin eta % 10,1 estatu mailan**. Dimentsio

batean, bitan edo hirutan arazoak dituzten herritarren proportzioa ere dezente baxuagoa da Euskadin (% 35,6) Espainian baino (% 47,7).


Desberdintasun horien arrazoia da 2918 eta 21 artean, oso bilakaera desberdina egon dela bi lurraldeetan: hain zuzen, dimentsio batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoaren murrizketa askoz ere mugatuagoa izan da Euskadin Espainian baino —edo, bestela esanda, arazorik gabeko herritarren ehunekoak hobeto eutsi ahal izan dio krisiari—, aldiz, bazterkeria larrian zeuden pertsonen proportzioa handiagoa izan da termino erlatiboetan. Beraz, esan dezakegu COVID-19ak gizarte-bazterkeriaren eremuan izan duen eragina Euskadin Espainian baino handiagoa izan dela.

Bilakaerak izan dituen bi ibilbideak argiagoa ikus daitezke Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoaren (ISES) emaitzak aztertzerakoan. Indize horrek aurretik aipatu ditugun bazterkeriaren lau eremuak —erabateko integrazioa, integrazio prekariora, bazterkeria arina eta bazterkeria larria— bederatzi tartetan banatzen ditu, eta horri esker, eremu bakoitzaren barruan hobeto mailakatu daitezke egoerak, eta, batez ere, bazterkeria larriaren eremuan, lau maila desberdin baitaude. 6. grafikoak Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa jasotzen du, indize horrek 2018an eta 2021ean izan dituen emaitzen arabera.

Bilakaeraren ikuspegitik, Euskadin, arreta ematen du benetako integrazioan dauden pertsonen, bizitzako arlo batean ere arazorik ez duten pertsonen eta 0 GBIS-ISESa duen pertsonen ehunekoak izan duen murrizketa txikia. Euskadin esanguratsua da baita ere GBIS-ISES maila 1 eta 6 artean duten pertsonen ehunekoak izan duen murrizketa; herritarren % 23,4 izatetik % 16,7 izatera igaro dira.

Nolanahi ere, aldaketarik handiena arazo gehien dituzten pertsonen -6tik gorako GBIS-ISESa- ehunekoaren igoera nabarmena izan da. Egoera horretan dauden herritarren ehunekoa % 1,3tik % 6,1era igaro da 2018-2021 artean, eta zenbaki absolutuetan, 28.000 pertsonatik 134.000tik gora bitartean. Zalantzarik gabe, aldaketa horrek azaltzen du aurretik aipatu ditugun bazterkeria larrian dauden herritarren kopuruaren eta ehunekoaren igoera, eta erakusten du ia aztertutako dimentsio guztietan arazoak dituzten herritarren kopurua igo egin dela. Alde horretatik, egoera konplexuak eta arazo asko dituztenak dira, eta eguneroko bizitzako arlo gehienetan esku hartzea behar dute. Espainiar estatuan ere igo da sei puntutik gorako GBIS-ISESa duten herritarren kopurua —eta Euskadin baino altuagoa da izatez—, baina igoeraren neurria txikiagoa izan da, 2018an maila altuagoak baitzeuden han.

6. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoaren banaketaren bilakaera, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoaren mailen arabera (GBIS-ISES)(2018-2021)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

1.2.3. Hazi egin da lan-arloan arazoak dituzten pertsonen ehunekoa eta murriztu kontsumoan, etxebizitzan eta osasunean arazoak dituztenena

Pertsona edo familia bati eragin diezaioketen dimentsioen kopuruaz gain, ezinbestekoa da baita ere Dimentsio horietako bakoitzak kaltetutako herritarren kopurua jakitea eta ehuneko horrek 2018tik 2021era izan duen aldaketa aztertzea. Ondorengo datuan ikusten den moduan, Euskadiko herritarrek gabezia gehien dituzten dimentsioa lanarena da (herritarren % 22,1i eragiten dio), eta, gero etxebizitzarena (% 17,2), parte-hartze politikoarena (% 13,6) eta osasunarena (% 11,7).

7. GRAFIKOA Hainbat dimentsiotan bazterkeria arazoak dituzten herritarren ehunekoa, Euskadin eta Espainian (2021)



Fuente: EINSFOESSA 2018 y 2021

Espainiarekin alderatuta, kaltetutako biztanleen kopurua baxuagoa da Euskadin aztertutako dimentsio guztietan, eta alderik esanguratsuenak gizarte-gatazkan, hezkuntzan eta kontsumoan daude. Euskadiko eta Espainiako egoera antzekoagoa da enpleguaren kasuan, bi lurraldeetan kaltetutako herritarren ehunekoa berdintsua baita.


Ondorengo grafikoan, aztertutako aldiaren Euskadiko eta Espainiako biztanleriak izan dituen bazterkeria-arazoaren presentziak izandako aldaketa jasotzen da, gizarte-bazterkeriaren zortzi dimentsioetako bakoitzean.

Zein ondorio atera behar dira ikus dugun bilakaeratik? Alde batetik, nabarmendu behar dugu **Euskadin dagoen bilakaera oso bestelakoa dela Espainiakoarekin alderatuz gero.**

Hain zuzen, 8. grafikoko datuek adierazten dute Espainian argi eta garbi igo dela enpleguaren, kontsumoaren, etxebizitzaren eta gizarte-gatazkaren arloan bazterkeria-egoerek kaltetutako herritarren proportzioa. Gutxiago bada ere, parte-hartze politikoan, hezkuntzan eta gizarte-isolamenduan eragina izan duten egoerek kaltetutako herritarren ehunekoa ere hazi da. Hein handiagoan edo txikiagoan, handitu egin dira dimentsio guztietan arazoak dituzten biztanleen ehunekoak. Euskadin, bilakaera oso desberdina izan da: alde batetik, enpleguaren dimentsioan arazoak dituzten familietan biziz diren herritarren kasuan, igoera oso nabarmena izan da, % 10etik % 22,1era igo da. Estatu mailakoa baino ehuneko txikiagoa den arren, 2018 eta 2021 artean izan den hazkundera

askoz ere handiagoa da Euskadin. Hezkuntzaren kasuan ere, agerikoagoa zian da okerrera egin duela Euskadin Espainian baino.

8. GRAFIKOA Bazterkeria-arazoen bilakaera Euskadiko eta Espainiako biztanleen artean, gizarte-bazterkeriaren dimentsio bakoitzeko. 2021eko eta 2018ko intzidentzien arteko desberdintasunak



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Gainerako dimentsioei dagokienez, aldiz, Euskadiko bilakaera Espainiako baino hobea izan da. Kontsumoaren kasuan, esaterako, bazterkeria-egoerek kaltetutako pertsonen ehunekoak 3,2 puntu igo da Espainian (% 14,5etik % 17,6ra), Euskadin, 2,2 puntu jaitsi da (% 10etik % 7,8ra) eta, horrela, areagotu egin da Espainiarekin duen aldea. Alde horretatik, egoerak okerrera egin du Espainian etxebizitzari, osasunari eta gizarte-gatazkari dagokionez, eta, aldiz, hobera egin du Euskadin. Azkenik, parte-hartze politikoari dagokionez, igoera antzekoa izan da bi lurraldetan –ehuneko 1,7 puntu inguru–, eta maila antzekora heldu dira. Gauza bera gertatu da gizarte-isolamenduaren kasuan.

Nolanahi ere, arlo horietako bakoitzean egon den egoeraren okertzeak ez die modu berean eragin gizarte-talde guztiei, eta, zehatzago, integrazio eta bazterkeria egoerei dagozkien kategoria bakoitzari. Krisiak aztertutako zortzi dimentsioetako bakoitzean eduki ahal izan duen eragina ara doan ardatzean nolakoa izan den jakiteko, jarraian, dimentsio bakoitzean bazterkeriak izan duen irismenaren bilakaera aztertu dugu, biztanleria osoarekin, bazterkeria-egoeran dauden pertsonekin eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonekin. Aurreko tauletan bezala, 2018ko eta 2021eko datuak bildu ditugu, bai Euskadikoak bai Espainiakoak.

5. TAULA. **Gizarte-bazterkeriaren dimentsio bakoitzak kaltetutako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian; herritar guztientzat, bazterkerian dauden pertsonentzat eta bazterkeria larrian dauden pertsonentzat (2018- 2021)**

(%)	Biztanleria osoa			Bazterkerian dauden herritarrek			Bazterkeria larriko egoeran dagoen biztanleria		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Espainia									
Enplegua	16,1	24,7	8,6	58,6	68,4	9,8	72,1	78,8	6,7
Kontsumoa	14,5	17,6	3,2	62,6	60,2	-2,4	86,4	78,6	-7,8
Politika	12,8	14,5	1,6	35,1	36,2	1,1	44,9	42,8	-2,1
Hezkuntza	13,0	13,2	0,2	24,2	23,5	-0,7	28,9	27,1	-1,7
Etxebizitza	20,0	24,0	3,9	69,3	70,1	0,8	83,8	81,5	-2,3
Osasuna	14,1	17,0	2,9	48,1	50,7	2,6	67,4	69,7	2,2
Gatazka soziala	5,1	9,7	4,6	14,2	21,7	7,5	17,6	24,1	6,6
Isolamendu soziala	2,7	2,9	0,2	2,9	3,4	0,5	2,7	3,6	0,9
Euskadi									
Enplegua	10,0	22,1	12,1	52,1	79,9	27,8	76,0	93,9	17,9
Kontsumoa	10,0	7,8	-2,2	57,6	41,5	-16,1	86,4	57,8	-28,6
Politika	11,8	13,6	1,8	33,6	52,2	18,6	46,3	62,8	16,4
Hezkuntza	5,1	6,6	1,5	14,1	19,2	5,1	14,1	30,1	16,0
Etxebizitza	18,2	17,2	-1,0	67,4	75,5	8,1	88,3	90,0	1,8
Osasuna	13,6	11,7	-1,9	56,4	40,2	-16,2	77,8	53,3	-24,5
Gatazka soziala	5,8	4,9	-0,8	26,6	20,6	-5,9	21,8	16,2	-5,7
Isolamendu soziala	2,2	2,3	0,1	0,8	3,6	2,8	0,5	1,7	1,2

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

5. taulatik emaitza nagusi hauek atera ditugu:

- Euskadiren kasuan, **bazterkeria-egoeran dauden herritarren % 52,2 eta % 79,9 artean, politikaren, enpleguaren eta etxebizitzaren dimentsioetako arazoek kaltetzen dute**. Bazterkeria larrian dauden herritarren kasuan, ehunekoak % 62,8 eta % 93,9 artean daude. Aldiz, isolamendu sozialaren dimentsioetako arazoek bazterkeria larrian dauden pertsonen % 1,7ri soilik eragiten diote, hezkuntza arloko zailtasunek % 30,1i eta gizarte-gatazkarekin lotutakoek % 16,2ri.
- Bi lurraldeen arteko alderaketari dagokionez, **Euskadin bazterkerian dauden herritarrei gehiago eragiten diete enpleguaren, politikaren eta etxebizitzaren arloko gabezia-egoerek Espainiakoei baino**. Aldiz,

kaltetutako herritarren kopurua txikiagoa da —alde handiarekin— kontsumoari eta osasunari dagokionez, eta gainerako dimentsioetan tasak antzekoak dira.

- **2018 eta 2021 artean, bazterkeria-egoeran dauden eta hainbat arlotako gabeziek kaltetu dieten herritarren ehunekoa igo egin da** —enplegua, politika, etxebizitza, hezkuntza eta gizarte-isolamendua—, aldiz, jaitsi egin da kontsumoaren, osasunaren eta gizarte-gatazkaren kasuan.
- Euskadiren kasuan, **kaltetutako pertsonen hazkunderik handienak bazterkeria-egoeran dauden eta enpleguan bazterkeria pairatzen duten pertsonen artean izan dira**, baita dimentsio politikoan baztertuta daudenen artean ere, batez ere, bazterkeria larrian dauden pertsonen, kontsumoaren eta osasunaren kasuan.

1.2.4. Langabezia, laneko ezegonkortasuna, etxebizitzaren gehiegizko gastuak eta politikan eta gizartean parte hartzeko mugak dira arazorik ohikoenak, eta herritarren % 8 eta % 15i artean eragiten diote

Aurreko orrietan azaldu dugun moduan, integrazio eta bazterkeria-egoerak pertsonak eta familiek 37 adierazle zehatzekin duten harremanetik eratorzen dira, eta adierazle horiek zortzi dimentsio eta hiru ardatz osatzen dituzte. 5. taulan jasotzen dira egoera, arazo edo gabezia horietako bakoitzak kaltetutako pertsonen eta familien kopurua eta ehunekoa Euskadin, 2021ean.

Euskadin bost arazo nagusi daude eta biztanleen % 8ri eragiten diote: etxebizitzaren gehiegizko gastua (4) (herritarren % 15,2 egora horretan bizi da); **laneko ezegonkortasun larria (5)** (% 13,8); **familian adin aktiboa duten pertsona guztien langabezia (% 9,7)** **medikamentuak erosteko edo tratamenduak jarraitzeko zailtasun ekonomikoak (6)** (% 9,2) eta politikan parte

(4) Etxebizitzaren gastuak ordaindu ostean, batez besteko errenta baliokidearen % 40tik beherako diru-sarrerak dituzten familiak eta pertsonak, hori baita pobrezia larriaren atalasearen baliokidea.

(5) Sostengatzaile nagusia aktibo eta lanean egoera ezegonkor larrian duen familia (≥3 kontratu edo ≥3 enpresa edo ≥3 hilabete langabezian).

(6) Zehatzago esanda, medikamentuak edo protesiak erosteari utzi eta tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dioten familiak, arazo ekonomikoak direla eta.

hartzeko mugak (% 8,6) **(7)**. Adierazlearen arabera, 200.000 pertsona ingururi eragin zioten gabezia-egoera horiek 2021ean Euskadin. Bestalde, bistakoa da bost adierazleen artean dagoen lotura; dimentsio edo arlo desberdinetakoak diren arren —enplegua, politika, etxebizitza eta osasuna—, beharrei erantzuteko gutxienerako diru-sarrerengabeziatik eratortzen diren arazoak dira.

Bigarrenik, herritarren % 4 eta % 8ri eragiten dioten beste zazpi adierazle daude; bi ekonomiaren dimentsiokoak, bat kontsumoaren dimentsiokoa, bi etxebizitzaren dimentsiokoa, bat osasunaren dimentsiokoa eta beste bat parte-hartze politikoaren dimentsiokoa:

- Epe luzeko langabezia dagoen pertsona bat, titulu profesionalik ez duena eta azken urtean laneko prestakuntzarik jaso ez duen edo ikasketarik egin ez duen pertsona bat gutxienez duten familiak (arazo horrek biztanleen % 7,7ri eragiten dio).
- Pilaketa-egoera larrian dauden familiak **(8)** (pertsonek % 7,2 eta familiek % 3,7).
- Sostengatzaile nagusia duela urtebete edo lehenagotik langabezia daukaten familiak (herritarren % 6,5).
- Pobrezia larrian dauden familiak, 2018an ainguratutako batez besteko errenta baliokidearen % 40tik beherako diru-sarrerekin. Egoera horretan daude pertsonek % 6 eta familiek % 4,8.
- Kontuan hartua izateko eta erabaki kolektiboetan eragiteko gaitasun eraginkorrik ez duen pertsona bat duten familiak **(9)** (herritarren % 5,6).
- Osasungarritasunik ezarekin lotutako arazoak dituzten etxebizitzetan biziz diren familiak, hala nola hezetasunak, zikinkeria edo usainak (herritarren % 4,7).

(7) Ordezkeri politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik ez duten familiak: 18 urtetik gorako eta komunitatearen kanpoko jatorria duten pertsonaren bat duten familiak (elkarrekotasun-hitzarmenik gabe)

(8) Pertsonako 15 metro karratu baino gutxiago dituzten familiak.

(9) Hauteskundeetan duten interes faltagatik parte hartzen ez duten familiak dira eta herritarren erakundeetan batean ere parte hartzen ez dutenak.

- Heldu guztiek eguneroko zereginak egitea eragozten dien desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriren bat duten familiak (herritarren % 4,1).

Bestalde, nabarmendu behar dugu **aztertutako 37 adierazletatik 18k EAeko herritarren % 2 baino gutxiagori eragiten diotela eta horietatik 9k % 1 baino gutxiagori**. Zehazki, horiek dira familiako sostengatzaile nagusiak enplegu baztertzailea duten etxebizitzak (etxeetako saltzaileak, saltzaile ibiltariak, kualifikatu gabeko etxeko langileak...); gizartearen % 95 **(10)** baino gehiagorentzat oinarritzakoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten etxebizitzak; infraetxeetan bizi diren familiak **(11)**; osasun-arretarik ez duten pertsonak dauden etxebizitzak; kideen artean harreman txarrak, nahiko txarrak edo oso txarrak dituztenak; alkoholarekin, drogekin edo jokoarekin arazoak dituzten edo azken 10 urteetan arazoak izan dituzten pertsonak dauden etxebizitzak; justiziarekin arazoak dituzten edo azken 10 urteetan arazoak izan dituztenak (aurrekari penalak); auzokoekin harreman txarrak edo oso txarrak dituztenak eta azken urtean instituzioetan (espetsuek, etab.) egon direnak.

6. TAULA. Bazterkeriaren adierazleek kaltetutako pertsonen eta familien ehunekoa eta kopurua Euskadin (2021)

Zk.	Adierazleak	Pertsonak		Familiak	
		%	kopurua	%	Kopurua
Enplegua	1 Sostengatzaile nagusia duela urtebete edo lehenagotik langabezian dagoen familiak	6,5	144.000	5,3	48.000
	2 Sostengatzaile nagusiak enplegu baztertzailea duen familiak (etxeko salmenta, salmenta ibiltaria, kualifikatu gabeko etxeko langileak...)	0,7	16.000	0,6	5.000
	3 Sostengatzaile nagusiak enplegu irregularra duten familiak: kontraturik gabe eta Gizarte-Segurantzarik gabe.	1,7	39.000	1,6	15.000
	4 Langilerik edo pentsionistarik ez duten familiak, aldi baterako laguntzak ere ez dituztenak (SEPErenak edo gutxieneko errentak)	3,0	67.000	4,0	36.000

(10) Iturriko ura, ur beroa, elektrizitatea, hondakin-uren hustuketa, erabat hornitutako komuna, sukaldea, garbigailua eta hozkailua.

(11) Txabola, etxabea, barrakoia, aurrefabrikatua edo antzekoa.

Zk.	Adierazleak	Pertsonak		Familiak		
		%	kopurua	%	Kopurua	
Enplegua	5	Gutxienez epe luzeko langabe bat duten familiak titulu profesionalik ez dutenak, eta azken urtean, lanbide-prestakuntzarik jaso gabe edo ikasketak egin gabe	7,7	170.000	5,5	50.000
	6	Aktibo dauden pertsona guztiak langabezia dituzten familiak	9,7	215.000	8,8	80.000
	37	Sostengatzaile nagusia aktibo dagoenean, laneko ezegonkortasun larrian (≥ 3 kontratu edo ≥ 3 enpresa edo ≥ 3 hilabete langabezia)	13,8	306.000	12,9	117.000
Kontsumoa	7	Pobrezia larrian dauden familiak: 2018an ainguratutako batez besteko errenta baliokidearen % 40tik beherako diru-sarrerekin.	6,0	132.000	4,8	43.000
	8	2018an, gizartearen % 95entzat oinarritzkoa zen etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak (iturriko ura, ur beroa, elektrizitatea, hondakin-uren hustuketa, erabat hornitutako komuna, sukaldea, garbigailua eta hozkailua)	0,3	6.000	0,3	3.000
	36	Pilatutako zergak dituzten familiak: horniduren, etxebizitzaren, administrazioaren edo maileguren ordainketan atzerapenak dituzten eta egunean erraz jarri ezin direnak	2,8	62.000	2,0	18.000
Politika	9	Ordezkeri politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik ez duten familiak: 18 urtetik gorako eta komunitatearen kanpoko jatorria duten pertsonaren bat duten familiak (elkarrekikotasun-hitzarmenik gabe)	8,6	190.000	6,3	57.000
	10	Kontuan hartua izateko eta erabaki kolektiboetan eragiteko gaitasun eraginkorrik ez duen pertsona bat duten familiak: hauteskundeetan duten interes faltagatik parte hartzen ez duten familiak dira eta herritarren erakundeetan batean ere parte hartzen ez dutenak	5,1	113.000	4,8	44.000
Hezkuntza	11	Eskolatu gabeko 3 eta 15 urte bitarteko haurrak dituzten familiak	1,8	39.000	1,2	11.000
	12	16 eta 65 urte bitarteko (16-62 2018an) pertsona guztiek eskola-graduatu edo baliokidea baino gutxiago duten familiak	2,3	51.000	1,6	14.000
	13	5 urte baino gutxiagoz eskolatua egon den 65 urtetik gorako (62 2018an) pertsonaren bat duten familiak	2,7	59.000	2,7	25.000
Etxebizitza	14	Infraetxeak: txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa	0,3	6.000	0,3	3.000
	15	Etxebizitzaren eraikuntzan gabezia larriak dituzten familiak	1,1	24.000	1,2	11.000
	16	Osasungarriak ez diren egoerak dituzten familiak: hezetasunak, zikinkeria eta usainak	4,7	104.000	4,0	36.000

Zk.	Adierazleak	Pertsonak		Familiak		
		%	Kopurua	%	Kopurua	
Etxebizitza	17	Pilaketa larria duten familiak (pertsonako < 15 metro koadro)	7,2	159.000	3,7	34.000
	18	Etxebizitza prekariora duten familiak: beste pertsona edo erakunde batek doan emandakoa, berralokatutakoa, legez kanpo okupatua edo etxegabetua izateko abisua duena	2,5	55.000	2,1	19.000
	19	Ingurune oso hondatua duten familiak	1,2	27.000	1,2	11.000
	20	Mugikortasun urriko pertsonak dituzten familiak eta muga arkitektonikoak dituztenak	0,9	19.000	1,1	10.000
	21	Etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten familiak (diru-sarrerak - etxeb. gastuak < pobrezia larriaren atalasearen % 40)	15,2	336.000	12,4	113.000
Osasuna	22	Osasun-arretarik ez duen pertsonaren bat duten familiak	0,1	3.000	0,1	1.000
	23	Azken 10 urtetan maiz gosea pasa duen edo egun gosea pasatzen ari den pertsonaren bat duten familiak	1,2	27.000	1,0	9.000
	24	Heldu guztiek eguneroko zereginak egitea eragozten dien desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriren bat duten familiak	4,1	90.000	7,2	66.000
	25	Beste pertsona baten laguntza edo zaintza behar duen menpeko pertsonaren bat duten familiak (eguneroko zereginak egiteko) eta laguntza hori jasotzen ez dutenak	1,1	25.000	1,2	11.000
	26	Gaixo larri edo kronikoren bat duten familiak eta urtebetean gaixo horrentzako arretarik jaso ez dutenak	1,4	32.000	1,2	11.000
	27	Medikamentuak edo protesiak erosteari utzi eta tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dioten familiak, arazo ekonomikoak direla eta	9,2	204.000	7,1	64.000
	Gatazka soziala	28	Azken 10 urtetan tratu txar fisikoak edo psikologikoak pairatu dituen pertsona bat duten familiak	2,7	59.000	2,6
29		Kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak	0,0	0	0,0	0
30		Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dauden familia	1,0	22.000	1,4	12.000
31		Azken 10 urteotan norbait aita edo ama nerabea izan den edo izatear dagoen familia	1,9	41.000	1,1	10.000
32		Azken 10 urteotan justiziarekin (aurrekari penalak) arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dituzten familiak	0,4	10.000	0,5	4.000

Zk.	Adierazleak	Pertsonak		Familiak	
		%	kopurua	%	Kopurua
Isolamendu soziala	33	2,1	46.000	4,9	45.000
	34	0,1	1.000	0,0	0
	35	0,2	4.000	0,2	2.000

Oharra: kaltetutako herritarren eta familien kalkulua egiteko, 2021eko urtarrilaren 1era bitarteko EINen Errolda Jarraituaren Estatistika eta 2021eko EINen Familien Inkesta Jarraitua erabili ditugu.
Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Nolako bilakaera izan du gabezia-egoera horiek kaltetutako herritarren ehunekoak? Zeintzuk igo dira gehien? Horietako zeinek eragiten dio Euskadiko biztanleriaren proportzio nabarmen handiago bati Estatu osoarekin alderatuta? 7. taulak aukera ematen du galdera horiei erantzuteko; izan ere, aurretik deskribatu dugun egoera bakoitzak kaltetu dituen biztanleen ehunekoa jasotzen du Euskadin eta Espainian, bai 2018rako bai 2021erako.

2021ean Euskadi eta Espainiaren artean zeuden desberdintasunetan jartzen baldin badugu arreta, esan dezakegu **Euskadiko egoera Espainiako baino hobea dela aztertutako adierazle gehienetan, eta soilik 37tik 5etan dela Euskadiko egoera Espainiako baino txarragoa**. Zehatzago esanda, Euskadiko egoera Espainiako baino okerragoa duten adierazleak sostengatzaile nagusiaren epe luzeko langabeziarekin, laneko ezegonkortasunarekin, enplegu irregulararekin, infraetxeekin eta gaixotasuna, desgaitasuna edo mendekotasuna dela eta eguneroko zereginak egiteko mugekin lotuta daude. Egoera horien zatirik handienaren prebalentzia, nolahi ere, oso murrizta da, horregatik, bi lurraldeen arteko alderaketak arreta handiz egin behar dira.

Kontrara, Euskadiko prebalentzia Espainiako baino nabarmen baxuagoa da adierazle hauen kasuan: gizartearen % 95 baino gehiagorentzat oinarrizkoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak; osasun arretarik jasotzen ez duen pertsonaren bat duten familiak; kideen artean harreman txarrak, oso txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak; justiziarekin (aurrekari penalak) arazoak dituen edo azken 10 urteetan izan dituen pertsonaren bat duten familiak; azken hamar urteetan maiz gosea pasa duten edo egun pasatzen duten familiak; mugikortasun urriko pertsonak eta muga arkitektonikoak dituzten familiak; eta auzoko bizilagunekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiak.

Bilakaeraren ikuspegitik, azken hiru urteetan zein gabezia-egoera areagotu dira gehien Euskadin? Aztertutako egoera batzuen prebalentzia bikoiztu egin da, enpleguaren arloan bereziki, eta baita hirukoiztu edo are gehiago biderkatu ere: gehienbat, sostengatzaile nagusia duela urtebete edo gehiagotik langabezian dagoen familiak dira (% 1,2tik % 6,5era igaro da); epe luzeko langabezian dagoen, titulu profesionalik ez duen eta azken urtean lan-prestakuntzarik jaso ez duen edo ikasketarik egin ez duen pertsona bat gutxienez duten familiak (% 3tik % 7,7ra); sostengatzaile nagusiak laneko ezegonkortasun larria duen familiak (% 2,1etik % 13,8ra). Enpleguaren arlotik kanpo ere izan dira igo diren adierazleak; eskolatu gabeko 3 eta 15 urte bitarteko haurrak dituzten familiak, oso hondatuta dauden inguruneetan biziz diren familiak edo azken 10 urteotan norbait aita edo ama nerabea izan den edo izatear dagoen familiak. Berrito ere, adierazi behar dugu egoera horien prebalentzia oso txikia dela eta, horregatik, erregistratutako balioetan izaten diren aldaketa txikiak hazkunde handia sortzen dute, nahiz eta eraginaren mailak oso baxuak izaten jarraitzen duten.

Kontrara, aldi horretan prebalentzia gehien murriztu zaien adierazleak dira gizartearen % 95arentzat oinarritzkoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak, osasun-arretarik ez duen pertsonaren bat dutenak eta harreman txarrak, nahiko txarrak edo oso txarrak dituztenak.

Kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak. Aipatu dugun moduan, egoera horien prebalentzia oso txikia da, horregatik, aldi baten eta bestearen arteko aldaketak kontu handiz interpretatu behar dira.

7 TAULA. **Gizarte-bazterkeriaren ardatzek kaltetu dituen herritarren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018- 2021)**

Zk.	Adierazleak (%)	Espainia			Euskadi		
		2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Enplegua	1 Sostengatzaile nagusia duela urtebete edo lehenagotik langabezian dagoen familia	3,4	4,6	1,2	1,2	6,5	5,3
	2 Sostengatzaile nagusizat enplegu baztertua duen pertsona duten familiak (etxeko salmenta, salmenta ibiltaria, kualifikatu gabeko etxeko langileak...)	1,2	1,5	0,3	1,8	0,7	-1,1
	3 Enplegu irregularra duen sostengatzaile nagusia duten familiak: kontraturik gabe eta Gizarte-Segurantzarik gabe	1,1	1,0	-0,1	0,9	1,7	0,8
	4 Langilerik, pentsionistatik edo aldi baterako diru-laguntzarik ez duten familiak (SEPErenak edo gutxieneko errentak)	4,5	6,9	2,4	3,0	3,0	0,0

Zk.	Adierazleak (%)	Espainia			Euskadi			
		2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	
Enplegua	5	Epe luzeko langabezian dagoen, titulu profesionalik ez duen eta azken urtean lan-prestakuntzarik jaso ez duen edo ikasketarik egin ez duen pertsona bat gutxienez duten familiak	8,1	9,8	1,7	3,0	7,7	4,7
	6	Aktibo dauden pertsona guztiak langabezian dituzten familiak	6,3	11,1	4,8	4,3	9,7	5,4
	37	Sostengatzaila nagusiak laneko ezegonkortasun larria duen familia (≥ 3 kontratu edo ≥ 3 enpresa edo ≥ 3 hilabete langabezian)	4,9	11,1	6,2	2,1	13,8	11,7
Kontsumoa	7	Pobrezia larrian dauden familiak: Ainguratutako batez besteko errenta baliokidearen % 40tik beherako diru-sarrerak dituztenak	9,5	12,8	3,3	6,5	6,0	-0,5
	8	2018an, gizartearen % 95entzat oinarrizkoa zen etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak (iturriko ura, ur beroa, elektrizitatea, hondakin-uren hustuketa, erabat hornitutako komuna, sukaldea, garbigailua, hozkailua)	1,5	2,6	1,1	1,7	0,3	-1,4
	36	Pilatutako zergak dituzten familiak: horniduren, etxebizitzaren, administrazioaren edo maileguen ordainketan atzerapenak dituzten eta egunean erraz jarri ezin direnak	4,8	5,8	1,0	2,8	2,8	0,0
Politika	9	Ordezkarri politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik ez duten familiak: 18 urtetik gorako eta komunitatearen kanpoko jatorria duten pertsonaren bat duten familiak (elkarrekikotasun-hitzarmenik gabe)	7,6	8,7	1,1	6,1	8,6	2,5
	10	Kontuan hartua izateko eta erabaki kolektiboetan eragiteko gaitasun eraginkorrik ez duen pertsona bat duten familiak: hauteskundeetan duten interes faltagatik parte hartzen ez duten familiak dira eta herritarren erakundean batean ere parte hartzen ez dutenak	6,1	6,5	0,4	5,8	5,1	-0,7
Hezkuntza	11	Eskolatu gabeko 3 eta 15 urte bitarteko haurrak dituzten familiak	0,8	1,8	1,0	0,2	1,8	1,6
	12	16 eta 65 urte bitarteko (16-62 2018an) pertsona guztiak eskola-graduatu edo baliokidea baino gutxiago duten familiak	6,3	7,0	0,7	2,8	2,3	-0,5
	13	5 urte baino gutxiagoz eskolatua egon den 65 urtetik gorako (62 2018an) pertsonaren bat duten familiak	7,0	5,8	-1,2	2,3	2,7	0,4

Zk.	Adierazleak (%)	Espainia			Euskadi			
		2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	
Etxebizitza	14	Infraetxeak: txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa	0,3	0,1	-0,2	0,0	0,3	0,3
	15	Etxebizitzaren eraikuntzan gabezia larriak dituzten familiak	2,0	1,9	-0,1	2,0	1,1	-0,9
	16	Osasungarriak ez diren egoerak dituzten familiak: hezetasunak, zikinkeria eta usainak	3,4	8,2	4,8	3,8	4,7	0,9
	19	Ingurune oso hondatua duten familiak	0,8	2,1	1,3	4,4	7,2	2,8
	17	Pilaketa larria duten familiak (pertsonako < 15 metro koadro)	5,1	8,7	3,6	2,8	2,5	-0,3
	18	Etxebizitza prekariora duten familiak: beste pertsona edo erakunde batek doan emandakoa, berralokatutakoa, ilegalki okupatua edo etxegabetua izateko abisua duena	3,9	4,8	0,9	0,6	1,2	0,6
	20	Mugikortasun urriko pertsonak dituzten familiak eta muga arkitektonikoak dituztenak	2,0	2,5	0,5	2,1	0,9	-1,2
	21	Etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten familiak (diru-sarrerak - etxeb. gastuak < pobrezia larriaren atalasearen % 40)	12,4	16,8	4,4	10,7	15,2	4,5
Osasuna	22	Osasun-arretarik ez duen pertsonaren bat duten familiak	0,8	0,7	-0,1	1,1	0,1	-1,0
	23	Azken 10 urtetan maiz gosea pasa duen edo egun gosea pasatzen ari den pertsonaren bat duten familiak	2,6	2,8	0,2	0,6	1,2	0,6
	24	Heldu guztiek eguneroko zereginak egitea eragozten dien desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriren bat duten familiak	2,5	2,6	0,1	4,3	4,1	-0,2
	25	Beste pertsona baten laguntza edo zaintza behar duen menpeko pertsonaren bat duten familiak (eguneroko zereginak egiteko) eta laguntza hori jasotzen ez dutenak	0,9	1,2	0,3	2,1	1,1	-1,0
	26	Gaixo larri edo kronikoren bat duten familiak eta urtebetean gaixo horrentzako arretarik jaso ez dutenak	2,1	2,2	0,1	2,5	1,4	-1,1
	27	Medikamentuak edo protesiak erosteari utzi eta tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dioten familiak, arazo ekonomikoak direla eta	8,8	14,9	6,1	8,8	9,2	0,4

Zk.	Adierazleak (%)	Espainia			Euskadi			
		2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	
Gatazka soziala	28	Azken 10 urteotan norbaitek tratu txar fisikoak edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen dituen familia	2,4	3,7	1,3	2,7	2,7	0,0
	29	Kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak	0,6	1,8	1,2	1,1	0,0	-1,1
	30	Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dauden familia	2,0	2,5	0,5	2,5	1,0	-1,5
	31	Azken 10 urteotan norbait aita edo ama nerabea izan den edo izatear dagoen familia	0,8	2,4	1,6	0,6	1,9	1,3
	32	Azken 10 urteotan justiziarekin (aurrekari penalak) arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dauden familia	0,7	1,2	0,5	1,1	0,4	-0,7
Isolamendu soziala	33	Harremanik ez duten eta gaixo daudenerako edo egoera zailetarako laguntzarik ez duten pertsonak dauden familiak	2,2	2,2	0,0	1,7	2,1	0,4
	34	Auzoko bizilagunekin harreman txarra edo oso txarra duten familiak	0,4	0,5	0,1	0,0	0,1	0,1
	35	Azken urtean instituzioetan egon diren pertsonak dituzten familiak	0,2	0,3	0,1	0,5	0,2	-0,3

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

2. atala

Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin

2.1. Sarrera

Aurreko atalean Euskadiko eta Espainiako herritarren integrazio mailaren araberako banaketaren inguruko datu nagusiak bildu ditugu, baita azken hiru urteetan izan duten bilakaera ere. Bazterkeria-egoeren eragina ere aztertu dugu, bai erkidegoko herritarrengan bai Espainia osoko herritarrengan, eremu hori definitzen duen ardatzen eta dimentsioen bitartez. Azkenik, prebalentziarik handiena eta txikiena duten adierazleen hedapena aztertu dugu, baita 2018 eta 2021 artean izan duten bilakaera ere, txosten honetan aztertzen ditugun bazterkeria-egoerak zein errealitate jakin sortzen dituzten jakiteko, edo, hobe esanda, zein errealitate jakinetatik eratortzen diren.

Alabaina, bazterkeria eta integrazio egoerak ez dira ausaz banatzen herritarren artean eta, hein handibatean, baldintzatzen dituzten aldagai soziodemografikoen eta sozioekonomikoen menpe daude. Horregatik, bazterkeria-egoeren eta egoera horiek osatzen dituzten ardatzen, dimentsioen eta adierazleen lehen analisiaren ostean, atal honek aztertutako egoeren irismena deskribatzen du, herritarren askotariko ezaugarrien arabera, eta helburua haien Euskadiko profila eta integrazio eta bazterkeria egoerei gehien lotzen zaizkien faktore soziodemografikoak aztertzea da.

Azterketa biztanleria osoa kontuan hartuz eta ikuspegi hirukoitza erabilita egin dugu: norbanakoen ezaugarri soziodemografikoak, familiako sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak **(12)** eta, azkenik, familiaren ezaugarriak.

(12) Familien ezaugarrien zati handi bat sostengatzaile nagusiaren profilak zehazten du. Kontzeptu gisa, sostengatzaile nagusi gisa hartu dugu familian diru-sarreraren iturri nagusia den pert-

Lehenengo kasuan kontuan hartu ditugun aldagaiak dira adina, sexua eta jatorria. Bigarren kasuan, sostengatzaile nagusiarekin zerikusia duena, aipatutako hiru aldagaien gain, ikasketa maila eta lan-egoera ere kontuan hartu ditugu. Familien ezaugarrien kasuan, kontuan hartu ditugun aldagaiak dira pobrezia-egoeren presentzia, diru-sarrera motak, familiaren tamaina, gurasobakar-egoera, 18 urte azpiko pertsonak izatea eta bizi diren udalerriko urbanizazio maila (13).

Atal honen amaieran dauden 8 eta 9 taulek integraziotik bazterketara doan jarraipenean duten kokapenaren arabera biztanleriaren banaketa jasotzen dute, bai Espainia osorako, bai Euskadira, 2018rako eta 2021erako, biztanleria osoa aurrez adierazitako aldagai soziodemografiko eta sozioekonomikoen arabera bereiziz. Kolektibo horietako bakoitzean prebalentziaren bazterkeria aztertu ordez, beste azterketa bat egin dugu: bazterkeriak gehien kaltetu dituen gizarte-taldeak zeintzuk diren aztertu dugu; gero, 2018 eta 2021 artean bazterkeria-egoera zein kolektibotan hazi den gehien; eta, azkenik, Euskadin, gizarte-bazterkeriaren eremuan gizarte-talderik handienak zeintzuk diren.

Horretarako, hiru kasuetan, 41 kategoria biltzen dituen tipologia egin dugu, eta 14 aldagaien arabera egituratu ditugu: pertsonen adina, sexua, eta jatorria; familiako sostengatzaile nagusiaren adina, sexua, ikasketa maila, lan-egoera eta jatorria; eta familiaren ezaugarriei dagokienez, pobrezia maila, diru-sarrera motak, tamaina, gurasobakartasuna, 18 urtetik beherakoen presentzia eta bizi diren udalerriko urbanizazio maila.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea bigarren atal honetan, eta bereziki, 2.2 eta 2.4 epigrafeetan, intzidentzia eta banaketa kontzeptuei buruz hitz egingo dugula, Euskadiko edo Espainiako herritarren bazterkeria-egoeren irismena eta ezaugarriak azaltzerako orduan. Horregatik, zehaztu beharra daukagu bazterkeriaren intzidentziaz ari garenean, bazterkeriak biztanleria osoarengan

sona, dirua laneko jardunetik edo diru-laguntza batetik edo bestelako gizarte-babes batetik lortzen duen kontuan hartu gabe.

(13) Horretarako, DEGURBA sailkapena erabili dugu (Degree of Urbanisation). Bere metodologia eta datuak Eurostaten kontsulta daitezke (https://ec.europa.eu/eurostat/ramon/miscellaneous/index.cfm?TargetUrl=DSP_DEGURBA). Sailkapen hori Eurostatek sortu du eta EBeko tokiko administrazioen unitate guztietan aplikatzen da, biztanleriaren tamainaren eta dentsitatearen arabera. Hiru udalerrri mota bereizten ditu: hiriak eta dentsitate handiko biztanleria duten eremuak; dentsitate ertaina duten hiriak eta aldiriak; eta biztanleria gutxi duten landa-eremuak.

edo gizarte-talde zehatz batengan duen prebalentziaz edo irismenaz ari garela; hau da, egoerak horiek zer nolako hedapena duten. Alabaina, aldagai jakin bati dagokion (adina, sexua, jatorria, etab.) gizarte-bazterkeriaren banaketaz aritzean, aipatzen duguna da aldagai hori osatzen duten kategoriek bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean duten pisu zehatza. Bi kontzeptuok ilustratzeko esan dezakegu 2021ean bazterkeria-intzidentzia % 59,6koa izan zela atzerriko biztanleen artean Euskadin, eta, era berean, bazterkeria-egoeran zeuden pertsona guztien artean, atzerriko jatorria zutela % 31,6k, jatorriaren faktorea kontuan hartuz egiten den bazterkeriaren banaketaren arabera.

2.2. Gizarte-bazterkeriak gehien eragiten dien kolektiboak: etxebizitza pobreak edo diru-sarrerarik ez dutenak, pertsona sostengatzaile nagusia lan bila ari denea eta atzerritarrak


9. grafikoan ikusten den moduan, **zortzi profil edo gizarte-taldek dute Euskadin % 40 baino altuagoa den bazterkeria-tasa**: lehen lekuetan daude pobrezia-egoera larrian dauden familiak (% 98,3); sostengatzaile nagusia lan bila dagoen familiak (% 91,4); diru-sarrerarik ez duten familiak (% 84,6) eta pobrezia-egoeran dauden familiak, larria ez izan arren (% 82,1).

Altua izaten jarraitzen duen arren, bazterkeria-tasa apur bat baxuagoa dute sostengatzaile nagusia pertsona atzerritarra duten familiek (% 59,6), guztiak atzerritarrak diren familiek (% 58,8), bost pertsona edo gehiago dituzten familiek (% 49,2) eta ikasketarik gabeko sostengatzaile nagusia duten familiek (% 44,7). Aldiz, bazterkeria-tasarik baxuena duten bost profil edo taldeak dira 65 urtetik gorako pertsonak (% 2,2); sostengatzaile nagusizat adin horretako pertsona bat duten familiak (% 3,5); goi-mailako ikasketak dituztenak (% 3,9) eta sostengatzaile nagusizat erretiratutako edo aurretik erretiratutako pertsona bat duten familiak (% 4,2). Bazterkeria-tasa apur bat altuagoa dute, baina, hala ere, herritarren gutzizkoa baino askoz ere baxuagoa, sostengatzaile nagusia lanean duten familiak (% 8,6); adin txikikorik ez duten familiak (% 9,1) eta pobrezia egoerarik ez dutenak (% 10) nabarmentzen dira.

Bestalde, ikusi dugu **familien bazterkeria mailak zehazten dituzten bost aldagai daudela** Beraz, ikuspegi horretatik —eta aldagai bakoitzaren kategoria kopurua, biztanleriak kategoria horien arabera duen banaketa eta aztertu gabeko beste ezkutuko faktore batzuekin izan ditzaketen harreman posibleen azterketa

sakonagoa alde batera utzita—, aldagai bereziki erabakigarriak dira bazterkeria pairatzeko arriskuari dagokionez, kategorien artean desberdintasun handiak baitaude. Aldagai horiek elkarren artean lotuta daude hein handi batean, eta honako hauek dira: diru-sarrerara mota, pobrezia-maila, okupazioaren egoera, pertsona nagusiaren ikasketa maila, etxebizitzaren tamaina eta jatorria (14).

9. GRAFIKOA **Bazterkerian dauden Euskadiko herritarren ehunekoak, norbanakoaren, sostengatzaile nagusiaren eta familiaren hainbat ezaugarriaren arabera (2021)**



SN: familiako sostengatzaile nagusiari egiten dio erreferentzia.

Iturria: EINSFOESSA 2021

(14) Enpleguaren kasuan, esaterako, lan bila ari den sostengatzaile nagusia duten familietan 10 aldiz biderkatzen da lanean ari diren sostengatzaile nagusia duten familiek duten bazterkeria-tasa.

Aurrekoak ez du esan nahi ez dagoela desberdintasun nabarmenik beste aldagai batzuei dagokienez, esaterako, sexuari edo adinari (bai norbanakoarena bai sostengatzaile nagusiarena), familian dauden adin txikikoen kopuruari, edo habitat motari dagokionez. Ildo horretatik, 8. taulako datu batzuk nabarmendu behar ditugu:

- **Adin bazterkeria pairatzeko arrisku-faktorea** da oraindik ere, bai Euskadin, bai Espainian. Adinak gora egin ahala, murriztu egiten da bazterkeria-egoeren prebalentzia, eta aldea bereziki nabarmena bilakatzen da 65 urtetik gora.
- Pertsonen sexuaren arabera, ez dago desberdintasun handirik bazterkeria mailetan (bazterkeriaren prebalentzia % 16,4 da gizonezkoetan eta % 16,2 emakumezkoetan). **Sostengatzaile nagusiaren sexua kontuan hartzen badugu, desberdintasunak apur bat handiagoak dira, baina txikiak nolahi ere: sostengatzaile nagusia gizonezkoa duten familien % 15,5i eragiten dio bazterkeriak eta sostengatzaile nagusia emakumezkoa duten familien % 18,1i.** Espainiaren kasuan, desberdintasunak agerikoagoak dira: gizonak sostengatzaile nagusiak diren familietan, bazterkeria-tasa % 20koa da, eta emakumezkoak diren kasuetan, % 29koa.
- **Bai familiako pertsona bakoitzaren jatorria bai sostengatzaile nagusiarena, oso garrantzitsuak dira bazterkeria-egoerak azaltzerako orduan.** Izan ere, atzerritarren artean bost aldiz handiagoa da bazterkeriaren prebalentzia espainiar nazionalitatea dutenen artean baino.
- Familia-mota eta tamainaz gain, **adin-txikikoak izatea ere lotuta dago argi eta garbi bazterkeria-egoeren prebalentziarekin:** Adin txikikorik ez duten familietan bazterkeria-tasa % 9,1ekoa da eta bi haur edo nerabe edo gehiago dituzten familietan, % 24,4koa.

2.3. Bazterkeria hazi egin da pobreen edo diru-sarrerarik ez dutenen artean, familia ugarietan eta atzerritarren artean

2021ean bazterkeria-tasarik altuenak zein kolektibo edo profilek izan zituzten jakiteaz gain, zeinetan jaitsi eta igo da gehien prebalentzia-tasa 2018tik? 10. grafikoko datuen arabera, -8. taulan ere ageri dira- pobrezia-egoera ez larrietan dauden pertsonen kasuan handitu da prebalentzia gehien (% 54,8tik % 82,1era),

ikasketarik ez duten edo ikasketak osatu gabe dituzten pertsonak buru diren familietan (% 17,5etik % 44,7ra) eta familia ugarien artean (bost kide baino gehiagokoak), horien bazterkeria-tasa % 32,4tik % 49,2ra igo da. Bazterkeria-tasak ere asko igo dira diru-sarrerarik ez duten etxebizitzetan kasuan, lan bila ari diren pertsonak buru dituzten familietan, soilik laguntza bidezko diru-sarrerak dituztenetan eta atzerritarrak diren eta/edo sostengatzaile nagusia atzerritarra den etxebizitzetan.


Alde horretatik, bi adin txikiko edo gehiago dauden familien bazterkeria-tasak nabarmen jaitsi dira Euskadin (% 33,8tik % 24,4ra), nahiz eta altuenen artean dauden oraindik ere. Gainera, tasak jaitsi egin dira sostengatzaile nagusiak 65 urte baino gehiago dituen etxeetan (% 10,8tik % 3,5era); erretiratuak edo aurretik erretiratuak buru dituzten familietan (% 18tik % 7,3ra) eta 65 urtetik gorako pertsona-multzoen kasuan ere, bazterkeria-tasa % 6,9tik % 2,2ra jaitsi da. Bazterkeria-tasak ere nahiko murriztu dira sostengatzaile nagusitzat emakumezko bat duten etxebizitzetan, goi-mailako ikasketak dituen pertsona bat dutenetan edo lanean ari den pertsona bat dutenetan.

Bestalde, kolektibo eta profil jakin batzuen egoera; izan ere, krisi sozioekonomikoak eta soziopolitikoak markatutako aldi honetan ez dute aldaketarik izan tasetan, ez goraka ezta beheraka ere. Horien artean nabarmentzekoak dira espainiar nazionalitatea duten pertsonen kasua, adin txikikorik ez duten familia, tamaina ertaineko familia (2 eta 4 kide artean) edo erdi-hiriguneetan bizi direnena.

2.4. Baztertutako pertsonen gehiengoa hiriguneetan bizi da, Espainian jaiotakoa da eta gizonak buru diren etxebizitzetan bizi da

Aztertutako elementuak gorabehera –bazterkeriaren prebalentzia profilen eta kolektiboen artean, eta 2018 eta 2021 arteko bilakaera–, komeni da errepasoarekin amaitzeko, bazterkeriaren barruan kolektiborik handienak zeintzuk diren jakitea, edo bestela esanda, bazterkeriaren gizarte-eremuan zein kolektibok duten pisurik handiena. Pisu zehatz hori, jakina, bere esklusio-tasa handiago edo txikiagoen eta bere tamaina edo biztanleriaren pisu propioaren emaitza da. Bigarren epigrafe honen hasieran azaldu dugun moduan, fokua aldatu dugu familia edo kolektibo bakoitzean dagoen bazterkeriaren intzidentziaz (zenbat bazterkeria dagoen horietako bakoitzean) integrazioaren

10. GRAFIKOA Bazterkerian dauden Euskadiko herritarren ehunekoak, norbanakoaren, sostengatzaile nagusiaren eta familiaren hainbat ezaugarriren arabera. 2021eko eta 2018ko intzidentzien arteko desberdintasunak



SN: familiako sostengatzaile nagusiarri egiten dio erreferentzia.

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

urruntze-egoeraren banaketarantz (bazterkeriaren multzoan zenbateko pisua duen kolektibo edo tipologia bakoitzak).


11. grafikoak erakusten du bazterkeriaren gizarte-eremuan kolektiborik handiena gurasobakarrak ez diren familietan bizi diren pertsonena dela: hau da, guraso batek eta bere seme-alabak osatzen duten familia ez diren beste guztiak. Gero, hiriguneetan bizi direnak daude: bazterkeria-egoeran dauden herritarren % 70 hiriguneetan bizi da –guztira, 252.000 pertsona edo Euskadiko herritarren % 11,8–; beraz, horrek agerian uzten du Euskadin bazterkeriak duen izaera hiritarra. Euskadiko komunitatean, bazterkeriaren eremuan nagusi dira baita ere, espainiar jatorriko pertsona batek sostengatzen dituen familietan bizi diren pertsonak osatzen duten kolektiboa: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen % 68,4 kolektibo horren parte da (246.800 pertsona, Euskadiko biztanleen % 11,2). Halaber, sostengatzaile nagusia gizonezkoa duten familien pisua ere nabarmendu behar dugu; izan ere, bazterkeria-egoeran daudenen % 67,3 dira (guztira, 243.000 pertsona inguru, Euskadiko biztanleria osoaren % 11).

Bestalde, zeintzuk dira bazterkeriaren gizarte-eremuan pisu gutxien duten kolektiboak? 11. grafikoko datuen arabera, 65 urtetik gorako 11.700 pertsona daude Euskadin bazterkeria-egoeran, eta egoera horretan dauden pertsonen % 3,2 dira. Gainera, bazterkeriaren gizarte-esparruan oso gutxi dira diru-sarrerarik gabeko familietan bizi diren pertsonak, nahiz eta aurretik ikusi dugun moduan intzidentzia-tasa altuak dituzten. Bazterkeria-egoeran dauden eta diru-sarrerarik ez duten 6.500 pertsonak Euskadiko biztanleriaren % 0,3 dira eta bazterkerian dauden pertsonen % 1,8 inguru.

Ildo beretik, bazterkeriaren eremuan oso txikia da beste kolektibo batzuk duten presentzia, hala nola goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak sostengatzen dituzten familietan bizi direnena edo pertsona bakarreko etxebizitzetan bizi direnena: azken horren kasuan, bazterkeria-tasa batez bestekoaren antzekoa da (% 13,8), eta apenas dira bazterkeria-egoeran dauden pertsona guztien % 8,1 eta Euskadiko herritarren % 1,3.

Hurrengo bi taulek 2018 eta 2021erako informazio zehatza ematen dute atal honetan (8. taula) aztertu ditugun talde soziodemografikoetan integrazioak eta gizarte-bazterketak duten eraginari buruz eta gizarte-bazterketaren banaketari buruz, kontuan hartzen diren aldagai espezifiko bakoitza kontuan hartuta (9. taula).

11. GRAFIKOA Bazterkerian dauden Euskadiko herritarren ehuneko eta balioespena, norbanakoaren, sostengatzaile nagusiaren eta familiaren hainbat ezaugarriren arabera (2021)



Oharra: parentesi artean, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen kolektibo bakoitzak Euskadiko biztanleria osoarekiko duen proportzioa agertzen da.

SN: familiako sostengatzaile nagusiari egiten dio erreferentzia.

Iturriak: EINSFOESSA 2021; EIN. Errola Jarraituaren Estatistika 2021eko urtarrilaren 1ean

8. TAULA. Euskadiko eta Espainiako herritarren integrazio eta bazterkeria mailaren bilakaera, norbanakoen, familiako sostengatzaile nagusiaren eta familien hainbat ezaugarriren arabera (2018- 2021)

Intzidentzia (%)		Espainia				Euskadi			
		Integrazioa		Bazterkeria		Integrazioa		Bazterkeria	
		2018	2021	2018	2021	2018	2021	2018	2021
Biztanleria osoa		81,6	76,6	18,4	23,4	86,1	83,7	13,9	16,3
Norbanakoen ezaugarriak									
Adina	18 urtetik beherakoak	72,8	66,0	27,2	34,0	71,7	72,6	28,3	27,4
	18-29 urte	76,5	71,5	23,5	28,5	86,9	78,7	13,1	21,3
	30-44 urte	80,8	75,0	19,2	25,0	81,7	80,3	18,3	19,7
	45-64 urte	83,2	77,1	16,8	22,9	88,8	83,4	11,2	16,6
	65 urtetik gorakoak	92,4	90,8	7,6	9,2	93,1	97,8	6,9	2,2
Sexua	Gizonezkoa	81,6	77,0	18,4	23,0	86,8	83,6	13,2	16,4
	Emakumezkoa	81,7	76,2	18,3	23,8	85,4	83,8	14,6	16,2
Nazionalitatea	Espainiarra	84,9	80,4	15,1	19,6	88,6	87,9	11,4	12,1
	Atzerritarra	52,4	44,4	47,6	55,6	50,9	41,2	49,1	58,8
SN den pertsonaren ezaugarriak									
Adina	45 urtetik beherakoak	75,9	69,7	24,1	30,3	79,9	74,6	20,1	25,4
	45-64 urte	82,2	75,4	17,8	24,6	87,3	82,5	12,7	17,5
	65 urtetik gorakoak	90,0	88,6	10,0	11,4	89,2	96,5	10,8	3,5
Sexua	Gizonezkoa	82,9	79,6	17,1	20,4	90,4	84,5	9,6	15,5
	Emakumezkoa	78,5	70,1	21,5	29,9	77,4	81,9	22,6	18,1
Ikasketak maila	Ikasketarik gabe edo amaitu gabe	69,6	63,2	30,4	36,8	82,5	55,3	17,5	44,7
	DBH edo Batxilergoa Oinarrizkoa	78,1	70,4	21,9	29,6	81,9	78,4	18,1	21,6
	Batxilergoa, BBB edo LH	85,7	81,7	14,3	18,3	84,5	86,4	15,5	13,6
	Goi-mailako ikasketak	93,7	89,8	6,3	10,2	92,9	96,1	7,1	3,9
Lan-egoera	Lanean	86,5	84,9	13,5	15,1	88,3	91,4	11,7	8,6
	Lan bila	12,8	14,4	87,2	85,6	22,2	8,6	77,8	91,4
	Erretiratua edo aurreerretiratua	88,4	86,2	11,6	13,8	90,0	95,8	10,0	4,2
	Beste egoera batzuk	73,1	61,8	26,9	38,2	78,8	78,8	21,2	21,2
Nazionalitatea	Espainiarra	85,5	81,1	14,5	18,9	89,2	87,8	10,8	12,2
	Atzerritarra	51,7	41,5	48,3	58,5	48,6	40,4	51,4	59,6

Intzidentzia (%)		Espainia				Euskadi			
		Integrazioa		Bazterkeria		Integrazioa		Bazterkeria	
		2018	2021	2018	2021	2018	2021	2018	2021
Biztanleria osoa		81,6	76,6	18,4	23,4	86,1	83,7	13,9	16,3
Familien ezaugarriak									
Pobrezia	Pobreziarik ez	94,7	88,8	5,3	11,2	94,6	90,0	5,4	10,0
	Pobrezia, baina ez larria	51,8	40,2	48,2	59,8	45,2	17,9	54,8	82,1
	Pobrezia larria	5,4	2,8	94,6	97,2	6,0	1,7	94,0	98,3
Diru-sarrera motak	Lan-jardueratik lortutako diru-sarrerak soilik	83,6	79,8	16,4	20,2	87,8	84,0	12,2	16,0
	Laneko eta laguntzeko diru-sarrerak	80,7	71,2	19,3	28,8	80,5	81,1	19,5	18,9
	Laguntzetako diru-sarrerak soilik	78,5	69,2	21,5	30,8	83,6	72,7	16,4	27,3
	Lan-jardueratik edo laguntzetatik lortutako diru-sarrerak soilik	19,0	5,7	81,0	94,3	31,9	15,4	68,1	84,6
Tamaina	Pertsona bateko etxebizitza	84,4	78,4	15,6	21,6	90,5	86,2	9,5	13,8
	2 - 4 laguneko etxebizitza	85,5	81,0	14,5	19,0	88,3	87,1	11,7	12,9
	5 pertsona edo gehiagoko etxebizitza	58,1	55,0	41,9	45,0	67,6	50,8	32,4	49,2
Guraso bakarreko familia	Guraso bakarreko familia da	67,8	60,4	32,2	39,6	66,0	68,3	34,0	31,7
	Ez da guraso bakarreko familia	83,3	79,8	16,7	20,2	89,1	86,3	10,9	13,7
18 urtetik beherakoak	Ez dago 18 urtetik beherakorik	86,9	82,9	13,1	17,1	92,0	90,9	8,0	9,1
	18 urtetik beherako bat	81,9	74,8	18,1	25,2	78,8	71,8	21,2	28,2
	18 urtetik beherako bi edo +	68,5	63,3	31,5	36,7	66,2	75,6	33,8	24,4
Urbanizazio maila	Hirigunea	81,5	74,8	18,5	25,2	84,8	82,6	15,2	17,4
	Erdi-hirigunea	80,3	77,3	19,7	22,7	87,8	87,2	12,2	12,8
	Landa-eremua	85,7	82,1	14,3	17,9	90,7	83,3	9,3	16,7

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

9. TAULA. Euskadiko eta Espainiako herritarren integrazio eta bazterkeria mailaren banaketaren bilakaera, norbanakoen, familiako sostengatzaile nagusiaren eta familien hainbat ezaugarriren arabera (2018- 2021)

Banaketa (%)		Espainia				Euskadi			
		Integrazioa		Bazterkeria		Integrazioa		Bazterkeria	
		2018	2021	2018	2021	2018	2021	2018	2021
Norbanakoen ezaugarriak									
Adina	18 urtetik beherakoak	15,8	15,8	26,2	26,6	10,5	16,1	25,7	31,1
	18-29 urte	12,9	12,5	17,6	16,3	16,1	11,2	15,1	15,5
	30-44 urte	21,9	20,1	23,1	21,9	14,7	18,0	20,3	22,7
	45-64 urte	28,5	28,1	25,5	27,3	36,8	26,8	28,8	27,4
	65 urtetik gorakoak	20,9	23,4	7,6	7,8	21,9	28,0	10,1	3,2
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Sexua	Gizonezkoa	48,9	49,2	49,1	48,1	48,0	48,9	45,1	49,3
	Emakumezkoa	51,1	50,8	50,9	51,9	52,0	51,1	54,9	50,7
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Nazionalitatea	Espainiarra	93,5	93,8	73,8	74,7	96,0	95,6	76,4	67,6
	Atzerritarra	6,5	6,2	26,2	25,3	4,0	4,4	23,6	32,4
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
SN den pertsonaren ezaugarriak									
Adina	45 urtetik beherakoak	33,4	30,7	47,3	43,6	20,5	28,1	32,0	49,1
	45-64 urte	42,2	42,3	40,7	45,0	53,7	41,5	48,6	45,2
	65 urtetik gorakoak	24,3	27,0	12,1	11,4	25,8	30,4	19,4	5,7
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Sexua	Gizonezkoa	72,8	70,5	66,8	59,0	70,3	71,3	46,5	67,3
	Emakumezkoa	27,2	29,5	33,2	41,0	29,7	28,7	53,5	32,7
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Ikasketa maila	Ikasketarik gabe edo ikasketak amaitu gabe	19,4	18,5	37,8	35,1	14,7	5,3	19,3	22,0
	DBH edo Batxilergoa Oinarrizkoa	25,8	23,0	32,2	31,5	19,1	29,3	26,1	41,6
	Batxilergoa, BBB edo LH	30,8	32,9	22,8	24,0	35,0	37,9	39,8	30,6
	Goi-mailako ikasketak	23,9	25,6	7,2	9,5	31,3	27,5	14,8	5,8
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Banaketa (%)		Espainia				Euskadi			
		Integrazioa		Bazterkeria		Integrazioa		Bazterkeria	
		2018	2021	2018	2021	2018	2021	2018	2021
Lan-egoera	Lanean	67,6	64,8	46,9	37,9	66,9	62,8	55,1	30,2
	Lan bila	1,0	1,9	29,3	36,9	0,8	1,0	16,5	56,9
	Erretiratua edo aurre-erretiratua	26,3	28,2	15,3	14,8	26,1	32,1	18,0	7,3
	Beste egoera batzuk	5,1	5,1	8,4	10,4	6,3	4,1	10,5	5,7
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Nazionalitatea	Espainiarra	92,7	93,8	69,9	71,5	95,7	95,8	71,9	68,4
	Atzerritarra	7,3	6,2	30,1	28,5	4,3	4,2	28,1	31,6
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Familien ezaugarriak									
Pobrezia	Pobreziarik ez	91,6	92,2	21,9	31,0	95,2	98,0	30,3	41,8
	Pobrezia, baina ez larria	7,8	7,3	30,9	29,0	4,3	1,9	29,2	32,6
	Pobrezia larria	0,6	0,4	47,2	40,0	0,5	0,1	40,6	25,6
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Diru-sarrera motak	Laneko diru-sarrerak soilik	55,8	47,9	46,7	32,3	57,1	33,0	44,6	23,9
	Laneko edo laguntzetako sarrerak	24,1	29,7	24,6	31,9	18,2	40,3	24,6	36,0
	Laguntzetatik eratorritako diru-sarrerak soilik	19,8	22,2	23,1	26,3	24,4	26,7	26,9	38,3
	Laneko edo laguntzetako sarrerak soilik	0,3	0,2	5,6	9,6	0,3	0,1	3,9	1,8
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Tamaina	Pertsona bateko etxebizitza	10,3	8,2	8,5	7,4	13,9	9,8	9,0	8,1
	2 - 4 laguneko etxebizitza	80,0	80,1	60,5	61,5	76,5	84,8	62,7	64,9
	5 pertsona edo + etxebizitza	9,7	11,6	31,0	31,1	9,5	5,4	28,3	27,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Guraso bakarreko familia	Guraso bakarreko familia da	8,9	13,2	18,8	28,4	9,9	11,7	31,6	27,9
	Ez da guraso bakarreko familia	91,1	86,8	81,2	71,6	90,1	88,3	68,4	72,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
18 urtetik beherakoak	Ez dago 18 urtetik beherakorik	60,4	60,5	40,5	40,9	75,3	62,6	40,6	32,4
	18 urtetik beherako bat	20,2	20,0	19,9	22,0	12,5	15,6	20,7	31,5
	18 urtetik beherako bi edo +	19,4	19,6	39,6	37,1	12,2	21,7	38,7	36,1
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Urbanismo maila	Hirigunea	55,0	52,1	55,6	57,4	57,4	67,3	74,5	70,1
	Erdi-hirigunea	31,8	34,4	34,7	33,0	33,0	21,4	18,3	17,8
	Landa-eremua	13,2	13,5	9,8	9,6	9,6	11,3	7,2	12,0
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

2 blokea

**Egun krisian
baztertuaileenak diren
faktoreak eta COVID-19ak
sortu edo ikusarazi dituen
beharren erantzuna**

Edukia

3. atala	COVID-19aren eragina lan-merkatuan eta enpleguaren eta gizarte-integrazioaren arteko harremanean	77
4. atala	Hazi egin dira etxebizitza-bazterkeriaren egoerak eta etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten herritarren ehunekoa	93
5. atala	Osasun arazoak, gizarte-bazterkeria eta COVID-19a	101
6. atala	Pandemiak eta horrek eragindako krisiak familiako babes-sareak tenkatu eta higatu ditu	113
7. atala	Arrakala digitala, elementu baztertzaila berria	121
8. atala	Pobrezia eta diru-sarreren bermea: bizitzeko gutxieneko errentaren eta DBEren eragina pobrezia eta bazterkeria egoeretan	127

3. atala

COVID-19aren eragina lan-merkatuan eta enpleguaren eta gizarte-integrazioaren arteko harremanean

3.1. Sarrera

EINFOESSA 2021eko emaitzen aurrerapenean azaldu dugun moduan **(15)**, 2020an zehar, COVID-19aren pandemiak eragindako jarduera ekonomikoaren beherakadak eta mugikortasunaren murrizketek enplegua suntsitzeko prozesua ekarri zuten, eta aurretik ikusi ez zen intentsitatea izan zuen. Urte horretako bigarren hiruhilekoan, Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkestak hiruhileko batean inoiz ikusi zen enplegu-suntsiketarik altuena izan zuen: milioi bat lanpostutik gora. Hurrengo hilabeteetan, murrizketak arintzen joan ziren heinean, okupazio mailak ere hazten joan ziren, baina gutxiagotuz, 2021eko lehen hiruhilekoan negatiboa izan baitzen. Urteko lehen hilabete horietan, pandemiaren hirugarren olatuak 140.000 lanposturen galera ekarri zuen, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Lan-merkatuaren krisi handi horren testuinguruan, txostenaren hirugarren atala Euskadiko enpleguaren egoeran, pandemiak lan-merkatuaren funtzionamenduan izan duen eraginean eta enpleguaren dimentsioaren eta integrazio eta bazterkeria prozesuen multzoaren arteko harremanean oinarritzen da. Horretarako, aztertutako aldiaren erregistratutako okupazio, lan-jarduera eta langabezia tasen bilakaera aztertu dugu lehenik eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteek (ABEEE) erkidegoan izan duten irismena, baita Euskadiko lan-merkatuak –eta bere ekoizpen-ereduak– izan dituen lan-kostuen bilakaera eta aldaketak ere, Jardueraren sektore bakoitzean lanean ari

(15) FOESSA Fundazioa (2021): «Kanporatutako gizartea eta diru-sarrerak izateko eskubidea», seriea: *Analisisa eta Aurreikuspenak*. Madril: FOESSA Fundazioa

diren pertsonen kopuruaren ikuspegitik. Lan-merkatuaren funtzionamenduan izandako aldaketak aztertu ostean, bigarren epigrafean Euskadin pobrezia, bazterkeriaren eta enpleguaren artean dagoen harremana eta enpleguaren dimentsioarekiko Euskadiko herritar guztiek dituzten arazo nagusiak aztertu ditugu —eta, zehatzago, bazterkerian dauden pertsonak—.

Aurreko epigrafeetan bezala, egoera bilakaeraren ikuspegitik —azkeneko hiru urtetan izan diren aldaketetan jarri dugu arreta— eta alderaketatik aztertu dugu, Euskadiko eta Espainiako lan-merkatuen funtzionamenduak dituen desberdintasun nagusiak identifikatu.

3.2. COVID-19ak astindutako lan-merkatua


2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoaren artean, Euskadiko lan-merkatuak 30.400 langile gutxiago izan zituen; hau da, okupazioa % 3,3 jaitsi zen. Alderatzuz gero, okupazioaren beherakada hori nahiko txikia izan zen; izan ere, aldi horretan, Espainian lanean ari ziren pertsonen kopurua % 5,5 jaitsi zen. Orduetik, bilakaeraren datuetan ikus daiteke enplegua suntsitzen diren aldiak eta susperraldi garaiak txandakatu direla. Hala ere, Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkestaren azken datuen arabera, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, okupazio maila 2020 eta 2019an aldi horretan izandakoa baino altuagoa izan zen.

Espainia osoan bezala, okupazioaren bilakaera horrek eragina izan du aldi horretako langabezia-tasan. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek erakusten duten moduan, Euskadiko langabezia-tasa % 8,6koa zen 2019ko bigarren hiruhilekoan eta % 11ra igaro zen 2020eko bigarren hiruhilekoan. Ondoren, langabeziak behera egin du, baina Espainiako Estatuan baino gutxiago.

Era berean, garrantzitsua da adieraztea, krisi soziosanitario honen unerik gorenean ere —langabezia-tasa % 16,3ra heldu zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan eta Euskadin % 11ra 2021eko lehenengoan— **langabeziaren maila orokorrak eta langabezian zeuden herritarren kopurua 2008ko finantza-krisian izandako mailatik oso urrun geratu direla.**

Krisi horretan zehar, langabezia-tasak % 26,9ra heldu ziren Espainian eta % 17,4ra Euskadin, 2014ko lehenengo hiruhilekoan.

12. GRAFIKOA Euskadin lanean ari diren pertsona-kopuruaren bilakaera eta aldaketa, hiruhilekoaren arabera (2019 1. H - 2021 3. H)




Iturria: EIN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Deskribatu berri dugun okupazioaren susperraldiaren eta langabezia-tasen murrizketaren aurrean, badirudi **epe luzeko langabeziak (16) ez duela horren bilakaera positiboa izan**. Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, bai

Espanian, bai Euskadin, epe luzeko langabezian dauden pertsonen proportzioa langabezian dauden pertsona guztiekiko handitu egin da azken hilabeteetan; Euskadin, % 31,8koa zen 2020an eta % 39koa 2021ean. Azken horren kasuan, urteko lehen bi hiruhilekoetako batezbestekoa da eta epe luzeko langabeziak langabezia osoarekiko duen proportzioaren murrizketaren joerarekin hautsi du.

(16) Epe luzeko langabezia-tasak erakusten du gutxienez hamabi hilabetez lan bila aritu diren eta aldi horretan lanik egin ez duten pertsonen kopurua, herritar aktibo guztien ehunekoaren gainean.

1.3. GRAFIKOA Langabezia-tasaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2006-2021)



Iturria: EIN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Hala eta guztiz ere, epe luzeko langabezia tasa Espainia guztikoa (% 6,4) baino baxuagoa da Euskadin (batez beste % 4,1 2021eko lehenengo bi hiruhilekoetan). Ikuspegi honetatik ere esan dezakegu, langabezia-tasa orokorretan ikusi dugun moduan, egungo epe luzeko langabeziaren intzidentzia aurreko finantza-krisiaren unerik gogorrenean erregistratu zena baino askoz ere baxuagoa dela, 2014an, % 9,3ra heldu baitzen.


Bestalde, aurreko krisietan bezala, langabeziak ez die modu berean eragin gizarte-talde guztiei. 15. grafikoak aldagai soziodemografiko jakin batzuen arabera langabezia-tasak islatzen ditu –sexua, adina eta nazionalitatea– azken lau urtetan, eta 2013arekin alderatzen ditu, orduan hauteman baitziren Euskadin aurreko krisialdian izandako langabezia-tasarik altuenak. Bildutako informazioak erakusten du langabezia-tasak bereziki altuak direla atzeritarren artean (% 23,9) eta, gehienbat, 25 urtetik beherakoen artean (% 38,3). Horien langabezia-tasak goraka egin du 2018tik.

Ikuspegi xeheago batetik, ondorengo datuak nabarmendu ditzakegu Euskadin.

- Alde batetik, gizarte-talde horietako bakoitzaren egungo langabezia-tasak 2013koekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu termino erlatiboetan gutxien murriztu direnak 25 urtetik beherakoei eta 55 urtetik gorakoei dagozkienak izan direla.
- Bestalde, 2021ean Euskadin talde demografiko horietako bakoitzak erregistratutako langabezia-tasak Espainiakoekin alderatzen baditugu, ikus


dezakegu Euskadin –bertako langabezia-tasa Espainiakoa baino ehuneko bost puntu baxuagoa da– langabezia-tasa nabarmen baxuagoak daudela kasu guztietan, 25 urtetik beherako pertsonen eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kasuan izan ezik. Talde horietan, Euskadiko langabezia-tasak Espainiakoaren oso antzekoak dira, nahiz eta apur bat baxuagoak izan.

14. GRAFIKOA Epe luzeko langabeziaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2012-2021)



Iturria: EIN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2021eko informazioa urte horretako 1. eta 2. hiruilekoetako batezbestekoa da

15. GRAFIKOA Euskadiko langabezia-tasaren bilakaera eta alderaketa Espainiarekin, talde soziodemografikoen arabera (2013- 2021)



Iturria: EIN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta. 2021eko informazioa urte horretako 1. eta 2. hiruhilekoetako batezbestekoa da

Azaldu berri dugun langabezia-tasaren bilakaera ezin da inolaz ere ulertu edo interpretatu administrazio publikoek pandemiari eman dioten erantzuna kontuan hartu gabe eta, bereziki, enplegua babesteko ezarri zituzten politikak.

Alde honetatik, funtsezkoa da Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen (ABEEE) efektua kontuan izatea okupazioaren zifra agregatuetan, pandemiak enpleguarengan izan duen eragina ulertu ahal

izateko. 10. taulan jasotako informazioaren arabera, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE) izan zituzten pertsonen kopurua ia 160.000ra heldu zen 2020ko apirilean; hau da, Euskadin Gizarte-Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsonen % 16,8 eta Espainian afiliatuta zeuden eta ABEEE zuten pertsonen % 4,4. Konfinamendua amaitu ostean, 2020ko maiatza inguruan, ABEEEak zituzten pertsonen kopurua murriztuz joan zen progresiboki –2020ko azken hilabeteetan eta 2021 hasieran gora egin zuten berriro ere–, eta 2021eko uztailan, Gizarte-Segurantzako afiliatuen % 1,1 baino ez ziren (% 1,5 Espainian).

10. TAULA. COVID-19a zela eta, ABEEEn zeuden Gizarte-Segurantzako afiliatuen kopuruaren bilakaera Euskadin eta Espainian

	Espainia		Euskadi		
	ABEEE kop.	% ABEEE afiliatutako batezbestekoarekiko	ABEEE kop.	% ABEEE afiliatutako batezbestekoarekiko	% ABEEE Espainiako guztizkoarekiko
2020ko martxoa	3.108.554	16,4%	142.297	14,7%	4,6%
2020ko apirila	3.576.192	19,4%	159.102	16,8%	4,4%
2020ko maiatza	2.605.023	14,0%	105.913	11,2%	4,1%
2020ko ekaina	1.450.243	7,8%	56.141	6,0%	3,9%
2020ko uztaila	868.509	4,6%	31.802	3,4%	3,7%
2020ko abuztua	768.615	4,1%	27.864	3,0%	3,6%
2020ko iraila	706.107	3,7%	24.476	2,6%	3,5%
2020ko urria	728.321	3,8%	22.786	2,4%	3,1%
2020ko azaroa	850.950	4,5%	47.843	5,0%	5,6%
2020ko abendua	702.808	3,7%	33.025	3,4%	4,7%
2021eko urtarrila	928.045	4,9%	39.095	4,1%	4,2%
2021eko otsaila	858.785	4,6%	31.190	3,3%	3,6%
2021eko martxoa	674.366	3,6%	26.477	2,8%	3,9%
2021eko apirila	636.752	3,3%	26.689	2,8%	4,2%
2021eko maiatza	491.983	2,6%	20.771	2,2%	4,2%
2021eko ekaina	387.731	2,0%	14.369	1,5%	3,7%
2021eko uztaila	292.722	1,5%	11.085	1,1%	3,8%


Oharra: ABEEE kopurua COVID-19arekin lotutako ABEEEn afiliatutako pertsonen kopuruarekin bat dator, Gizarte-segurantzaren datu-base estatistikoaren arabera.

Iturria: Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. Afiliazio estatistikak

Pandemiaren eraginez enpleguan eta jardueran izandako aldaketek eragina izan dute, zalantzarik gabe, Euskadiko herritarren diru-laguntzetan eta bizi-baldintzetan. Alde horretatik, estatistika publiko ofizialak eraginaren informazio eguneratua jasotzen ez duen arren, soldaten bilakaeraren bitartez krisiaren ondorioak neur daitezke zeharka, familien diru-sarrera nagusiak baitira, errenta baxuenak dituztenen jasotzen dituzten diru-laguntzekin batera.

EINek egin zuen Laneko Kostuen Urteko Inkestaren arabera, 2020an, estatu mailan –soldatapeko pertsonen multzorik atera ziren arren kontraturik laburrenak eta soldatarik baxuenak zituztenak–, batez beste % 2,1 jaitsi ziren soldatak euro arruntetan aurreko urtearekin alderatuta. Beste aldagai batzuetan Euskadik duen egoera ona soldatetan ere islatzen da, izan ere, Espainiarekin alderatuta, Euskadin % 1,2ko beherakada izan zen. Ikuspegi zabalago batetik, Euskadiren bilakaera Espainiakoa baino apur bat positiboagoa izan da, 2008an hasitako finantza-krisia amaitu zenetik izan den soldaten igoerari dagokionez. Hain zuzen, 2015-2020 aldia kontuan hartzen badugu eta KPIaren eragina zuzentzen badugu, ikusiko dugu aldi horretan % 2,9 murriztu zirela Espainiako soldatak, euro konstanteen terminoetan, eta, aldiz, Euskadin murrizketa apur bat txikiagoa izan zela (% 1,5). Bilakaera desberdin horren ondorioz, 2015ean, Euskadik Espainiak baino % 17,5eko soldata maila altuagoa zuen, eta 2020an, % 19,1 altuagoa.


16. GRAFIKOA Laneko kostu gordinaren bilakaera langileko eta urteko, Euskadin eta Espainian, euro arruntetan eta konstanteetan (oinarria 100=2008)



Fuentes: INE. Encuesta anual de coste laboral; Índice de Precios de Consumo (por comunidades autónomas)

Halaber, aldaketa interesgarri batzuk izan dira Euskadiko lan-merkatuan lanean ari diren herritarren partzialtasun- eta iragankortasun-tasei dagokionez, nahiz eta badirudien COVID-19ak ez dituela, oraingoz behintzat, aldaketa sakonak eragin. **2019 eta 2021 artean, Euskadin % 6,4 jaitsi zen iragankortasuna, Espainiako beherakadaren oso antzekoa (% -6,9), eta, bestalde, partzialtasunak gora egin zuen**, 2020leko lehen bi hiruhilekoen batezbestekoari dagokionez behintzat. Horrela, Euskadin lanaldi partziala duten langileen proportzioa (% 15,4) Espainiakoa (% 14,2) baino apur bat handiagoa da.

17. GRAFIKOA Euskadi eta Espainiako soldatapeko langileen iragankortasun- eta partzialtasun-tasen bilakaera (2008- 2021)



Iturriak: Iturria: ELN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urteko batezbestekoaren datuak, 2021ekoak 1. eta 2. hiruhilekoetakoak dira

Azkenik, COVID-19ak eta pandemiarekin lotutako krisiak Euskadiko jarduera-sektore desberdinetan lanena ari diren pertsonen kopuruaren ikuspegitik izan duen eragin desberdinari erreferentzia egin behar diogu. Alde horretatik, 11. taulako datuek adierazten dute, termino erlatiboetan, 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan izandako okupazioaren beherakadak gehien kaltetutako sektoreak eraikuntza eta nekazaritza izan zirela, eta enpleguak % 9,6 eta % 15,3 jaitsi zirela hurrenez hurren. Termino absolutuetan, ordea, langile gehien galdu zituen sektorea zerbitzuena izan zen –Euskadin lanean ari diren pertsonen % 72 inguru bertan aritzen da–; 2020ko bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoan baino 25.100 langile gutxiago izan zituen. Urtebete geroago, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek adierazi dute okupazioa suspertu egin dela erkidego honetan eta 2020ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2021eko hiruhileko beraren artean, % 1,9 igo zela lanen ari ziren pertsonen kopurua.

11. TAULA. Euskadiko langile-kopuruaren bilakaera, jarduera-sektoreen eta hiruhilekoen arabera (2019- 2021) (milaka)

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		Guztira	
	Kop.	Aldea	Kop.	Aldea	Kop.	Aldea	Kop.	Aldea	Kop.	Aldea
2019T1	8,8	—	187,5	—	53,4	—	686,3	—	935,9	—
2019T2	11,1	2,3	189,4	1,9	54,5	1,1	690,3	4,0	945,2	9,3
2019T3	12,1	1,0	194,8	5,4	52,3	-2,2	670,9	-19,4	930,0	-15,2
2019T4	8,9	-3,2	191,3	-3,5	51,4	-0,9	681,7	10,8	933,3	3,3
2020T1	9,8	0,9	185,8	-5,5	55,2	3,8	679,3	-2,4	930,0	-3,3
2020T2	8,3	-1,5	187,1	1,3	49,9	-5,3	654,2	-25,1	899,6	-30,4
2020T3	7,4	-0,9	187,9	0,8	51,5	1,6	673,7	19,5	920,5	20,9
2020T4	8,0	0,6	199,3	11,4	48,2	-3,3	664,7	-9,0	920,1	-0,4
2021T1	8,2	0,2	200,6	1,3	45,6	-2,6	646,9	-17,8	901,4	-18,7
2021T2	9,4	1,2	202,2	1,6	44,2	-1,4	658,3	11,4	914,1	12,7
2021T3	5,8	-3,6	209,4	7,2	45,3	1,1	677,7	19,4	938,3	24,2

Iturria: EIN. Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta


3.3. Bazterkeria-egoeran dauden herritarrek lan-arloan dituzten zailtasunak

Euskadin enpleguarekin lotuta dauden aldagai nagusien bilakaera aztertu ostean, epigrafe honetan, EINSFOESSA 2021 metodologiak eskaintzen dituen adierazleak aztertu ditugu, enpleguari, lan-merkatuari eta enpleguaren dimentsioko arazoei eta bazterkeria-egoeren arteko harremanari dagokionez. Lehenik eta behin, lehen atalean esan dugun moduan, nabarmendu behar dugu 2018 eta 2021 artean, Espainiarekin alderatuta, Euskadik izan duela bilakaerarik okerrera ardatz ekonomikoan dauden bazterkeria-egoeren hedapenari dagokionez: Espainian ardatz horretako bazterkeria herritarren % 23,9tik % 32,9ra igo zen, Euskadin, berriz, ardatz horretan bazterkeria pairatu zuten herritarren ehunekoak % 15,6tik % 24,4ra igo zen. **Gabezia-egoera horien prebalentziak 2021ean Euskadin Espainian baino baxuagoa izaten jarraitzen zuen arren, igoera askoz ere handiagoa da EAEn (igoera % 37koa da Espainian eta % 56koa EAEn).**

Euskadik bi urte hauetan izan duen bilakaera oso desberdina izan da kontuan hartzen dugun dimentsioaren arabera —enplegua edo kontsumoa—. Enpleguaren kasuan —erreferentzia egiten die bereziki etxe barruko langabezia

egoerei, kontraturik edo gizarte-segurantzako babesik gabeko enpleguei, bazterkeriako enpleguei edo (17) ezegonkortasun handia duten enpleguei—, herritarren ehuneko handi batek bazterkeria-egoerak pairatu ditu, % 10etik % 22,1era igaro baita. Espainian izandako igoera baino handiagoa izan da, nahiz eta enpleguaren arloan dauden bazterkeria-tasak estatu mailakoak baino baxuagoak diren. Kontsumoaren kasuan, berriz, (materialen gabeziarekin eta pobrezia ekonomikoarekin lotutako egoerak hartzen ditu kontuan bereziki) Euskadin —Espainian ez bezala— egoera arazotsuak nabarmen murriztu dira, herritarren % 10i eragitetik % 7,8ri eragitera jaitsi da. Espainia mailan, aldiz, % 14,5etik % 17,6ra igo da.

18. GRAFIKOA Ardatz ekonomikoak eta bere dimentsioek kaltetutako herritarren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018- 2021)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Dimentsio horietako bakoitzean kaltetutako herritarren proportzioan aldeak dauden arren, zalantzarik ez dago langabezia-egoerek, kasu askotan, pobrezia eta/edo gizarte-bazterkeria dakartela. Horrela, epe luzeko langabezian dagoen sostengatzaile nagusia duen familiak —hau da, gutxienez duela 12 hilabetetik lan bila dagoena— zailtasun ekonomiko larriak izango ditu. Horien

(17) Bazterkeria-enplegutzat hartzen dira honako hauek: etxez etxeko salmenta, laguntzeko salmenta ibiltaria, salmenta ibiltari marjinala, kualifikatu gabeko etxeko langileak, sasoikako aldi baterako nekazaritza-langileak, kartoiak eta bestelako hondakinak jasotzen dituztenak, propaganda banatzen dutenak, eskaleak.

artean, bazterkeria-egoeran dauden familien proportzioa % 100ekoa da eta pobrezia larrian dauden familiena % 25,4koa. Epe luzeko langabezia-egoeran ez egon arren, sostengatzaile nagusia langabezian egotea lotuta dago pobrezia larriko kasuen % 24,9rekin eta bazterkeria-egoeren % 89,4rekin. Kontrara, lan-merkatuan lanean ari diren pertsonen sostengatzen dituzten familietan, pobrezia larriaren tasa % 3,2koa da eta bazterkeria-tasa % 5,2koa. Bestalde, aipatu behar dugu langabezian dauden pertsonen pobrezia kasu larrien tasak askoz ere baxuagoak direla Euskadin Espainian baino, bazterkeria-tasak, aldiz, antzekoak dira. Nolanahi ere, alde horren arrazoietakoa bat izan daiteke, pobrezia-egoeren atalaseak kalkulatzeko estatu mailako batez besteko diru-sarrerak erabili izana.

19. GRAFIKOA Pobrezia larrian eta bazterkerian dauden familien proportzioa Euskadin eta Espainian, familiako sostengatzaile nagusiaren lan-egoeraren arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

12. taulan enpleguaren eta kontsumoaren dimentsioei dagozkien adierazle guztiak jasotzen dira, bai Euskadirako bai Espainiarako, 2018an eta 2021ean, eta bereizketa egiten du bazterkerian dauden herritarren eta herritar guztien artean.

Taula horretan jasotako informazioak erakusten du enpleguaren dimentsioan bazterkeriarekin lotura gehien duten adierazleak direla sostengatzaile nagusia

lanean, baina egoera oso ezegonkorrean dauden familiak (Euskadiko etxe guztien % 12,9tan gertatzen da hori) eta gutxienez epe luzeko langabe bat, titulu profesionalik gabeko bat eta azken urtean prestakuntzarik jaso ez duen bat duten familiak (Euskadiko familien % 5,5).

Alde horretatik, EINSFOESSA 2021en datuek erakusten dute gizarte-bazterkeria azaltzeko faktore gisa langabeziak duen garrantzia: 12. taulan ikus daitekeen moduan, 2021ean, bazterkerian zeuden familien % 58,3k eta bazterkeria larrian zeuden familien % 84,6k langabezian zituen pertsona aktibo guztiak, Euskadiko herritarren % 8,8aren aldean. Era berean, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familien ezaugarri argia da sostengatzaile nagusiak duela urtebete edo gehiagotik langabezian daramatzan familien prebalentzia handia (% 38,5, Euskadiko familia guztien % 5,3) eta gutxienez epe luzeko langabezian dagoen pertsona bat, titulu profesionalik gabeko bat eta aldi horretan prestakuntzarik jaso ez duen bat duten familiena (% 38,5, % 5,5en aldean).

Biztanleria osora itzuliz, eta bilakaeraren ikuspegitik, aipatu behar dugu **enpleguarekin lotutako adierazle guztien artetik gehien handitu dena egoera ezegonkorrean lanean ari diren pertsonena dela**. 2018an egoera horretan zeuden familien ehunekoa % 2,3koa zen Euskadin, 2021ean, ordea, % 12,9ra heldu zen, eta Espainiako- gairatzen zuen, bertan % 10,3koa baita ehunekoa. Era berean, 12. taulako datuek erakusten dute enpleguarekin lotutako bazterkeria-adierazle batzuen prebalentzia murriztu egin dela, hala nola sostengatzaile nagusiak enplegu baztertzailea duen familien kasuan (% 1,6tik % 0,6ra).

Azkenik, kontsumoaren dimentsioarekin lotutako adierazleei dagokienez —bai pobrezia egoera larriari bai materialen gabeziari eta gehiegizko zorpetzeari egiten diote erreferentzia—, Euskadiko egoera estatu mailakoa baino nabarmen hobea da. Dimentsio honetan, 2018 eta 2021 artean Euskadin izandako aldaketak oso garrantzi gutxikoak dira eta, kasu guztietan, estatuko mailen azpitik daude. Emaitzarik berrienen arabera, **Euskadiko familien % 4,8ri (Espainiakoen % 11,3ri) eragiten dio pobrezia larriak**, eta kalkulu horretarako estatuko pobrezia-atalasea erabili da (horregatik, esan dugun moduan, Euskadiko pobrezia-egoeren irismena gaizki kalkulatzeko eragin dezake). Era berean, familien % 2k gehiegizko zorpetzea dute eta % 0,3k materialen gabezia larriak dituzte (Espainian, % 4,7k eta % 2,7k hurrenez hurren).

12. TAULA. Ardatz ekonomikoko adierazleak kaltetze mailan izan duten bilakaera Euskadin eta Espainian familia guztiak, baztertutako familiak eta bazterkeria larrian dauden familiak kontuan hartuta (2018-2021)

Ardatz ekonomikoko adierazleak (%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Espainia									
I01. SN duela urtebete edo gehiagotik langabezian duten familiak	2,8	4,3	1,5	17,1	20,7	3,6	33,0	35,4	2,4
I02. SNk enplegu baztertua duen familiak	1,1	1,1	0,0	3,3	2,5	-0,8	3,7	2,4	-1,3
I03. SNk lan irregularra duen familiak: kontraturik gabe eta Gizarte-Segurantzako babesik gabe	1,3	1,0	-0,3	5,5	3,8	-1,6	5,3	5,1	-0,2
I04. Lanik egiten duen pertsonarik gabeko familiak, erretiraturik eta aldi baterako laguntzarik ez duenik (SEPErenak edo gutxieneko errentak)	6,1	8,1	2,0	19,7	24,3	4,6	26,4	34,1	7,7
I05. Gutxienez epe luzeko langabe bat duten familiak, titulu profesionalik ez dutenak, eta azken urtean, lanbide-prestakuntzarik jaso edo ikasketarik egin ez dutenak	5,8	7,4	1,6	27,7	30,0	2,3	43,0	42,5	-0,5
I06. Aktibo dauden pertsona guztiak langabezian dituzten familiak	5,9	10,3	4,4	32,4	44,9	12,5	49,2	61,0	11,8
I37. SN aktibo duten familiak Baina ziurgabetasun-egoera larrian (≥ 3 kontratu edo ≥ 3 enpresa edo ≥ 3 hilabete langabezian).	4,8	10,3	5,5	18,4	25,1	6,6	22,5	26,9	4,4
I07. Pobrezia larrian dauden familiak: Diru-sarrerak Batez besteko familia-errenta baliokidearen % 40tik beherakoak direnean	8,1	11,3	3,2	45,8	44,4	-1,4	66,7	61,4	-5,3
I08. Gizartearen % 95 baino gehiagorentzat oinarritzakoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak	1,7	2,7	1,0	6,7	7,8	1,1	8,8	9,6	0,8
I36. Zorrak pilatuta dituzten familiak: horniduren, etxebizitzaren, administrazioaren edo maileguen ordainketan atzerapenak dituztenak eta egunean erraz jarri ezin direnak	3,7	4,7	1,0	21,5	21,8	0,2	38,5	32,6	-5,9

Ardatz ekonomikoko adierazleak (%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Euskadi									
I01. SN duela urtebete edo gehiagotik langabezian duten familiak	1,4	5,3	3,9	12,3	38,5	26,2	39,4	71,5	32,1
I02. SNk enplegu baztertzaila duen familiak	1,6	0,6	-1,0	7,3	2,7	-4,5	8,1	3,5	-4,6
I03. SNk lan irregularra duen familiak: kontraturik gabe eta Gizarte-Segurantzako babesik gabe	0,8	1,6	0,8	3,0	7,8	4,8	4,6	10,2	5,6
I04. Lanik egiten duen pertsonarik gabeko familiak, erretiraturik eta aldi baterako laguntzarik ez duenik (SEPErenak edo gutxieneko errentak)	3,8	4,0	0,2	13,7	15,7	2,0	15,9	27,4	11,5
I05. Gutxienez epe luzeko langabe bat duten familiak, titulu profesionalik ez dutenak, eta azken urtean, lanbide-prestakuntzarik jaso edo ikasketarik egin ez dutenak	2,1	5,5	3,4	18,5	38,5	20,0	27,3	69,2	41,9
I06. Aktibo dauden pertsona guztiak langabezian dituzten familiak	4,2	8,8	4,6	33,2	58,3	25,2	57,2	84,6	27,4
I37. SN aktibo duten familiak Baina ziurgabetasun-egoera larrian (≥ 3 kontratu edo ≥ 3 enpresa edo ≥ 3 hilabete langabezian).	2,3	12,9	10,6	8,8	36,9	28,0	11,5	35,1	23,6
I07. Pobrezia larrian dauden familiak: Diru-sarrerak Batez besteko familia-errenta baliokidearen % 40tik beherakoak direnean	5,5	4,8	-0,7	42,4	26,2	-16,2	63,2	35,1	-28,1
I08. Gizartearen % 95 baino gehiagorentzat oinarrizkoa den etxeko ekipamenduren bat ez duten familiak	1,2	0,3	-0,9	6,4	2,3	-4,2	11,2	0,5	-10,7
I36. Zorraz pilatuta dituzten familiak: horniduren, etxebizitzaren, administrazioaren edo maileguen ordainketan atzerapenak dituztenak eta egunean erraz jarri ezin direnak	2,0	2,0	0,0	14,4	13,1	-1,3	22,6	21,5	-1,1

SN: familiako sostengatzaile nagusiari egiten dio erreferentzia.

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

4. atala

Hazi egin dira etxebizitza-bazterkeriaren egoerak eta etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten herritarren ehunekoa

4.1. Sarrera

COVID-19aren pandemiak indartu egin du pertsonen eta familien garapenerako etxebizitzak duen garrantzia. Konfinamendu aldiek agerian utzi dute, zalantzarik baldin bazegoen, etxebizitza duina izateko beharra, kanpoko elementu eta mehatxuengandik babestuak sentitu ahal izateko espazio seguruarekin. Etxebizitza funtsezkoa da bazterkeriaren dinamiketan gure lehengo olatuetatik, eta aspaldidanik buruhausteak ekartzen dizkio familia askori, ahaleginak ahalegin, ez baitute lortzen espazio segururik eraikitzea, eta hori, gainera, eskubide soziala da.

Laugarren atal honetan, etxebizitzaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko harremanean sakontzen duten gakoetako batzuk jorratuko ditugu. Horretarako, bitan zatitu dugu tala: lehenengoan, etxebizitzaren dimentsioan familiei gehien eragiten dieten bazterkeria-egoera nagusien irismena eta bilakaera aztertu ditugu, EINSFOESSA metodologian ikus daitekeen modura; eta, bigarren zatian, ETHOSen tipologiak (18) definitutako terminoetan, segurua edo egokia ez den etxebizitzarekin lotutako egoerak Euskadiko herritarren artean zenbateraino dauden zabaldua aztertu dugu, baita egoera horiek bazterkeria-egoeran dauden pertsonengan duten irismen zehatza ere.

(18) Azterketa horretarako, FEANTSak garatutako ETHOS tipologiako (European Typology on Homelessness and Housing Exclusion) 3. eta 4. Kategoriak erabili ditugu.

4.2. Jaitsi egin da etxebizitza arloan arazoak dituzten herritarren ehunekoa, nahiz eta igo egin den etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituztenen kopurua

Enpleguaren kasuan bezala, **Euskadiko etxebizitzaren egoera askoz ere hobea da Espainiako baino**, izan ere, han etxebizitza izateko zailtasunek areagotzen ari den eragina izan dute bazterkeria-prozesuen sorreran. **Euskadiren kasuan, gainera, etxebizitzaren arloko arazoek kaltetutako pertsonen ehunekoa apur bat murriztu da, Espainian, berriz, goraka egin du.** Etxebizitzaren arloan arazoak dituzten biztanleen murrizketa bateragarria da Euskadin etxebizitza lortzeko kostuek izan duten hazkundearekin, bai alokairuan bai erosterakoan, baita seguruak ez diren edo desegokiak diren etxebizitzaren igoerarekin ere. Hurrengo epigrafean aztertuko ditugu horiek.


Prezioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren menpe dagoen Euskal Etxebizitzaren Behatokiaren datuen arabera, **jabetzan hartzeko etxebizitza libre berriaren prezioa % 17 igo da 2015etik (259.000 eurotik 303.000 eurora igaro da), alokairuan dauden etxebizitzaren hileko batez besteko prezioa, aldiz, % 19 (hileko 871 eurotik 1.040 eurora).** Alabaina, jabetzan erabilitako etxebizitzaren prezioa % 5 jaitsi da aldi horretan, 246.000 eurotik 233.000 eurora.

Bestalde, EINSFOESSAren datuek erakutsi dute etxebizitzaren **bazterkeriak EAEko familien % 14,5i eta herritarren % 17,2ri eragin ziola 2021ean; Espainian, berriz, familien % 20,6 eta herritarren % 24 izan ziren kaltetuak.** Euskadik, dimentsio horretako bazterkeria-arazoei dagokienez, Espainia osoak baino eragin txikiagoa izateaz gain, bilakaera positiboa du. 2018 eta 2021 artean, etxebizitzaren dimentsioan izan den gizarte-bazterkeria ehuneko 1,5 puntu jaitsi da etxebizitzaren kasuan eta puntu 1 herritarren kasuan.

Hala ere, erkidego honetan argi eta garbi ikusten dena da etxebizitzaren arloan dauden gabezia-egoerek bereziki eragiten dietela bazterkeria-egoeran dauden pertsonen: horietatik % 75,5ek arazoak dituzte dimentsio horretan, eta ehunekoa % 90era heltzen da bazterkeria larrian **(19)** dauden pertsonen kasuan.

(19) EINSFOESSA metodologiak aztertzen dituen bazterkeriaren dimentsio bakoitzak kaltetutako Euskadiko eta Espainiako herritarren ehunekoak 5. taulan ikus daitezke, txosten honetako lehenengo ataleko 32. orrian.

20. GRAFIKOA Etxebizitzaren dimentsioan bazterkeria-arazoak dituzten herritarren eta familien ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018- 2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Gainera, bi kolektibo hauetan, etxebizitzaren arloan bazterkeria arazoak izan dituzten herritarren ehunekoa igo egin da 2018tik, integrazio-egoeran dauden pertsonekin gertatu denaren kontrara.

13. TAULA. Etxebizitzaren dimentsioko adierazleek kaltetze-mailan izan duten bilakaera, familia guztiak, baztertutako familiak eta bazterkeria larrian dauden familiak kontuan hartuta (2018-2021)

Etxebizitza arloa (%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
Espainia									
I14. Infraetxeak: txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa	0,3	0,1	-0,2	1,1	0,5	-0,6	2,2	0,5	-1,7
I15. Etxebizitzaren eraikuntzan gabezia larriak dituzten familiak	1,9	1,8	-0,1	5,3	6,2	0,9	7,6	7,5	-0,1
I16. Osasungarriak ez diren egoerak dituzten familiak: Hezetasunak, zikinkeria eta usainak	3,2	7,2	4,0	12,2	18,4	6,3	17,2	22,1	4,9
I17. Pilaketa larrian dauden familiak (15 m ² baino gutxiago pertsonako)	2,5	4,6	2,1	12,3	15,3	3,1	18,7	19,2	0,5

(%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea
I18. Etxebizitza prekarioa duten familiak: beste pertsona edo erakunde batek doan emandakoa, berralokatutakoa, legez kanpo okupatua edo etxegabetua izateko abisua duena	3,7	4,3	0,6	16,3	15,4	-0,9	26,3	23,1	-3,2
I19. Ingurune oso hondatua duten familiak	0,8	1,8	1,0	2,8	5,8	3,0	3,9	7,4	3,4
I20. Mugikortasun urria duten pertsonak Eta muga arkitektonikoak dituzten familiak	2,2	2,2	0,0	6,6	5,2	-1,4	8,5	5,0	-3,6
I21. Etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten familiak (diru-sarrerak - etxebizitza gastuak < pobrezia larriaren atalasea % 40)	11,1	14,2	3,1	49,4	48,0	-1,4	61,5	58,3	-3,2
Euskadi									
I14. Infraetxeak: txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa	0,0	0,3	0,3	0,0	1,1	1,1	0,0	1,7	1,7
I15. Etxebizitzaren eraikuntzan gabezia larriak dituzten familiak	1,9	1,2	-0,7	2,1	3,0	0,9	3,8	4,5	0,7
I16. Osasungarriak ez diren egoerak dituzten familiak: Hezetasunak, zikinkeria eta usainak	2,7	4,0	1,3	6,0	14,8	8,8	12,3	22,3	10,0
I17. Pilaketa larrian dauden familiak (15 m ² baino gutxiago pertsonako)	1,9	3,7	1,8	8,0	17,6	9,6	14,5	25,5	11,0
I18. Etxebizitza prekarioa duten familiak: beste pertsona edo erakunde batek doan emandakoa, berralokatutakoa, legez kanpo okupatua edo etxegabetua izateko abisua duena	2,7	2,1	-0,6	11,7	11,5	-0,2	25,3	19,3	-6,0
I19. Ingurune oso hondatua duten familiak	0,5	1,2	0,7	1,5	4,5	3,0	1,9	7,2	5,3
I20. Mugikortasun urria duten pertsonak Eta muga arkitektonikoak dituzten familiak	2,4	1,1	-1,3	7,2	3,6	-3,7	2,8	1,6	-1,2
I21. Etxebizitzaren gehiegizko gastuak dituzten familiak (diru-sarrerak - etxebizitza gastuak < pobrezia larriaren atalasea % 40)	10,0	12,4	2,4	62,6	57,7	-4,9	77,4	71,7	-5,7

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Bestalde, aurretik aipatu ditugun etxebizitza lortzeko prezioen maila dela eta, ez da harritzekoa, aurreko taulan ikusi dugun moduan, Euskadiko herritar gehienei eragiten dien arazoa etxebizitzaren gehiegizko gastua izatea **(20)**.

Familien % 12,4ri eragiten dio; aldiz, 2018an, % 10i eragiten zion, eta Espainian, % 14,2ri. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, egoera horrek kaltetutako etxebizitzaren ehunekoa % 57,7koa da eta bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzena % 71,7koa. Alde handiarekin, EAEko biztanle gehienei eragiten dien bigarren adierazlea etxebizitzaren osasungarritasunik ezarekin lotutakoa da (hezetasunak, usain txarrak, etab.). Egoera horrek etxebizitzaren % 4ri eragiten dio, Espainian, % 7,2ri. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, egoera horrek kaltetutako etxebizitzaren ehunekoa % 14,8koa da eta bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzena % 23,3koa. Gainera, EAEko etxebizitzaren % 3,7 –% 1,9 2018an– pilaketa-egoera larrian dago.

4.3. Etxebizitza ezegonkorra edo desegokia duten herritarren ehunekoa hazi egin da


Aurretik adierazi ditugun arazoez gain, EINSFOESSAK etxebizitza-bazterkeria pairatzen duten biztanleen ehunekoa aztertzeko aukera ematen du, eta, zehazki, segurua edo egokia ez den etxebizitzetan bizi direnena, **(21)**. ETHOS tipologiak zehaztutako terminoen arabera. Ondorengo grafikoaren datuek erakutsi dute, lehenik eta behin, EAEko herritarren % 4,7k ez duela etxebizitza segururik, eta

(20) Adierazle honek jasotzen ditu etxebizitzaren gastuak ordaindu ostean, pobrezia larriaren atalasearen azpitik dauden diru-sarrerak dituzten familiak

(21) Horri dagokionez, etxebizitza ez da segurua izango egoera hauetakoren bat ematen bada: (a) etxebizitza prekarioa baldin bada (beste pertsona edo erakunde batzuek doan utzitakoa, berralokatua, legez kanpo okupatua); (b) arazo ekonomikoak direla eta, familiak etxebizitzatik kaleratua izateko mehatxuren bat jaso baldin bada azken urtean, berehalakoa izan ala ez; eta (c) familiako kideren batek tratu txar fisikoak edo psikologikoak pairatu baditu azken urtean zehar. Gainera, etxebizitza ez da egokia izango egoera hauetakoren bat ematen bada: (a) Infraetxea baldin bada (txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa); (b) etxebizitzak gabezia handiak baldin baditu eraikuntzan edo hondatuta baldin badago; (c) familia pilaketa egoera larrian baldin badago (15m² baino gutxiago pertsonako); (d) etxebizitza ingurune oso hondatuan baldin badago; eta (e) etxebizitzak oinarritzko hornidurak eta ekipamenduak ez baldin baditu (iturriko ura, ur beroa, energia elektrikoa edo hondakin-uren hustuketa).

% 8,5ek ez duela etxebizitza egokirik. Integrazio-egoeran dauden herritarren kasuan, ehunekoak % 1,5 eta % 3,2 dira hurrenez hurren; bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kasuan, aldiz, kopuru horiek % 21era eta % 35,3ra igotzen dira. Ia kasu guztietan, ehuneko horiek Espainiakoak baino baxuagoak dira.


21. GRAFIKOA Segurua eta egokia ez den etxebizitza duten herritarren ehunekoa Euskadin eta Espainian, gizarteratze mailaren arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

Bilakaerari dagokionez, etxebizitza segurua edo egokia ez duten herritarren ehunekoa hazi egin da Euskadin, baita Espainian ere. Etxebizitza egokirik ez duten Euskadiko herritarren kopurua % 3,5etik % 4,7ra igo da 2018 eta 2021 artean, aldiz, segurua ez den etxebizitza batean bizi diren herritarren kopurua % 7,2tik % 8,5era igaro da 2020an. Bilakaera antzekoa izan da Espainian, nahiz eta apur bat nabarmenago izan den.

22. GRAFIKOA Segurua eta egokia ez den etxebizitza duten herritarren ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018- 2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Termino absolutuetan, aipatu beharko genuke Euskadin 39.600 familiek eta

104.000 pertsonak dutela segurua ez den etxebizitza, eta 52.600 familiek eta 187.300 pertsonak egokia ez den etxebizitza.

Lehengo kasuan, etxebizitzaren legezko eremuari (etxebizitza prekarioa izatea, kaleratua izateko mehatxu-arriskua) eta bertan bizi diren pertsonen segurtasunari (etxeko indarkeria) eragiten dioten egoerez ari gara gehienbat; aldiz, egokia ez den etxebizitza aipatzerakoan, funtsean, etxebizitzaren eremu fisikoari eragiten dioten egoerei egiten diegu erreferentzia (eraikuntzaren gabezia larriak, pilaketa larriak, ingurune hondatua egotea eta oinarritzko hornidura edo ekipamenduren bat ez izatea).

14. TAULA. Segurua eta egokia ez den etxebizitza duten herritarren kopuruaren eta ehunekoaren kalkulua Euskadin eta Espainian (2021)

		Pertsonak				Familiak			
		Espainia		Euskadi		Espainia		Euskadi	
		%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.
Etxebizitza Ez segurua	Bai	7,9	3.727.900	4,7	104.000	7,2	1.345.800	4,3	39.600
	Ez	92,1	43.616.800	95,3	2.108.600	92,8	17.409.000	95,7	871.500
	Guztira	100,0	47.344.600	100,0	2.212.600	100,0	18.754.800	100,0	911.100
Etxebizitza desegokia	Bai	10,1	4.761.100	8,5	187.300	7,2	1.355.200	5,8	52.600
	Ez	89,9	42.583.500	91,5	2.025.200	92,8	17.399.600	94,2	858.500
	Guztira	100,0	47.344.600	100,0	2.212.600	100,0	18.754.800	100,0	911.100

Iturria: EINSFOESSA 2021 Herritarren datuak 2021eko urtarrilaren 1era bitarteko EINen Errolda Jarraituen Estatistikatik ateratakoak dira eta familien datuak 2021 urterako EINen Familien Inkesta Jarraitutik ateratakoak

Deskribatu berri ditugun datuak testuinguruan jartzeko, garrantzitsua da nabarmentzea Euskadin azken urteetan etxebizitzaren merkaturatzea murriztu egin dela, botere judizialak horren inguruan egiten dituen estatistiken datuen arabera. Datuok Euskal Etxebizitzaren Behatokiak autonomia erkidegoetako etxebizitzaren merkaturatzearen inguruan egiten duen txostenean jasotzen dira.

Beraz, behar bezala merkaturatu diren etxebizitzetara dagokienez, 2020an, 669 izan ziren; hau da, 2019an baino % 35,8 gutxiago, eta gutxienez, 2013tik urtero izan ziren mila etxebizitza inguru baino nabarmen gutxiago. Alabaina, datuok erakutsi dute benetako beherakada soilik urte horretako bigarren hiruhilekoan izan zela, 21 etxebizitza bakarrik merkaturatu baitziren; izan ere, 2020ko hirugarren hiruhilekotik aurrera, ugaritu egin ziren eta 253era heldu ziren 2021eko bigarren hiruhilekoan. Merkaturatzearen arrazoari dagokionez,

gehiengoa alokairua ez ordaintzeagatik merkaturatzen direnak izaten jarraitzen dute. 2020an, etxebizitza guztien % 82,7 izan ziren; aldiz, % 11,4 hipoteka betearazteagatik.

Autonomia Erkidegoetako datuak alderatuz eta 10.000 biztanleko merkaturatzen diren etxebizitzaren ratioa kontuan hartuz, **Euskadi da etxebizitza gutxien merkaturatzen diren autonomia erkidegoa, bai pilotutako termino historikoetan, bai estatistika-datu ofizialak dauden urte bakoitzean.** Zehazki, 2020an, 10.000 biztanleko 3 merkaturatze izan ziren, Estatu mailan, aldiz, 6,2.

5. atala

Osasun arazoak, gizarte-bazterkeria eta COVID-19a

5.1. Sarrera

2020ko martxoan hasi zen krisiaren izaera sozial eta sanitarioa dela eta, txosten honetan arreta berezia jarri behar dugu osasunarekin lotutako gizarte-bazterkeriaren dimentsioetan. Izan ere, testuinguru honetan, gizarte-integrazioaren eta -bazterkeriaren adierazleak osatzeko kontuan hartzen ditugun osasun arazo batzuen prebalentzia hazi egin da, bai Espainian, bai Euskadin. Bestalde, **datu batzuek erakutsi dute lotura dagoela bazterkeria-tasen gorakadaren eta pandemiak autonomia erkidego bakoitzean izan duen eragin desberdinaren artean. Alde horretatik, esan behar dugu lotura positiboa dagoela COVID-19aren pilatutako intzidentzia-tasaren eta erkidego bakoitzeko bazterkeria-tasen gorakadaren artean (22)**. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dugu, COVID-19aren krisiaren jatorria osasun arloan baldin badago ere, osasunean izan duen eragina gehiago lotzen dela pandemiak sortu duen krisi sozialarekin, koronabirusarekin berarekin baino.

Oinarrizko diagnostiko horretatik abiatuta, atal honek, lehenik eta behin, COVID-19ak Euskadin izan duen eragina aztertu du, bai biztanleria osoan duen eraginaren ikuspegitik, bai pandemiak Euskadin bazterkeria-egoeran eta gizarte-garapenean dauden herritarren artean izan duen eragin diferentzialari dagokionez.

Gainera, osasunarekin lotutako adierazle-multzoaren bilakaera aztertu dugu, eta, bereziki, buru-osasuneko arazoekin eta osasun-arreta eta farmazia-arreta jasotzeko zailtasunekin lotura dutenak.


(22) Erkidego bakoitzean pilatutako COVID-19aren kutsatze-tasak lotura positiboa du bazterkeria-egoeren ugaritzearekin (0,564ko korrelazio-koefizientea bazterkeria-tasaren portzenta-jezko aldakuntzaren kasuan). Lotura ere positiboa da 2019 eta 2020 bitarteko heriotza-tasa gordinaren aldakuntzaren kasuan (0,426), ahulagoa den arren.

5.2. COVID-19aren eragina Euskadin: kutsatze gehiago eta hilkortasun handiagoa Espainian baino

Espainiako Zainketa Epidemiologikoaren Sareak jakinarazitako datuetatik abiatuta Karlos III.a Osasun Institutuak emandako informazioaren arabera, 2020ko urtarrilaren eta 2021eko maiatzaren artean, Euskadin **pilatutako COVID-19aren kasuen intzidentzia Espainiako baino apur bat altuagoa izan da**. Gainera, **denbora-tarte berean, heriotza-tasa apur bat altuagoa izan zen Euskadin herrialde osoan baino**, hala ere, ospitalizazioen eta ZIUetan sartu ziren pertsonen kopurua antzekoa izan zen.

Hain zuzen, ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, 100.000 biztanleko COVID-19 kasuen hileko intzidentzia Espainiako baino altuagoa izan da Euskadin aztertutako aldi ia osoan zehar (2020eko urtarrilean izan ezik), Espainia osorako tasaren gainetik.

23. GRAFIKOA COVID-19 kasuen kopuruaren bilakaera Euskadin eta Espainian 100.000 biztanleko (2020ko urtarrila - 2021eko maiatza)



Iturriak: Karlos III.a Osasun Institutua Espainiako Zainketa Epidemiologikoaren Sareari SiViESen bitartez jakinarazitako datuak; EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2020

2020ko urtarriletik 2021eko maiatzera bitarteko aldia kontuan hartuz gero, Euskadin pilatutako intzidentzia 100.000 pertsonako 9.004 kasukoa da, Espainian 100.000 biztanleko hautemandako 7.857 kasuak baino % 14 gehiago.

Ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, 2020eko maiatza bitarte 17.500 ospitaleratu eta 4.500 heriotza inguru izan ziren Euskadin; hau da, 100.000 biztanleko tasa 793,9 ospitalizazio eta 202,7 heriotzakoa izan zen. **Ospitalizazio-tasa Espainiakoaren antzekoa den arren –% 1,4 gutxiago soilik–, heriotzei dagokiena ia % 20 altuagoa da;** izan ere, Espainian 80.000 heriotza inguru izan ziren COVID-19aren eraginez, hau da, 171,4 heriotza 100.000 biztanleko.

15. TAULA. COVID-19ak eragindako heriotzak, ospitalizazioak eta ZIUetan ospitaleratuak, hilabeteka, Euskadin eta Espainian (2020ko urtarrila - 2021eko maiatza)

	Kopurua			100.000 biztanleko tasa		
	Heriotzak	Ospitale-ratzeak	ZIUetan	Heriotzak	Ospitale-ratzeak	ZIUetan
Espainia						
01/2020	0	322	9	0,00	0,68	0,02
02/2020	1	784	66	0,00	1,66	0,14
03/2020	10.388	68.837	6.547	21,94	145,40	13,83
04/2020	15.733	35.841	2.502	33,23	75,70	5,28
05/2020	3.046	4.122	284	6,43	8,71	0,60
06/2020	603	1.205	111	1,27	2,55	0,23
07/2020	188	2.543	171	0,40	5,37	0,36
08/2020	1.130	14.577	1.149	2,39	30,79	2,43
09/2020	3.217	25.938	2.146	6,79	54,79	4,53
10/2020	5.232	33.730	2.872	11,05	71,24	6,07
11/2020	9.115	35.068	3.498	19,25	74,07	7,39
12/2020	5.710	21.996	2.083	12,06	46,46	4,40
01/2021	11.587	59.388	5.697	24,47	125,44	12,03
02/2021	8.653	28.833	3.105	18,28	60,90	6,56
03/2021	2.961	15.345	1.866	6,25	32,41	3,94
04/2021	2.226	20.571	2.573	4,70	43,45	5,43
05/2021	1.362	12.206	1.549	2,88	25,78	3,27
Guztira	81.152	381.306	36.228	171,41	805,38	76,52

	Kopurua			100.000 biztanleko tasa		
	Heriotzak	Ospitale- ratzeak	ZIUetan	Heriotzak	Ospitale- ratzeak	ZIUetan
Euskadi						
01/2020	0	8	1	0,00	0,36	0,05
02/2020	0	39	2	0,00	1,76	0,09
03/2020	438	3.626	254	19,80	163,88	11,48
04/2020	893	1.528	78	40,36	69,06	3,53
05/2020	188	123	9	8,50	5,56	0,41
06/2020	40	45	3	1,81	2,03	0,14
07/2020	7	105	7	0,32	4,75	0,32
08/2020	82	853	65	3,71	38,55	2,94
09/2020	272	1.104	114	12,29	49,90	5,15
10/2020	222	1.377	143	10,03	62,24	6,46
11/2020	463	2.154	230	20,93	97,35	10,40
12/2020	443	974	103	20,02	44,02	4,66
01/2021	450	1.568	191	20,34	70,87	8,63
02/2021	394	1.331	170	17,81	60,16	7,68
03/2021	190	735	74	8,59	33,22	3,34
04/2021	234	1.314	150	10,58	59,39	6,78
05/2021	170	682	65	7,68	30,82	2,94
Guztira	4.486	17.566	1.659	202,75	793,92	74,98


Iturriak: Karlos III.a Osasun Institutua. Espainiako Zainketa Epidemiologikoaren Sareari SiViESen bitartez jakinarazitako datuak; EIN.

5.3. Pandemiak okertu egin du Euskadiko herritarren erdiaren gogo-aldarte

Ikuspegi subjektiboago batetik, pandemiak pertsonen gogo-aldartean izan duen eragina kontuan hartuz gero, eragina handiagoa izango litzateke Euskadin Espainia osoan baino (23). Horri dagokionez, **2020ko martxoko konfinamenduaren aurretik baino gogo-aldarte txarragoa duen herritarren ehunekoa handiagoa da (% 49,3) Espainian baino (% 40,1)**. Kontrara, apur bat baxuagoa da gogo-aldartean aldaketarik igarri ez dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 49,7 Euskadin, eta % 56,5 Espainian) eta baita gogo-aldarte hobea dutela diotenena ere.


(23) Galdetegian galdera hau ageri da zehatz-mehatz: «Oro har, zure familiako kideen gogo-aldarte (apatia, justifikaziorik gabeko beldurrak, aldarte depresiboa, antsietate-egoerak...) 2020ko martxoko konfinamenduaren aurrekoaren berbera, hobea edo txarragoa da

24. GRAFIKOA Euskadi eta Espainiako herritarren banaketa, COVID-19ak haien gogo-aldartean izan duen eraginaren arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

25. GRAFIKOA COVID-19aren pandemiak gogo-aldartea okertu dien Euskadi eta Espainiako herritarren ehunekoa, hainbat aldagai soziodemografikoren arabera (2021)




*Gaixotasun larri, gaixotasun kroniko, urritasun edo desgaitasunen bat du diagnostikatuta.

**Norberak hautemandako osasun erdipurdikoa, txarra edo oso txarra.

Iturria: EINSFOESSA 2021

Pandemiaren ostean gogo-aldarte okerragoa duten herritarren ehunekoan izan diren desberdintasunak aztertzerakoan, ohiko aldagai sozioekonomikoek emaitza interesgarriak utzi dituzte.

26. GRAFIKOA Gaixotasun larri, gaixotasun kroniko, urritasun edo desgaitasunen bat du diagnostikatuta duten eta osasun-arreta jasotzen duten Euskadiko eta Espainiako herritarren ehunekoa (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

Alde batetik, ehuneko hori apur bat altuagoa da bazterkeria-egoeran dauden herritarrengan integrazio egoeran daudenengan baino eta, oro har, gora egiten du adina igo ahala, nahiz eta aldeak txikiak diren. Era berean, esan dezakegu ehunekoak altuagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino.

Bestalde, gaixotasun larri, kroniko, urritasun edo desgaitasunen bat diagnostikatuta duten pertsonen kasuan, eta osasun-egoera txarra dutenen kasuan, ehunekoak askoz ere altuagoak dira, hau da, pandemiaren eraginez gogo-aldarteak okerrera egin du kolektibo horretako pertsona gehiagorengan. Ondorioz, esan dezakegu **beren gogo-aldartea gehien okertu zaien pertsonen artean, aurrez beren osasuna kaltetuta zutenak daudela.**

COVID-19k herritarren osasunean izan duen eragina aztertzeko beste ikuspuntu bat da gaixotasun larri, kroniko, urritasun edo desgaitasun bat duten eta aurrez aurre osasun arreta jasotzen zuten pertsona batzuk telefono bidezko arreta jasotzen hasi zirela, edo, are, inolako arretarik jaso ez zutela.


26. grafikoko datuek erakusten dute Euskadiko herritarren % 25 inguruk gaixotasun larri edo kroniko bat dutela diagnostikatuta. Horietatik % 5,5ek –% 7,4k Espainian– ez du osasun-arretarik jasotzen osasun-arazo hori dela eta. Jasotzen dutenen artean, % 74,3k –% 55,6k Espainian– adierazi du jasotzen zuen aurrez aurreko osasun-arreta telefono bidezko arretarengatik ordezkatu ziotela pandemian zehar.

5.4. Osasun arloan gizarte-bazterkeria arazoak dituzten herritarren ehunekoa jaitsia egin da

COVID-19az harago, **azken hiru urtetan murriztu egin da Euskadin osasunaren arloan gizarte-bazterkeria pairatzen duten etxebizitzten eta pertsonen proportzioa**. Murrizketa horrek kontrastatu egiten du adierazle horiek Espainian izan duten hazkundearekin.

Ondorengo grafikoaren datuen arabera, Euskadiko familien % 13,2k eta herritarren % 11,7k bizi du bazterkeria-egoera osasun arloan eta hainbat gabezia ditu dimentsio horren barruan. Bi kasutan, ehunekoa Espainiakoa baino askoz ere baxuagoa da, eta baita 2018koa baino. Garai hartan, familien % 14,3ri eta pertsonen % 13,6ri eragiten zion egoera horrek.

27. GRAFIKOA Osasunaren dimentsioan bazterkeria-arazoak dituzten herritarren eta familien ehunekoaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018- 2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Osasun arloko bazterkeria-arazoez hitz egiterakoan, arlo horren barruko sei adierazleekin lotutako egoerei egiten diegu erreferentzia. 16. taulan daude jasota adierazle horiek. Euskadiko familia guztiak kontuan hartuz gero, **osasunaren arloan gehien ematen diren arazoak arrazoi ekonomikoak direla eta medikamentuak eskuratzeko dituzten zailtasunak (Euskadiko familien % 7,1ek medikamentuak edo protesiak erosteari, tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dio arrazoi ekonomikoengatik (24), eta familiako heldu guztiek desgaitasun, gaixotasun edo osasuneko arazo larriak izatea dira (% 7,2).**

Arazo horien prebalentzia handiagoa da gizarte-bazterkeria-egoeran dauden familietan: talde horren barruan, % 40,7k utzi dio medikamentuak erosi edo tratamenduak edo dietak jarraitzeari arrazoi ekonomikoengatik, eta familien % 8k heldu guztiek eguneroko jarduerak egitea mugatzen dien desgaitasunak, gaixotasun kronikoak edo osasun-arazo larriak dituzte. Familien % 5,5ek gosea izan dute, egun edo iraganean.

Bilakaeraren ikuspegitik eta familia guztiak kontuan hartuz gero, elikadura-arazoak dituzten eta osasun-arretarik ez duten pertsonaren bat duten familien ehunekoa igo egin da, baita arazo ekonomikoak direla eta medikamentuak erosteari edo tratamenduak jarraitzeari utzi dioten familien ehunekoa ere. Era berean, gora egin du heldu guztiek desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriak dituzten familien kopurua, baina ez da % 1era heltzen. Azkenik, Euskadi herritarren artean arazo horiek duten hedapena Espainiako herritarrekin alderatzen badugu, ikus dezakegu 2021ean, arazo horien prebalentzia txikiagoa izan zela EAEn; heldu guztiek desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriren bat duten familien kasuan izan ezik.

(24) Egoera horrek, zalantzarik gabe, arriskuan jartzen du pairatzen duten pertsonen osasuna eta epe labur edo ertainean integratzeko prozesua oztopatzen du, izan ere, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko traba izan daiteke (lan egin, prestakuntza jaso, etab.). Beraz, osasun- eta gizarte-krisiak sortzen duen sorgin-gurpila da eta atzeraelikatu egiten da: jatorria osasunean duen krisiak gizarte-krisia sortzen du, eta krisi horrek familiarik behartsuenetan bizi diren pertsonen osasunari bereziki gogor eragiten dio, hortaz, horiek integratzeko dituzten aukerak murriztu egiten ditu.

16. TAULA. Adierazleen eragin-mailen bilakaera osasunaren dimentsioan Euskadin eta Espainian, familia guztiak, baztertutako familiak eta bazterkeria larriar dauden familiak kontuan hartuta (2018-2021)

(%)	Familiak, guztira			Bazterkeriar dauden familiak			Bazterkeria-egoera larriar dauden familiak		
	2018	2021	Aldea.	2018	2021	Aldea.	2018	2021	Aldea.
Espainia									
I22. Osasun-arretarik ez duen pertsonaren bat duten familiak	0,6	0,8	0,2	1,4	1,3	0,0	2,2	1,5	-0,7
I23. Azken 10 urtetan maiz gosea pasa duen edo egun gosea pasatzen ari den pertsonaren bat duten familiak	2,2	2,6	0,4	13,0	12,1	-0,8	23,3	19,3	-4,1
I24. Heldu guztiak eguneroko zereginak egitea eragozten dien desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriaren bat duten familiak	4,6	4,3	-0,3	6,8	4,8	-1,9	7,2	4,5	-2,7
I25. Beste pertsona baten laguntza edo zaintza behar duen menpeko pertsonaren bat duten familiak (eguneroko zereginak egiteko) eta laguntza hori jasotzen ez dutenak	1,0	1,2	0,2	2,3	2,7	0,4	2,3	3,9	1,6
I26. Gaixo larri edo kronikoren bat duten familiak eta urtebetean gaixo horrentzako arretarik jaso ez dutenak	2,1	2,2	0,1	2,7	3,2	0,5	2,0	2,5	0,5
I27. Medikamentuak edo protesiak erosteari, arazo ekonomikoengatik botikak edo protesiak erosteari, eta tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dioten familiak (% 60ko txirotasun moderatuko tartean)	7,5	13,1	5,5	38,7	48,4	9,7	58,1	66,8	8,8
Euskadi									
I22. Osasun-arretarik ez duen pertsonaren bat duten familiak	0,8	0,1	-0,7	2,9	0,5	-2,4	5,1	0,0	-5,1
I23. Azken 10 urtetan maiz gosea pasa duen edo egun gosea pasatzen ari den pertsonaren bat duten familiak	0,5	1,0	0,5	4,0	5,5	1,4	6,1	10,0	3,9
I24. Heldu guztiak eguneroko zereginak egitea eragozten dien desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriaren bat duten familiak	6,9	7,2	0,3	17,5	8,0	-9,4	8,9	5,9	-3,0

(%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea.	2018	2021	Aldea.	2018	2021	Aldea.
I25. Beste pertsona baten laguntza edo zaintza behar duen menpeko pertsonaren bat duten familiak (eguneroko zereginak egiteko) eta laguntza hori jasotzen ez dutenak	2,9	1,2	-1,7	12,6	3,0	-9,6	8,9	3,8	-5,1
I26. Gaixo larri edo kronikoren bat duten familiak eta urtebetean gaixo horrentzako arretarik jaso ez dutenak	2,5	1,2	-1,2	3,9	2,2	-1,7	0,0	0,0	0,0
I27. Arazo ekonomikoengatik botikak edo protesiak erosteari, eta tratamenduak edo dietak jarraitzeari utzi dioten familiak (% 60ko txirotasun moderatuko tartean)	6,9	7,1	0,1	46,4	40,7	-5,7	65,4	62,9	-2,6

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

5.5. Gaixotasunek edo buruko nahasmenduek bazterkeria areagotzen dute ia arlo guztietan

EINSFOESSA 2021 inkesta ez dago diseinatuta buruko nahasmenduak edo gaixotasun psikiatrikoak diagnostikatzeko, baina aukera ematen du buruko gaixotasun edo nahasmenduren bat berriki edo aspaldi diagnostiko dieten pertsonen gogo-aldartea hautemateko (25). Inkestaren datuek erakusten dute Euskadiko herritarren % 8,3ren kasua dela hori eta Espainiako herritarren % 8,1arena.


Bazterkeria-egoerak ohikoak dira buru-osasuneko gaixotasunen bat diagnostikatuta duten pertsonen artean. Euskadiren kasuan, horrelako diagnostikorik ez duten pertsonen arteko bazterkeria-tasa % 15,6koa zen 2021ean, aldiz, % 23,8koa buruko gaixotasun edo nahasmendu bat zuten pertsonen artean.

(25) Kolektibo horren barruan sartu ditugu bi galdera hautako bati baiezkoa eman dioten pertsonak: «Eskizofrenia edo bestelako nahasmendu psikotikorik (esaterako, agerraldi psikotikoak, paranoia...) hauteman dizute?» eta «Gogo-aldartearen nahasmendurik diagnostikatu dizute (esaterako, depresioa, antsietatea, nahasmendu obsesibo-konpulsiboa...)?». Bi kasuetan baiezkoa erantzun duten pertsonen erantzunak bildu ditugu, diagnostikoa azken 12 hilabete-tako edo lehenagokoa izan den kontuan hartu gabe

Era berean, erabateko integrazioaren tasak % 59,2tik % 40,8ra murrizten dira buru-osasuneko arazoren bat diagnostikatuta duten pertsonen kasuan, eta integrazio-egoeran prekariora duten pertsonen kopurua, berriz, % 25,2tik % 35,3ra igarotzen da.

Halaber, Espainia osoko datuek erakusten dute bazterkeria-egoerak zabalduago daudela buruko gaixotasun edo nahasmendu bat diagnostikatuta duten pertsonen artean. Hala ere, kasu honetan, herrialde osoan bazterkeriaren prebalentzia altua denez, buru-osasuneko arazoak dituzten eta bazterkerian dauden pertsonen kopurua (bi kategoriak barne, larria eta arina) % 34,7koa da, eta buruko gaixotasunik ez duten pertsonen artean % 22,4koa.

28. GRAFIKOA Buruko gaixotasun edo nahasmenduren bat duten Euskadi eta Espainiako herritarren banaketa, integrazio mailen arabera (2021)




Iturria: EINSFOESSA 2021

Bazterkeria-egoerak zabalduago daude buruko gaixotasun edo nahasmenduren bat duten pertsonen artean, eta, gainera, EINSFOESSA 2021eko datuek erakutsi dute Euskadiren kasuan, zenbateraino den hori bazterkeria-egoerak larriagotzen dituen faktorea. Hain zuzen, banaketa aztertzen badugu, bazterkeria kasuen barruan, bazterkeria arinaren eta larriaren artean, ikus daiteke buru-gaixotasunik ez duten pertsonen artean bazterkeria larrian daudela bazterkeria kasu guztien % 47; buru-gaixotasunik dituztenen artean % 56 dira.

Azkenik, argi ikus daiteke buru-osasuneko kalteek zenbaterainoko lotura duten bazterkeriarekin —eta ez soilik osasunaren arloan—, EINSFOESSA metodologiak aztertzen dituen arloetan bazterkeria-arazoek duten presentzia aztertuz. 29. grafikoan ikus daitekeen moduan, ia arlo guztietan —enpleguan eta parte-hartze

politikoan izan ezik—dute bazterkeria-intzidentzia altuagoa buruko gaixotasun edo nahasmendu bat diagnostikatu duten pertsonen ez dutenek baino. Bi taldeen arteko alderik handienak osasunean, kontsumoan, hezkuntzan, gizarte-gatazkan eta gizarte-isolamenduan daude.

29. GRAFIKOA Hainbat arlotan bazterkeria-arazoak dituzten Euskadi eta Espainiako herritarren ehunekoak, buruko gaixotasun edo nahasmenduen arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

6. atala

Pandemiak eta horrek eragindako krisiak familiako babes-sareak tenkatu eta higatu ditu

6.1. Sarrera

EINSFOESSAk aztertutako metodologiaren hiru ardatz nagusietako (ekonomia, politika eta gizartea) bazterkeriaren irismena jorratzen duen bigarren atalean aipatzen genuen moduan, bazterkeria-egoerak nabarmen handitu dira herrialde osoan ardatz sozialean COVID-19aren krisiaren ondorioz. Hala, 2018an biztanleriaren % 7,4ri eragitetik, 2021ean % 12,1i eragitera igaro da. Euskadin, aldiz, bilakaera ezberdina izan da eta ardatz horren gabeziaren eragina jasan duen biztanleriaren ehunekoak zertxobait gutxitu da (% 7,9tik % 7,1era). Datu orokor horietan oinarrituta, atal honetan azken hiru urteotan harreman eta sare sozialak zenbateraino indartu edo ahuldu diren eta gatazkakortasun sozialeko adierazpen batzuekin lotutako adierazle batzuek euskal gizartean zer eragin duten aztertuko dugu.

Horretarako, bi zatitan banatuta dago atala: lehenengoan, bazterkeriaren ardatz soziala osatzen duten gatazka eta isolamendu soziala dimentsioekin lotutako bazterkeria sozialeko egoeren intzidentzia eta bilakaera aztertu dugu; bigarrean, aldiz, familien artean sortzen diren eta, benetako baliabide sozialak (kapital soziala) bihurtzeaz gain, kidetza eta komunitate-nortasuneko prozesuak sor ditzaketen laguntza-sareak aztertu ditugu.


6.2. Gizarte arazoak murriztu egin dira eta isolamendu-arazoak apur bat igo

Espainia guztirako EINFOSSAren datuek erakutsi dute COVID-19aren krisia senideen, auzokoen eta komunitatekoen arteko harremanak tenkatzen eta higatzen ari dela.

Hain zuzen ere, gizarte-bazterkeriak sortzen dituen arazoek –gatazkaren eta gizarte-isolamenduaren dimentsioetatik abiatuta hauteman direnak– igoera handia izan dute Espainia osoan: 2018 eta 2021 artean, gizartean zeuden bazterkeria-arazoaren prebalentziak herritarren % 7,4ri eragitetik % 12,1i eragitera igaro zen Espainian, beraz, termino erlatiboetan, hazkunde gehien izan duen ardatza da.

Euskadiren kasuan, adierazle horien bilakaera ez da hain argia eta dimentsio honetako bazterkeria-egoeren nagusitasuna apur bat murriztu da (herritarren % 7,9tik % 7,1era igaro da). Dena den, ardatz hau osatzen duten bi dimentsioek bilakaera desberdina izan dute Euskadin; izan ere, gizarte-gatazka egoeran dauden herritarren proportzioa jaitsi egin da (% 5,8tik % 4,9ra), baina horri dagokion gizarte-isolamendua apur bat igo da (% 2,2tik % 2,3ra). Espainiaren kasuan, gizarte-gatazkaren tasak ia bikoiztu egin dira, eta isolamendu-egoerak apur bat ugartu, Euskadin bezala.

30. GRAFIKOA Harreman-ardatzaren eragina jasan duen Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoak izan duen bilakaera eta haren dimentsioak (2018-2021)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

Espainiaren eta Euskadiren kasuetan, gatazka eta isolamendu soziala dimentsioetan gertatzen diren bazterkeria-egoeren bilakaeran ezberdintasunak daude. Hala, biztanleria osoaren eta bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsonen arteko bereizketa eginda, lehenengo eta behin, honako hau nabarmen dezakegu: **2018 eta 2021 artean, gutxitu egin dira gatazka sozialeko egoerak Euskadin bazterkeria-egoeran dauden pertsonen zein biztanleria osoaren kasuetan.** Bazterkeria sozial larriko egoeran dauden pertsonen artean, adibidez, arazo horiek dituzten pertsonen proportzioa % 21,8koa izatetik, % 16,2koa izatera igaro da.

Biztanleria osoan gertatutako jaitziera txikiagoa izan da ehuneko puntutan adierazita, baina antzekoa termino erlatiboetan. **Aldiz, isolamendu soziala neurtzen duten adierazleen kasuan, igoera gertatu da. Gorakada hori bereziki esanguratsua da bazterkeria sozialeko eta bazterkeria sozial larriko egoeran dauden pertsonen kasuan.** Espainia osoari dagokionez, eragina jasandako biztanleriaren ehunekoak izandako gorakada orokorragoa da bi dimentsioetan eta, aztertutako talde guztien kasuan, eragina askoz ere handiagoa da gatazka sozialaren kasuan (Euskadin bezalaxe).

31. GRAFIKOA Harreman-ardatzaren dimentsio bakoitzaren eragina jasan duen Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoak izan duen bilakaera, gizarteratze mailaren arabera (2018-2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

17. taulako datuak eta Euskadiko familia guztiak kontuan hartuta, **isolamendu soziala dimentsioko gabedia-egoera ohikoenak harremanik gabeko eta premia-egoeratarako babesik ez duten pertsonen presentziarekin lotuta daudenak dira Euskadiko familien kasuan, ehuneko % 4,9koa da eta, Espainiaren kasuan, aldiz, % 5,4koa). Gauza bera gertatzen da**

gatazka sozialeko dimentsioaren kasuan, gabezia-egoera ohikoenak azken hamarkadan tratu txar fisikoen edo psikologikoen biktima izan den pertsonaren bat duten familiekin lotuta daudenak baitira (Euskadiko familien % 2,6 eta Espainiako familien % 3,5). Egoera horiek kaltetutako herritarren ehunekoa Euskadin ia igo ez den arren, (% 2,5etik % 2,6ra igo da) harremanik eta babes-sarerik ez duten pertsonen kasuan, igoera apur bat handiagoa izan da premia-egoeretarako, eta % 3,7tik % 4,9ra igaro da.

Bazterkeria sozialeko egoeran dauden familien kasuan, gabezia-egoera horiek jasan dituzten pertsonen ehunekoa handiagoa da. Kolektibo honengan eragin handiena duten arazoak biztanleria osoan neurri handienez eragiten duten berberak diren arren, kasu honetan beste era bateko egoera batzuk bizi dituzten familiak ere nabarmendu behar ditugu: haurdunaldi goiztiarrak (bazterkeria-egoeran dauden familien kasuan, % 7,3 dira eta, aldiz, familia guztien kasuan, % 1,1) eta adizioekin lotutako arazoak (kolektibo horren % 5,7rengan eragiten du eta, aldiz, biztanleria osoaren kasuan, % 1,4rengan).

17 TAULA. Euskadi eta Espainiako harreman-ardatzeko adierazleen eragin mailen izan duten bilakaera familia osoak, baztertutako familiak eta bazterkeria larrian dauden familiak kontuan hartuta (2018-2021)

Harreman-ardatzeko adierazleak (%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria-egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Alde
Espainia									
I28. Azken 10 urteotan norbaitek tratu txar fisikoak edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen dituen familia	2,4	3,5	1,0	7,8	9,7	1,9	9,3	10,9	1,6
I29. Kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak	0,5	1,5	1,0	1,4	2,2	0,8	1,8	2,1	0,3
I30. Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dauden familia	2,2	2,2	0,0	6,6	5,6	-0,9	9,1	6,4	-2,7
I31. Azken 10 urteotan norbait aita edo ama nerabea izan den edo izatear dagoen familia	0,6	1,6	1,0	2,9	5,4	2,5	2,9	6,2	3,3

Harreman-ardatzeko adierazleak (%)	Familiak, guztira			Bazterkerian dauden familiak			Bazterkeria- egoera larrian dauden familiak		
	2018	2021	Aldea	2018	2021	Aldea	2018	2021	Alde
I32. Azken 10 urteotan justiziarekin arazoak (aurrekari penalak) izan dituzten pertsonak dauden familiak	0,6	1,1	0,5	3,1	4,0	0,9	3,6	5,3	1,6
I33. Harremanik ez duten eta gaixotasun- edo zailtasun-egoerei aurre egiteko laguntzarik ez duten familiak	5,4	5,4	0,0	5,6	5,1	-0,5	5,1	5,2	0,2
I34. Auzokideekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiak	0,5	0,6	0,1	0,4	1,3	0,9	0,4	1,4	1,0
I35. Azken urtean erakunderen batean (ospitale eta etxebizitza psikiatrikoak, droga-mendekotasunerako zentroak, adinekoen zentroak, espetxeak...) egon den pertsonaren bat duten familiak	0,2	0,3	0,1	0,8	0,9	0,0	0,8	1,4	0,6
Euskadi									
I28. Azken 10 urteotan tratu txar fisikoak edo psikologikok pairatu dituen norbait dagoen familiak	2,5	2,6	0,1	13,6	12,3	-1,3	18,0	10,3	-7,8
I29. Kideen artean oso harreman txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiak	0,8	0,0	-0,8	2,5	0,2	-2,3	1,5	0,3	-1,2
I30. Azken 10 urteotan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo gaur egun dituzten pertsonak dauden familia	2,0	1,4	-0,6	8,9	5,7	-3,2	5,7	5,0	-0,7
I31. Azken 10 urteotan norbait aita edo ama nerabea izan den edo izatear dagoen familia	0,5	1,1	0,6	4,3	7,3	3,0	0,8	6,4	5,6
I32. Azken 10 urteotan justiziarekin arazoak (aurrekari penalak) izan dituzten pertsonak dauden familiak	0,7	0,5	-0,2	3,5	1,2	-2,2	1,9	0,0	-1,9
I33. Harremanik ez duten eta gaixotasun- edo zailtasun-egoerei aurre egiteko laguntzarik ez duten familiak	3,7	4,9	1,2	2,4	7,8	5,4	1,5	3,2	1,7
I34. Auzokideekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,3	0,0	0,7	0,7
I35. Azken urtean erakunderen batean (ospitale eta etxebizitza psikiatrikoak, droga-mendekotasunerako zentroak, adinekoen zentroak, espetxeak...) egon den pertsonaren bat duten familiak	0,4	0,2	-0,2	0,0	0,5	0,5	0,0	0,0	0,0


Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

6.3. Pandemiak etxebizitzaren arteko laguntza-sareak ahuldu ditu

Bestalde, bistakoa dirudi pandemiak eta hari lotutako zailtasunek elkarrekiko laguntza-dinamiketan eta harreman sozialetan aldaketa esanguratsuak eragin dituztela. Etxeko kideekin, familiarekin, lagunekin eta auzokideekin dituzten harremanetan izandako aldaketen inguruan galdetzen zaienean familiei (egungo egoera eta pandemia aurreko egoera kontuan hartuta), Euskadin eta herrialde osoan gradiente bat nabari da: zenbat eta txikiagoa izan talde horrekiko gertutasuna, orduan eta handiagoa da harreman pertsonalek jasan duten kaltetzea.

Hain zuzen ere, 32. grafikoan ikus dezakegun moduan, etxeen % 0,6an bakarrik ahuldu dira familiako kideen arteko harremanak. Aldiz, proportzio hori, hurrenez hurren, honako hau da familia baitako, bizilagunen arteko eta lagunaren arteko harremanei dagokienez: % 7,4, % 9,9 eta % 15,2. Aldaketa erlatibo horiek gertatu diren arren (harremanetan gertatu den kaltetze handiena lagunaren artekoa izan da), bildutako informazioak agerian utzi du Euskadiren kasuan, familien gehiengo oso handi batek (% 80 inguru) ez duela uste bere ohiko harremanetan aldaketa esanguratsuak gertatu direnik.


32. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako familien banaketa, pandemiaren aurreko eta gaur egungo (2021) harreman sozialen intentsitatearen arabera



Iturria: EINSFOESSA 2021

Bestalde, pertsonen jasotzen dituzten prestazioarekin eta laguntzarekin lotuta aldaketa esanguratsuak izan dira Espainian eta Euskadin familien banaketari erreparatzen badiogu. Kasu honetan, Espainia osorako hauteman den bilakaera joera —elkarrekiko laguntza eskaintzen duten familien kopuruak % 52,2tik % 39,5era egin du behera— nabarmen handitu da Euskadin. Hain zuzen ere, 2021ean bildutako informazioan ikus daitekeen moduan, **elkarri laguntza ematen dioten familiak 2018an Euskadiko familien % 76 izatetik, 2021ean familia guztian % 43,5 bakarrik izatera igaro dira**. Gauza bera gertatu da (Espainian baino are gehiago) laguntza jasotzen duten familiekin (% 10,9 izatetik, % 36,2 izatera igaro dira) eta laguntza ematen edo jasotzen ez dutenekin (% 9,6 izatetik % 13,8 izatera igaro dira). Oro har, horrenbestez, **laguntzen dutenen zein laguntza jasotzen dutenen, eta laguntzen ez dutenen edo laguntzarik jasotzen ez dutenen proportzioa handitu egin da. Bestalde, nabarmen gutxitu da laguntzen duten eta, aldi berean, laguntza jasotzen dutenen proportzioa.**

33. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako familien banaketa familiek jasotzen eta/edo eskaintzen duten laguntzaren arabera (2018-2021)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021

7. atala

Arrakala digitala, elementu bazterzaile berria

7.1. Sarrera

Kutsatzeko arriskua murrizteko eta COVID-19aren pandemiarekin amaitzeko hartutako neurrien oinarria urruntze soziala ea mugimenduen eta pertsonen arteko harremanen murrizketak izan dira. Etxeko konfinamenduen garaian eta bai laneko bai aisialdiko bidaiak eta bisitak egitea ezinezkoa zen garaian, eremu digitala funtsezko alaitua bilakatu da. Hala, ohikoa bihurtu zen etxetik lan egitea hori egiteko aukera ematen zuten lanpostuen kasuan edo maite ditugunekin harremana bideodei bidez izatea. Era berean, aste askoan, administrazio publiko eta erakunde pribatu ugari egin zuen bat digitalizazioarekin. Izan ere, haietatik abiatutako eta haietara bideratutako komunikazioetarako kanal ireki bakartzat bide digitala jo zuten (lehen eta bigarren hezkuntza, kudeaketak izapidetzea, lan-prestakuntza, lan-elkarrizketak eta abar).


Epigrafe honetan, gizarte digitalerako sarbidea ematen duten ekipamenduen eta gaitasunen eskuragarritasunak Euskadin zer bilakaera izan duen eta, bereziki, ekipamendu eta gaitasun horien gabezia gizarte-bazterkeriako tasa altuenekin zer neurritan lotuta dagoen aztertuko dugu.

7.2. Arrakala digitalak bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetara eragiten die gehienbat

Ordenagailua edo Internet duten, sarea maiz erabiltzen duten eta/edo erosketak Internet bidez egiten dituzten familien kopurua eta proportzioa modu sistematikoan erregistratzen denetik, kopurua etengabe hazi da.

Euskadiko biztanleria osoa hartzen badugu kontuan, ehuneko % 55,4 ingurukoa da Interneteko erosketei dagokienez –2010etik nabarmen areagotu dira– eta % 93,4koa azken hiru hilabeteetan sarea erabiltzeari dagokionez. Nabarmen igo da baita ere egunero edo ia egunero Internet erabiltzen duten EAeko biztanleen ehunekoak. Bestalde, ezin esan dezakegu ekipamendu eta jarduera horiek Euskadin eta Espainia osoan duten hedapenaren artean alde esanguratsua dagoenik; izan ere, datuak oso antzekoak dira bi lurraldeetan.

34. GRAFIKOA Ekipamenduen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren inguruko adierazleen bilakaera Euskadiko familien artean (2006-2021)



Iturria: EIN. Familien artean ekipamenduen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren inguruko inkesta

Alabaina, gizarte osoari erreferentzia egiten dioten datuek ez dute ondo islatzen arrakala digitala pairatzen duten biztanleen kasuan dagoen mundu digitaleko bazterkeria eta bazterkeriaren gizarte eremuan duen eragin zehatza. Izan ere, datuen konexio mugagabea izatea **(26)**, Internet duen gailua edukitzea, eta eremu digitalean ibiltzeko gaitasun nahikoak izatea egungo gizartean alde handia sortzen duten hiru elementu dira. Etxean horietakoren bat ez izateak arrakala digitalaren egoera jasatea dakar berekin.


Hiru elementu horiek kontuan hartuta, hurrengo grafikoan dago jasota Euskadin arrakala digitala (hau da, gizarteratze-egoeran, bazterketa arineko egoeran eta bazterkeria larriko egoeran dauden familien kasuan elementu horietakoren bat ez izatea) jasaten duten familien ehunekoak.

(26) Kable edo beren wifi bidezko Interneterako konexio mugagabea duten familiak biltzen ditu horrek.

Eskuragarri dauden datuek argi erakusten dute egoera horiek gehiago ematen direla bazterkeria-egoera larrian dauden etxebizitzetan. Hain zuzen, **arrakala digitala Euskadiko familien % 34,5era heltzen da, eta ehuneko hori % 31,9koa da gizarteratze-egoeran dauden familietan, % 44,2koa bazterkeria-egoera arinean dauden familietan eta % 57,6ra heltzen da bazterkeria-egoera larrian dauden familien kasuan.**

Dena den, jasotako informazioak ere agerian utzi du arrakala digitala ez duela modu espezifikoan eragiten gizarte digitalera sarbidea izateko beharrezkoak diren ekipamenduen eskuragarritasunak; izan ere, mugikorra, ordenagailua edo *tableta* duten eta bazterkeria-egoeran dauden familien ehuneko familia guztiak jasotzen dituen datuaren oso antzekoa da. Alde nagusiak sarerako konexio mugagabea eskuragarri izatearekin lotuta daude. Era berean, ehunekoei dagokienez ez dago alde handirik etxean oinarrizko informatika-gaitasunak dituen pertsonaren baten presentziari dagokionez; hain zuzen ere, ehuneko hori handiagoa da bazterkeria-egoera arineko familien kasuan eta baliteke horretarako arrazoia kolektibo horren batez besteko adina txikiagoa izatea.

35. GRAFIKOA Arrakala digitaleko egoeran dauden Euskadiko familien ehunekoa, familien gizarteratze mailak aintzat hartuta (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

Espainia osoko datuen alderaketa egiten badugu, nabarmendu beharrekoa da arrakala digitaleko egoera bizi duten familien ehunekoa oso antzekoa dela bi lurraldeetan (% 35,2koa Estatu osoan, eta % 34,5ekoa Euskadin). Dena den, bazterkeria-egoeran daudenen artean, arrakala digitala zertxobait handiagoa da Euskadin (% 50,7) Espainia osoan baino (% 45,8).

18. TAULA. Arrakala digitaleko egoeran dauden Euskadiko eta Espainiako familien ehunekoa, familien gizarteratze mailak aintzat hartuta (2021)

(%)	Integrazioa	Bazterkeria arina	Bazterkeria larria	Bazterkeria	Guztira
Espainia					
Mugikorra, ordenagailua edo <i>tableta</i> du	97,3	98,7	97,4	98,0	97,5
Konexio mugagabea du	81,1	74,5	64,2	69,2	78,6
Informatika-gaitasunak dituen norbait	71,9	73,0	66,3	69,6	71,4
Arrakala digitalarekin	32,4	40,1	51,2	45,8	35,2
Arrakala digitalik gabe	67,6	59,9	48,8	54,2	64,8
Euskadi					
Mugikorra, ordenagailua edo <i>tableta</i> du	97,5	99,9	99,9	99,9	97,8
Konexio mugagabea du	75,0	62,1	48,0	55,3	72,2
Informatika-gaitasunak dituen norbait	75,3	81,3	70,1	75,9	75,4
Arrakala digitalarekin	31,9	44,2	57,6	50,7	34,5
Arrakala digitalik gabe	68,1	55,8	42,4	49,3	65,5

Iturria: EINSFOESSA 2021

7.3. Bazterkerian dauden etxebizitzien ia % 20k aukerak galdu ditu arrakala digitalaren ondorioz

Egungo digitalizazio maila duen gizartean, arrakala digitala bazterketa-eragilea izan daiteke hartzeko aukerak mugatu edo murriztu ditzake nabarmen. Hurrengo taulan, alderdi ugartitan izandako aukera-galera ikus dezakegu. Besteak beste, prestakuntzarekin, lan arloarekin, administrazio publikoko laguntzekin edo harreman sozialak eta elkarrekiko laguntza mantentzearekin lotutakoak. Horiek guztiak daude arrakala digitalarekin lotuta.

Emaitzen arabera, gailuak, konexioak edo Internet erabiltzeko gaitasuna ez izateagatik gizartean parte hartzeko aukerak galdu dituztela adierazi duten eta integrazio-egoeran dauden familien ehunekoa oso txikia da (% 1 baino gutxiago Euskadin).

Alabaina, bazterkeria-egoeran dauden familien kasuan, % 18,6koa da ehunekoa. Euskadiko ehunekoa Espainia osoan erregistratutakoa (% 13,4) baino altuagoa

da. Bestelako ikuspegi batetik, kontuan izan behar da arrakala digitala dela eta gizartean parte hartzeko aukerak galdu dituztela uste dutela bazterkeria-egoeran dauden familien % 79,3k, hots, familia guztien % 14,1ek. Zehazki, arrakala digitalak kalteak eragin dizkio eguneroko aukeretan bazterkeria larrian dauden familien % 40,4ri, hots, Euskadiko familia guztien % 6,8ri. Horrek adierazten du bazterketa-egoeran dauden familien gehiegizko ordezkaritza dagoela arrakala digitala pairatzen duten familia guztien artean.

19. TAULA. Arrakala digitalaren ondorioz aukeraren bat galdu duten familien banaketa Euskadin eta Espainian (ehuneko horizontalak eta bertikalak) (2021)

	Erabateko integrazioa	Integrazio prekariora	Bazterkeria arina	Bazterkeria larria	Integrazioa	Bazterkeria	Guztira
Espainia							
% horizontalak							
Ez	43,3	37,8	9,7	9,2	81,1	18,9	100,0
Bai	13,0	24,2	19,8	43,0	37,2	62,8	100,0
Guztira	41,9	37,2	10,1	10,7	79,1	20,9	100,0
% bertikalak							
Ez	98,6	97,1	91,3	82,1	97,9	86,6	95,5
Bai	1,4	2,9	8,7	17,9	2,1	13,4	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Euskadi							
% horizontalak							
Ez	58,1	30,0	6,3	5,7	88,1	11,9	100,0
Bai	10,5	10,2	38,9	40,4	20,7	79,3	100,0
Guztira	56,5	29,3	7,3	6,8	85,8	14,2	100,0
% bertikalak							
Ez	99,4	98,9	82,4	80,3	99,2	81,4	96,7
Bai	0,6	1,1	17,6	19,7	0,8	18,6	3,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EINSFOESSA 2021

8. atala

Pobrezia eta diru-sarreraren bermea: Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eta DBEren eragina pobrezia eta bazterkeria egoeretan

8.1. Sarrera

Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE) ezartzearekin batera, COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko arlo sozioekonomikoan Espainiak hartutako beste neurri nagusietako bat Bizitzeko Gutxieneko Errenta ezartzea izan da. Gizarte Segurantzaren gizarte-prestazio ez-kontributiboa da, eskubide subjektibo gisa diseinatua, egiturazko pobrezia-egoerei erantzun komuna emateko eta Estatuko diru-sarrerak bermatzeko sistema ixteko. Hasieratik, begi onez ikusi zuten diru-laguntza hau gizarte-erakunde guztiek eta babes sozial handia izan zuen. Hain zuzen, 2020ko maiatzeko CISen barometroaren arabera, herritarren % 83 Bizitzeko Gutxieneko Errentaren alde zegoen **(27)**. Alabaina, ezarri zenetik hainbat hutsune nabarmendu zituzten: pobrezia- eta bazterkeria-egoeran zeuden pertsona askok ezin zuten laguntza hori lortu, eta arazoak zeuden behar bezala eskuratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko gainerako laguntzekin artikulatzeko.

Aldi berean, Euskadin, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak pobreziatik babesteko duen gaitasuna mantendu egin zen, eta baita handitu ere, ematen dituen laguntzei esker: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO).

(27) 2020ko maiatzeko Barometroaren arabera (3281. ikerketa), inkestatutakoen % 12,4 soilik zegoen Gobernuak behar gehiena duten pertsona eta sektoreei bizitzeko gutxieneko errenta ematearen aurka, eta % 1,7k uste zuen beste neurri batzuk hartu beharko liratekeela.

Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eskumena Eusko Jaurlaritzaren esku egon da EAEn –beste autonomia erkidegoetan ez bezala, Nafarroan izan ezik, eta eskumen guztien transferentzia egiten den bitartean–, zehazki Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren - Lanbideren esku, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) modura.

Euskadiko politika publikoek COVID-19ak eragindako pobrezia-arrisku handiagoari zer nolako erantzuna eman dioten aztertzeko helburuarekin, atal honetan azaldu ditugu, alde batetik, pobrezia-adierazleen bilakaera, gauza materialen gabezia eta azken urteotan Euskadin egon den desberdintasuna, eta, beste alde batetik, Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko sistemak egoera horiei eman dien erantzuna, baita Bizitzeko Gutxieneko Errentak Euskadin izan duen irismenaren inguruko datuak ere.

Metodologiari dagokionez, Euskadin pobrezia- eta bazterkeria-egoeren hedapenaren inguruan ditugun datuen kalitatea dela eta EAERako, oro har, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak (EOE) eginiko Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (PGEI) erabili dugu, Espainiako Estatistika Institutuak (EIN) egiten duen Bizi-Baldintzen Inkestatik (BBI) ateratako datuak beharreen. Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eta DSBEren irismenaren inguruko datuak aztertzeko, bi laguntzak kudeatzen dituzten erakundeek emandako datuak erabili ditugu. Azkenik, Euskadin Bizitzeko Gutxieneko errenta lortzeko mailen eta eta zailtasunen inguruan EINFOESSAK eginiko inkestan bildutako datuak erabili ditugu.

Hortik abiatuta, egitura hau du atalak:

- Lehenengo epigrafean, pobrezia-egoeren, material gabezien eta desberdintasunen bilakaeraren inguruko datuak laburbildu ditugu, bai Euskadin bai Espainian, eta PGEI eta BBIren datuak konbinatu ditugu horretarako. Era berean, Euskadiko familien gastuen inguruko datuak ere bildu ditugu epigrafe honetan, EINen Familiako Aurrekontuen Inkestak ematen dituen datuetatik abiatuta.
- Bigarrenik, Bizitzeko Gutxieneko Errentak Euskadin izan duen irismenaren inguruko datuak bildu ditugu, Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritzak emandako informaziotik abiatuta.

- Hirugarren epigrafeak DSBEren irismenaren inguruan dagoen informazioa jasotzen du, Enpleguaren Euskal Zerbitzuak - Lanbidek ematen dituen datuetatik abiatuta, eta baita Euskadin pobrezia murrizteko duen eraginkortasunaren inguruko datuak ere, horren inguruan PGEIk ematen duen informaziotik abiatuta.
- Azkenik, laugarren epigrafeak 2021eko EINSFOESSA Inkestatik lortutako informazioa jasotzen du, Euskadiko biztanleek bizitzeko gutxieneko errenta eskuratzeari buruz eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen prestazio hori jasotzeko Euskadin dituzten zailtasunei buruz.

8.2. Hazi egin dira pobrezia eta desberdintasuna, nahiz eta gabezia materialarekin lotutako adierazleen zatirik handiena hobetu egin den


Euskadiko pobrezia-egoeren analisiak –UE osorako erabiltzen diren adierazle konbentzionalak erabiltzen dira eta, EAEren kasurako, PGEItik eratorzen diren datuak (28)– erakusten du, alde batetik, pobrezia eta pobrezia izateko arriskuaren tasak Espainiakoak baino baxuagoak direla. Hain zuzen, pobrezia izateko arriskuaren tasa % 17,8koa da, Espainian, aldiz, % 21ekoa; eta pobrezia larriaren tasa % 6,1ekoa, Espainian, berriz, % 9,5ekoa. **Pobrezia mailak, beraz, askoz ere baxuagoak dira EAEn Espainian baino, baita erkidegoetako pobrezia-atalaseak erabiltzen direnean ere.**

Egoera hobea izan arren, ez du estaltzen azken urteetan izan den bilakaera negatiboa: pobrezia larriaren tasak nabarmen igo dira, 2018an % 5,1ekoa izatetik %6,1era igo zen 2020an, eta 2008tik etengabe igo da. Hain zuzen, ondorengo grafikoan ikus daitekeen modura, pobrezia larriaren tasa nabarmen igo zen 2008 eta 2014 artean, finantza-krisiaren garaian, gorantz jarraitu zuen ondoren etorri zen ekonomia susperraldiaren garaian –nahiz eta oso gutxi– eta

(28) Inkesta honetako datuak ez datoz bat Bizi-Baldintzen Inkestak (BBI) EAerako ematen dituen datuekin; izan ere, lagin gehiago erabiltzeaz gain, EAeri dagokion batezbesteko errenta erabili du pobrezia-atalasea kalkulatzeko, eta ez Espainiakoak. Euskadiko batez besteko diru-sarrera Espainiakoak baino altuagoa denez, pobrezia-atalaseak nabarmen egiten du gora, eta baita atalase horren azpitik dauden diru-sarrerak dituzten herritarren kopuruak ere. Datuak guztiak aztertzerakoan, kontuan izan beharra dago Espainiari dagozkion datuek inkestararen aurreko urteko diru-sarreraren datuei egiten dietela erreferentzia (hau da, 2019koei), aldiz, EAEkoek inkestararen unekoei egiten diete erreferentzia, 2020koei.

berriro igo da 2018 eta 2020 artean. Pobrezia izateko arriskuaren tasa, aldiz, igotzen joan da baita ere, baijan azkenaldian egonkortu egin da.

36. GRAFIKOA Euskadiko eta Espainiako herritarren pobrezia-arriskuaren tasaren eta pobrezia-arrisku larriaren bilakaera (2008-2020)



Iturria: EIN, Bizi-Baldintzen Inkesta (BBI) eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sai-leko Estatistika Organo Espezifikoa (EOE) Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (PGEI)

Era berean, garrantzitsua da adieraztea **PGEIk(29) jasotzen dituen estatistiketan erabiltzen dituen pobrezia-adierazle espezifikoak kontuan hartuz gero, esan daiteke mantenu-pobreziaren tasak egonkortu egin direla eta pilaketa-pobreziaren adierazleak murriztu egin direla, hortaz, benetako pobreziaren tasak murriztu egin dira (2018an EAE osoan % 6,1 izatetik % 5,6 izatera igaro da 2020an).**

Zehatzago, pilaketa-pobreziaren adierazleak –2000tik beherantz egin du etengabe– erakusten du **biztanleriaren epe ertain eta luzeko bizi-baldintzek**

(29) Inkesta honek, oro har, pobreziaren oinarritzko hiru dimentsio jasotzen ditu: mantenuarena, pilaketarena eta benetakoa. Mantenu-pobrezia da oinarritzko beharrak erregulariki asetzeko diru-sarrera ekonomiko nahikorik ez izatea, batez ere, elikadurarekin, etxebizitzarekin, jantziekin edo zapatekin zerikusia duten beharren kasuan. Pilaketa-pobrezia epe labur eta luzean gutxieneko bizi maila egokia mantentzeko beharrezkoak diren kontsumo iraunkorreko ondatsun eta zerbitzuak lortzeko familiek duten ezintasunarekin lotzen da. Benetako pobreziak honako egoera hauek biltzen ditu: pobreziaren dimentsio batean edo bestean (mantenua edo pilaketa) agertzen diren oinarritzko premiak behar bezala ez betetzeko arrisku-egoerak ez badaude behar bezala konpentsatuta biztanleriaren eguneroko bizitzan, pobreziaren bizi-penetik kanpoko gutxieneko ongizate-maila bat lortzeko moduan.

**eta eskura dituen ondareari lotutako adierazleek 2008ko finantza-
ezegonkortasunaren ondorengo krisi-aldiak iraun zuen ildo positiboari
eusten diotela.** Adierazle horien hobekuntza EAEko familiek aurrezteko
duten gaitasunarekin, elikagaiak lortzeko arazoek murrizketarekin, horniduren
etenduren intzidentziarekin edo jantzi eta zapatak lortzeko gaitasunarekin
lotutako beste adierazleen hobekuntzarekin dago lotuta. Alde horretatik,
nabarmenezkoa da astebeteko oporrak izateko edo hamar urte baino gazteagoa
den autoa izateko gaitasunik ez duten familien kopuruak izan duen beherakada,
edo EAEko familia ia guztiek duten instalazioetarako eta ekipamenduetarako
sarbidea. Joera positibo orokor hori bateragarria da Euskadiko herritarren
zati bati eragiten dioten prozesu kaltegarri jakin batzuekin, PGEIren emaitzen
txostenaren arabera. 2020ko daturik nabarmenenetako bat **aurrezkiak
izan gabe haien diru-sarrerren ginetik gastatzen ari diren pertsonen
ehunekoaren igoera da.** Horrek zorpetzeko arrisku larriaren eragina areagotu
zuen 2020an, eta 1996az geroztik izandako mailarik altuenera heldu zen, nahiz
eta maila baxuetan dagoen oraindik ere.

Aipatu berri dugun **pobrezia larriaren egoeren bilakaera lotuta dago
desberdintasun tasen hazkunde handiarekin,** erabiltzen den adierazlea
edozein dela ere. Hurrengo taulak batez besteko errenta baliokidearen
bilakaera, S80/S20 adierazlea eta Gini koefizientea jasotzen ditu.
Horretarako, PGEI erabili dugu Euskadiko datuetarako eta BBI Estatu
mailako datuetarako.

Taulako datuek erakutsi dute S80/S20 ratioa –diru-sarrera handienak
dituzten biztanleen % 20ren eta diru-sarrera txikienak dituztenen % 20ren
diru-sarrerren arteko ratioa jasotzen du– 3,6 puntukoa izatetik 2018an, 4,4
puntukoa izatera igaro da 2020an, eta, aldiz, Gini adierazlea 25,2tik 28,2ra
igaro da. **Euskadiko gizartearen desberdintasun mailek Espainiakoak eta
Europako herrialde askotakoak baino baxuagoak izaten jarraitzen duten
arren, ezin da ukatu azken urteetan izan duen goranzko joera.** Izatez, taulan
jasotako bi adierazleek hobera egin dute 2014-2020 aldian Espainia osoan,
eta, aldiz, okerrera Euskadin.

**Euskadiko desberdintasunaren eta pobrezia-aren adierazleen igoera
nabarmenaren arrazoia, zalantzarik gabe, errenta baxuena duten taldeen
diru-sarrerren igoera txikia da.** PGEIko datuen arabera, 2008 eta 2020 artean
hileko per capita diru-sarrera garbi finkoak % 11,2 igo dira gizarte osoarentzat,
baina herritarrik txiroenen % 10arentzat, % 9,2 murriztu dira diru-sarrerak.

20. TAULA. Batez besteko errenta baliokidearen (euroak/urtea), Gini koefizientearen eta S80/S20 harremanaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2008-2020)

	Batez besteko errenta baliokidea (euroak/urtea)		S80/S20 harremana		Gini koefizientea	
	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi
2008	13.966	15.710	5,6	3,6	32,4	25,2
2012	13.868	16.573	6,5	3,7	34,2	25,3
2014	13.269	16.238	6,8	4,2	34,7	27,1
2016	13.681	17.160	6,6	3,9	34,5	25,8
2018	14.785	17.913	6,0	4,1	33,2	26,7
2020	16.043	20.400	5,8	4,4	32,1	28,2
2014-20 (%)	20,9	25,6	-14,7	4,8	-7,5	4,1

Iturria: Bizi-Baldintzen Inkesta (BBI) eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa (EOE) Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (PGEI)

Beste modu batera esanda, Euskadin diru-sarrerera gehien duten herritarren % 70ren diru-sarrerak % 13 handitu dira aldi horretan eta % 20 diru gehien irabazi duten % 10rentzat; aldiz, errenta baxuenak dituzten % 20rentzat % 2,6 murriztu dira diru-sarrerak. **Beraz, ez da aberatsenen eta txiroenen arteko arrakala handitu, biztanleriaren gehiengoaren –oro har, integrazio-egoera betean dauden herritarrak edo, PGEIren terminologia erabiliz, ongizate betean daudenak– eta pobrezia- edo bazterkeria-egoeran dauden biztanleen arteko arrakala da handitu dena.** Biztanle gehienen diru-sarrereren hazkunde horrek, pobrezia-atalaseen igoerarekin batera (30), eta egoera ahulenean dauden taldeen osagaien murrizketarekin batera, azaltzen du, hazkunde ekonomikoaren aldi batean ere, pobrezia- eta desberdintasun-tasak nabarmen hazi izana Euskadin (31).

(30) PGEIren datuen arabera, pertsona bakar batentzako pobrezia larriaren atalasea 597tik 680 eurora igaro da Euskadin 2018 eta 2020 artean.

(31) (31) PGEIren emaitzen txostenaren arabera, talde behartsuenen egoera ekonomikoaren okertze erlatibo horrek, baita diru-sarrereren hazkunde garrantzitsuen testuinguruan ere, ondorioak ditu pobreziaren pertzepzio subjektiboari dagokionez, eta gutxienez pobre samarrrak diren familietan bizi direnen proportzioak neurritzko igoera izan du; dinamika hori, era berean, etxeko unitate oinarritzko gastuak murriztu behar izan dituzten familien proportzioaren igoeran ere ikus daiteke.

Herritarren diru-laguntzen eta pobrezia-tasen bilakaerez gain, azken urteotan komeni da familien gastuen mailak nolako bilakaera izan duen ere aztertzea, batez ere 2020an zehar. 21. taulak 2019 eta 2020ko familien batez besteko gastua jasotzen du, baita hainbat profiletarako portzentajezko aldakuntza ere, bai Espainiarako bai Euskadirako. Inkesta honen datuen arabera, familia bakoitzaren kontsumo unitateko batez besteko gastua % 8,4 jaitsi zen 2019 eta 2020 artean Euskadin, eta % 10,7 Espainia osoan. Familiako Aurrekontuen Inkestako datuen arabera, gastu-murrizketak handiagoak izan ziren diru-sarrera handienak zituzten familien kasuan, eta litekeena da aisialdiko jardueretan egindako gastua murrizteko gaitasun ere handiagoa izatea, % 12,7 murriztu baitziren. Espainian ere, errenta altuagoa zuten familiek murriztu zituzten gehien haien gastuak 2019 eta 2020 artean.

21 TAULA. Batezbesteko gastua Euskadin eta Espainian, kontsumo-unitateko eta familia-motarekiko (2019-2020)

	Espainia			Euskadi			
	2019	2020	Aldea	2019	2020	Aldea	
Familiako diru sarrerren maila	999 arte	11.643	10.819	-7,1%	14.451	13.257	-8,3%
	1.000tik 1.999era	15.264	14.294	-6,4%	18.386	16.611	-9,7%
	2.000tik 2.999era	18.596	16.355	-12,0%	20.850	19.896	-4,6%
	3.000 edo gehiago	24.943	20.631	-17,3%	25.109	21.908	-12,7%
Familiako diru-iturri nagusia	Bere kabuz egiten du lan eta kapital errentak	19.665	16.218	-17,5%	23.126	21.412	-7,4%
	Besteentzako egiten du lan	18.525	16.516	-10,8%	21.031	19.229	-8,6%
	Pentsioak, diru-laguntzak eta beste laguntza batzuk	16.719	15.439	-7,7%	20.852	19.110	-8,4%
SNren jarduera	Pertsona aktiboak	18.159	15.965	-12,1%	20.789	19.099	-8,1%
	Pertsona ez-aktiboak	17.658	16.282	-7,8%	21.879	19.859	-9,2%
Guztira		18.047	16.113	-10,7%	21.165	19.380	-8,4%

SN: familiako sostengatzaile nagusia.

Iturria: EIN. Familiako Aurrekontuen Inkesta

8.3. Sortu eta urtebetera, Euskadiko biztanleriaren % 1,2k jasotzen du bizitzeko gutxieneko errenta

2020ko ekainean Bizitzeko Gutxieneko Errenta martxan jarri zutenetik, tramitatu dituzten diru-laguntzen bilakaerak erakutsi du oso eraginkortasun erlatiboa izan duela Espainian, erreferentzia gisa hasierako aurreikuspenetan hartzaile posibletzat hartu ziren pertsonak izanda. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren aurkezpen ofizialean, kalkulatu zuten Espainia osoko 850.000 familiatan, 2,3 hartzaile posible egon litezkeela laguntza lortzeko aurrez ezarritako baldintzak betetzen zituztenak. Orduetik ia urtebete igaro da eta kopuru hori urrun dago oraindik.

Estatu mailan, azken datu ofizialen arabera, **(32)** 2021eko irailera arte, baliozko 1.322.904 milioi eskaera jaso dituzte (eskaeren % 91) eta horietatik 1.244.029 bideratu dituzte (% 94). Bideratutako espediente guztietatik, soilik eskaeren % 27,1 onartu dituzte (336.933); hau da, hamar eskaeratik zazpi ukatu dituzte (888.458). Gainerako % 1,5a zuzentzeko prozesuan dago, informazioaren bat osatzeko zain (18.638).

Atal honen hasieran aipatu dugun moduan, Bizitzeko Gutxieneko Errenta Enpleguaren Euskal Zerbitzuak - Lanbidek kudeatu du Euskadin, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren araudiak jasotzen dituen aurreikuspenen barruan. Erakunde hori da DSBEaren kudeaketaz arduratzen dena ere. **Gizarte-Segurantza eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak ematen dituen datuen arabera, 2021eko irailera arte bizitzeko gutxieneko errenta jasotzeko 47.982 eskaera jaso zituzten Euskadin, eta horietatik 24.606 tramitatu zituzten.**

Horietatik 16.817 onartu zituzten guztira, hauda, tramitatu zituzten eskaeren % 68 eta jaso zituztenen herena inguru. Euskadin erregistratutako ehunekoek kontrastatu egiten dute Espainiakoekin. Bertan, 336.933 eskaera soilik onartu dituzte, tramitatutako % 27,1 eta eskaeren % 22. Pentsatzekoa da Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako eskaeren ehunekoaren arteko aldea honako hau dela: laguntza horien zati bat DSBE jasotzen duten familia-unitateei dagokie, eta, bizitzeko gutxieneko errenta eskuratzeko baldintzak betetzen dituztenez, prestazio berrian ofizioz sartu dituzte kudeatzaileek. Era berean, Euskadin deigarria da baliozkoak ez diren eskaeren portzentaje altua

(32) 2021eko iraileko nomina, Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritza.

(ia guztien heren bat) eta tramitatu dituzten baliozkoen portzentaje txikia: % 71 Euskadin, eta % 94 Espainian.

22. TAULA. Gizarte-Segurantzak tramitatutako Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eskaera-espeditenteen kopurua eta egoera Euskadin eta Espainian (2021eko datuak)

	Espainia		Euskadi	
	Kopurua	% tramitatuak	Kopurua	% tramitatuak
Jasotako eskaera guztiak	1.453.652	–	47.982	–
Baliozkoak ez diren eskaerak	130.748	–	13.410	–
Baliozkoak diren eskaerak	1.322.904	–	34.572	–
– Tramitatuak	1.244.029	100,0%	24.606	100,0%
– Onartuak	336.933	27,1%	16.817	68,3%
– Ukatuak	888.458	71,4%	7.690	31,3%
– Zuzenketa	18.638	1,5%	99	0,4%


Iturria: Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritza. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa

Orotara, onartutako bizitzeko gutxieneko errentaren 16.817 eskaerek 27.675 onuradun dituzte, hau da, 1,6 onuradun titular bakoitzeko. Biztanleriaren portzentajeei dagokienez, Euskadiko biztanle guztien % 1,2 dira, eta Espainiako biztanleen % 1,6. Ikuspegi konparatu batetik, Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak pobrezia larrian dauden pertsonen guttizkoaren gainean eskaintzen duen biztanle onuradunen kopurua kontuan hartuta, BBIren eta PGEIren arabera, emaitza Euskal Autonomia Erkidegoko bizitzeko gutxieneko errentaren estaldura Espainia osorako ikusten dena baino zertxobait handiagoa da. 2021eko irailean, **Euskadin pobrezia egoera larrian zeuden herritarren % 20,5ek jasotzen zuen bizitzeko gutxieneko errenta, Espainian, aldiz, % 18,5ek.**

Ondorengo grafikoak Euskadin Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzen duten herritarren ezaugarrien inguruko azkeneko datuak erakusten ditu, 2021eko maiatzekoak (33). Titularren % 57 eta onuradunen % 54 emakumezkoak dira.

(33) Txostena egin dugun unean, autonomia erkidegoetako Bizitzeko Gutxieneko Errentaren onuradunen ezaugarrien inguruko daturik eguneratuenak 2021eko maiatzeko nominakoak ziren.

37. GRAFIKOA **Pobrezia larriaren dauden pertsonen portzentajea eta pobrezia larriaren dauden pertsonen artean Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzen duten pertsonen ehunekoa Euskadin eta Espainian**




Bizi-Baldintzen Inkesta (BBI) 2019; Estatistika Organo Espezifikoa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Saila. 2020ko Pobrezia-aren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (PGEI); 2019ko urtarrilaren 1eko Behin-behineko Errolda Jarraitu

Gainera, onuradunen % 23 –% 40 Espainia osoan– adin txikikoak dira. Era berean, nabarmentzekoa da Euskadin titular helduen kopuru altua; izan ere, titular guztien ia % 55 45 urtetik gorako pertsonak dira, Espainian, aldiz, % 45. Euskadiren kasuan adierazgarria da adin txikikoak dituzten familien ehuneko baxua –laguntza jasotzen duten familia guztien % 28, aldiz, Espainia, % 62–, pertsona bakarreko familien kopuru altuagoa –% 57,5, % 26 Espainian– eta lau kide edo gehiago dituzten familien ehuneko baxua –onuradun familien % 5, Espainian, berriz, % 26–.

Bestalde, aipatu behar dugu, Ministerioak emandako datuen arabera, **Euskadin familia bakoitzari ematen zaion batez besteko hileko zenbatekoa 514,8 eurokoa dela, Espainian hileko ematen den batezbesteko zenbatekoa baino apur bat gehiago (448,7 euro). Zenbateko horrek pobrezia larriaren atalasearen % 75 adierazten du pertsona bakar batentzat eta pobrezia larriaren atalasearen % 50 bi pertsonentzat, Euskadin.** Espainiako Estatuaren kasuan, portzentajeak apur bat altuagoak dira, % 83 eta % 55 hurrenez hurren.

38. GRAFIKOA Bizitzeko Gutxieneko Errentaren familia onuradunen ehunekoa Euskadin eta Espainian, familia motaren arabera (2021eko maiatzeko datuak)



Iturriak: geuk egin 2021eko maiatzeko nominatik abiatuta, Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritza

8.4. DBEk pobrezia eta desberdintasunak murrizten ditu Euskadin eta pobrezia-egoeran dauden herritarren diru-sarreraren % 40 baino gehiago da

Bizitzeko gutxieneko errentak Euskadin izan duen garapenez gain, ez dago zalantzarik pobrezia-aren aurka autonomia erkidego honetan dagoen laguntzarik handiena Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) dela. 2020ko abenduan, 55.000 etxebizitza inguruk jaso zuten laguntza hori eta 100.000 onuradun inguru

izan ziren. **DSBEaren onuradun izan diren pertsonen tasa 44,5ekoa zen mila biztanleko 2020ko abenduan, edo bestela esanda, herritarren % 4,4.** 2014. urtearen amaieran erregistratutako % 5,5eko estaldura-tasaren azpitik dagoen arren, ikusi dugu 2019 amaieraren eta 2020 amaieraren artean nahiko hazkunde garrantzitsua izan duela diru-laguntzaren estaldurak; 12 hilabete horietan 52.455 titular izatetik –EAEko biztanleen % 2,3– 54.747 izatera igaro zen, % 2,4.

23. TAULA. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularren eta onuradunen kopuruaren bilakaera (Euskadi 2012-2020; urte bakoitzeko abenduko datuak)

	Titularrak		Onuradunak	
	Kopurua	1.000 biztanleko tasa biztanleak	Kopurua	1.000 biztanleko tasa biztanleak
2012	57.979	26,4	107.779	49,1
2013	62.817	28,7	113.777	51,9
2014	65.687	30,0	118.874	54,3
2015	64.726	29,6	116.822	53,4
2016	63.797	29,1	115.031	52,5
2017	60.405	27,5	108.524	49,5
2018	55.380	25,2	98.929	45,0
2019	52.455	23,8	93.350	42,3
2020	54.747	24,7	98.901	44,5

Iturria: Enpleguaren Euskal Zerbitzua - Lanbide

Aipatu behar dugu, **Bizitzeko Eutxieneko errentak erregistratzen duen biztanleria pobrearen estaldura mugatua dela, baina, DSBEakaldiz, Euskadin pobrezia larriaren atalasearen azpitik bizi diren herritarren portzentaje altuagoa hartzen duela.** Zehazki, 2020 amaieran DSBEa jaso zuten 98.901 herritarren % 73 pobrezia egoera larrian zeuden.

Alde horretatik, **eskuragarri dauden datuek erakutsi dute DSBEak eragin nabarmena duela pobrezia-larriaren prebentzioan Euskadin.** Alde batetik, inkesta horren datuen arabera, EAEko etxebizitza pobreek diru-sarrerak bermatzeko errentatik jasotzen duten zenbatekoa haien diru-sarrera guztien % 42 da eta haien diru-iturri nagusia da. Gainerako diru-sarrerak, funtsean, enplegutik (% 24,4), Segurtasun-Sozialeko pentsioetatik (% 8,7) eta langabeziako diru-laguntzetatik (% 16,5) lortzen dituzte. Horren haritik, agerikoa da Euskadiko

familia pobreen diru-sarreretan Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko sistematik eta estatuko babes-sistemetatik eratorritako diru-sarrerak duten garrantzia desberdina. Ikusteke dago Bizitzeko Gutxieneko Errenta finkatzeak nolako eragina izango duen.

DSBEak dakarren diru-sarrerren birbanaketaren kopuru handiak –2020an, urteko 432 milioi euro inguru, hau da, EAEko etxebizitzaren diru-sarrerren % 1,3– eragin garrantzitsua du pobreziaren eta desberdintasunaren prebentzioan Euskadin. Alde horretatik, lehenik eta behin gogorarazi behar dugu, PGEIren arabera, **errenta baxuenak dituzten EAEko herritarren % 10aren diru-sarrerren murrizketa % 21ekoa izango litzatekeela 2008tik 2020ra, DSBEtik iristen zaizkien diru-sarrerarik izango ez balute. DSBEaren pertzepzioak diru-sarren murrizketa hori arintzen du eta % 9an geratzen da.** Sistemak ere ekarpen positiboa egiten dio errentaren bigarren dezilari. Talde horren batez besteko diru-sarrerak % 2,0 igo ziren 2008 eta 2020 artean, DSBE/EPO/GLL sistemaren ekarpenei esker. Laguntza hori izan ezean, talde horren diru-sarrerak % 3,3 egingo lukete behera.

Pobreziaren murrizketari dagokionez, **PGEIren datuek adierazi dute laguntzaren hartzaile posibletzat zituzten herritarren % 70ek jaso duela DSBEa (34).** Herritar horien % 47 inguruk pobreziatik irtetea lortzen du diru-laguntzari esker, % 52k, ordea ez du egiten, baina diru-sarrerak nabarmen handitzea lortzen du, baita pobreziaren atalasea % 75etik % 17ra murriztea ere. Hala eta guztiz ere, eskuragarri dauden PGEIren datuek agerian uzten dute soilik benetako pobrezia egoeran dauden herritarren erdiak inguruk lortzen duela egoera horri aurre egitea DSBEaren diru-laguntzei esker.

Bizitzeko Gutxieneko errentaren eta DSBEaren arteko interrelazioa zaila da ebaluatzen oraindik, izan ere, bi laguntzen hartzaileen kolektiboak ez dira kasu guztietan berberak: igar dezakegun arren DSBEa jasotzen duten pertsonen zati handi batek Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzeko baldintzak ere betetzen dituela, eta, beraz, bi laguntzak jasotzen dituela (35), egun DSBEA jasotzen

(34) PGEIren arabera, beste % 30ek –55.000 pertsona inguru, herritar guztien % 2,5– ez du laguntza eskatzen, baldintzak betetzen ez dituelako, ezagutzen ez duelako edo bestelako arrazoiengatik.

(35) Garrantzitsua da gogoraraztea DSBEa eta Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzeko baldintzak betetzen badira, Gutxieneko Errentak bere araudian familia bakoitzarentzat ezartzen dituen atalaserako zenbatekoak osatzen dituela DSBEak, gehienetan baxuagoak.

duten pertsonen ehuneko handi batek –esaterako, 65 urtetik gorako pertsonak edo bizileku-baimenik ez dutenek– ezin du Bizitzeko gutxieneko Errentarik jaso. Gainera, pentsatzekoa da Bizitzeko Gutxieneko errentaren kudeaketa Euskadiko administrazioak hartu izanak bi laguntzen arteko koordinazioa erraztuko duela (36).

Nolanahi ere, orain arte autonomia erkidegoetan egin diren Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eta autonomietako gutxieneko errenten arteko interrelazioaren inguruko azterketek erakutsi dute gutxieneko errenten sistema autonomikoak oso garatuta dituzten erkidegoen artean dagoela Euskadi, eta, onuradunen ikuspegitik, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren oso gaineratik dagoela. Kasu horietan, «badirudi Bizitzeko Gutxieneko Errenta mantso samar garatu dela, daturik ez dugun arrazioak direla eta. Pentsa daiteke arintasun-arazoak egon daitezkeela gutxieneko errenta jasotzen dutenek gutxieneko bizitzeko errenta eskuratzeko orduan, baina, era berean, litekeena da dagoeneko laguntza hori baino zenbateko handiagoa duen prestazioa jasotzea eta horrek hainbat pertsona atzera bota izana zenbateko bera jasotzeko ahaleginak bikoiztea dakarren izapide bat egiteko» (37).

8.5. Pobrezia eta bazterkeria-egoeran dauden herritarrek Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzeko dituzten arazoak

Eskubide subjektibo honen, hau da, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eraginkortasuna etengabe berrikusten dabilta martxan jarri zenez geroztik.

Horrela, pobrezia larriari dauden herritarren baldintza materialak hobetzeko gaitasunean sakonduz, 2021eko EINFOESSAren emaitza batzuk laburbilduko ditugu jarraian, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren ezarpen eta estaldura mailaren inguruan, gizarteratzeko gutxieneko errentekin eta baliokide autonomikoekin batera; baita zaugarritasun ekonomikoan dauden pertsonen gutxieneko errenta


(36) Martxan jarri den lehenengo urtean, koordinazio arazoak izan dira Euskadin. Kasu batzuetan, DSBEa jasotzen ari ziren pertsonen emaitza eman diete laguntza, eta bi laguntzak jaso dituzte. Kasu horietan, Lanbidek behar bezala eman ez dien DSBEaren zenbatekoa berreskuratu du pixkanaka, 60 hilabeteko epean eta Bizitzeko Gutxieneko Errenta ez-ohiko diru-sarreratzat hartuz.

(37) Aguilar, M. eta Arriba, A. (2021): *Bizitzeko Gutxieneko Errenta eta gutxieneko errenta*, urtebetera. Llei d'Engel.

bermatzeko beste laguntza ekonomiko batzuen inguruan ere (larrialdietarako laguntzak, langabeziako laguntzak, pentsio ez-kontributiboak).

Lehenengo datu interesgarria herritarrek estatuko laguntza berriaren inguruan duten ezagutza faltarekin lotuta dago, baita pobrezia larrian dauden pertsonen kasuan ere. Onartu eta urtebete baino apur bat gehiagora, familien ehuneko altu batek, pobrezia larrian daudenek batez ere, adierazi dute ez dutela informazio nahikorik Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eskaera edo tramitazioa egiteko. Horrek azalduko luke, hein handi batean, neurriak zergatik ez duen izan esperotako estaldura hartzailatzat zuten kolektiboaren artean, izan ere, lehen oztopoa tramiteak hasi aurretik sortzen da. Euskadiren kasuan, ia hamar familiatik zazpi eta pobrezia larrian dauden hamar familiatik lauk baino gehiagok adierazi du ez duela informaziorik laguntza horren inguruan (38). Euskadiko familia pobreen artean, % 20,6k esan du Bizitzeko Gutxieneko Errenta ezagutzen duela, baina ez duela informazio nahikorik eskaera egiteko;

39. GRAFIKOA Euskadi eta Espainiako familia guztien eta pobrezia larrian (2020ko BBI atalasea) dauden familien banaketa, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren inguruko informazioaren arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

(38) Jarraian dagoen BGEren inguruko azterketa zuhurtiaz hartu behar da kontuan; izan ere, laginen oinarria murrizta da.

% 26,3k dio dagoeneko eskaera egin duela eta % 6,5ek laguntza ezagutzen duela, baina beharrik ez duela.

Ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, familia pobreen % 3,8 –eta Euskadin BGE eskatu duten familien % 15 inguru– ahalegindu da laguntza telematikoki eskatzen, baina oraindik ezin izan du egin.

24. TAULA. Euskadi eta Espainiako familia guztien eta pobrezia larrian (2020ko BBI atalasea) dauden familien banaketa, Bizitzeko Gutxieneko Errentaren eskaeraren egungo egoeraren arabera (2021)


(%)	Espainia		Euskadi	
	Guztira	Pobrezia larrian dauden familiak	Guztira	Pobrezia larrian dauden familiak
Ez dut eskatu	90,9	67,8	94,6	67,4
Aurrez aurre saiatu naiz, baina oraindik ezin izan dut tramitatu (ez dut hitzordurik edo hitzordua datozen egunetan/asteetan da)	0,9	2,9	0,2	1,1
Telematikoki saiatu naiz, baina oraindik ez dut lortu tramitea egitea	0,8	3,3	0,3	3,8
Bai, aurrez aurre eskatu dut	2,7	10,4	2,1	15,7
Bai, telematikoki eskatu dut	4,7	15,6	2,8	12,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EINSFOESSA 2021

Bestalde, EINSFOESSAren datuek erakusten dute BGEren eskaera-tasak oso desberdinak direla pertsonen eta familien ezaugarri soziodemografikoen arabera; horregatik, pobrezian dauden eta BGEa eskatu duten familien ehuneko nabarmen aldatzen da familien ezaugarri desberdinak kontuan hartzerakoan.

Hala, pobrezia larrian dauden eta pertsona batek osatutako familien % 58k eskatu du laguntza, amaitu gabeko ikasketarik ez dutenen % 51k, bigarren mailako ikasketak dituztenen % 17,9k eta guraso bakarreko familien % 19,3k.

40. GRAFIKOA Pobrezia larrian (2020ko BBI atalasea) dauden eta Bizitzeko Gutxieneko Errenta eskatu duten familien ehunekoa Euskadin, familien eta/edo sostengatzaile nagusiaren (SN) ezaugarrien arabera (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021


BGEa eskatu duten eta pobrezia larrian dauden familien egoerari dagokionez, gutxi gorabehera erdiari (% 48,9) ukatu egin diote laguntza Espainia osoan (39), eta argudiatutako arrazoi nagusia izan da atalase ekonomikoaren baldintza ez betetzea, kontraesana den arren.

(39) Pobrezia larrian dauden eta BGEa eskatu duten Euskadiko familien lagin-oinarriaren kopurua mugatua da, horregatik erabili ditugu soilik estatu mailako datuak.

Bestalde, ia heren bat (% 32,6) erantzunaren zain edo tramitean dago, eta soilik % 18,5ek jaso du dagoeneko.

Halaber, EINSFOESSA 2021ren datuek DSBEaren inguruko pista batzuk ematen dituzte, eta horri esker, aurretik aipatutako administrazioen iturrietatik ateratako datuak osatu daitezke. Bildutako informazioaren arabera, **pobrezia larrian (% 68,8) dauden familien % 70 inguruk jaso du DSBEa unerren batean (horietatik % 34,4k azken 12 hilabeteetan). Espainian, % 19,8k jaso du bestelako gutxieneko errenta autonomikoren bat.** Kasu honetan ere, Euskadiko datuak eta Espainiakoak oso bestelakoak dira, eta kontu handiz interpretatu behar diren arren, nahiko sendoak dira Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestak azken urteotan eskaini dituen datuekin. Estatistika horren arabera, benetako pobrezia-arriskuan dauden herritarren % 30ek ez ditu laguntza horiek jasoko.

41. GRAFIKOA Pobrezia larrian dauden (2020ko BBI atalasea) eta DSBEa edo baliokide autonomikoren bat jaso duten familien ehunekoa Euskadin eta Espainian (2021)



Iturria: EINSFOESSA 2021

Metodologia

Unibertsoa, lagina eta errore-marjina

EINSFOESSA Espainiako familiei bideratutako inkesta da, eta familia bakoitzeko kide guztien inguruko informazioa biltzen du. Hortaz, azterketarako bi maila nagusi daude: familia eta herritarrena. Ikerketaren unibertsoa Euskadin eta Espainian biziz diren herritar guztien familia eta multzo guztiek osatzen dute.

Euskadiko familien lagina 604 inkestek osatzen dute, eta horien bitartez, 1.496 pertsonen inguruko informazioa eskuratu ahal izan dugu, hau da, herritarren informaziorako $\pm\%$ 2,5eko errore-marjina dago eta familien informaziorako, $\pm\%$ 4koa. Bi kasuetan, errore-marjina egokia da, informazioa estatistikoki adierazgarria da unibertso osoarentzat eta konfiantza-tarteek aukera ematen dute integrazio eta bazterkeria mailen azterketa xeheagoa egiteko. Espainiako lagina 7.013 familiek eta 18.546 pertsonok osatzen dute, eta errore-marjina $\pm\%$ 1,2 eta $\pm\%$ 0,7koa da hurrenez hurren.

	Euskadi	Espainia
Herritarren unibertsoa	2.220.504	47.450.795
Familien unibertsoa	911.100	18.754.800
Herritarren lagina	1.496	18.546
Familien lagina	604	7.013
Herritarren errore-marjina	2,5	1,2
Familien errore-marjina	4	0,7

Iturria: Geuk egina EInren eta EINSFOESSA 2021en datuetatik abiatuta (40)

(40) Herritarren datuak EInk argitaratutako 2020ko urtarrilaren 1eko Udal-Errolda eguneratutik atera ditugu. Espainiako familien datua 2020ko Familien Inkesta Jarraitutik atera dugu.

Erreferentziatzko aldia

Inkestak 2021eko maiatzaren 11 eta 31 bitartean egin dira. Jarduera ekonomikoei buruzko informazioak eta pentsioei eta laguntza ekonomikoei buruzkoak 2020 urteari egiten diote erreferentzia.

Inkestaren administrazioa

Inkesta aurrez aurre egin da, elkarrizketa bitartez, eta erantzunak egituratutako eta aldagaien % 99an aurretik kodifikatutako galdetegian jaso dira. Inkesta aurretik zeregin hori egiteko prestakuntza jaso duten elkarrizketatzaileek egin dute, eta Euskadiko 26 udalerritan banatutako 40 ibilbidetan egin dute lan; eta Espainiako 262 udalerritan banatutako 400 ibilbidetan. Inkestak errolda-sekzioen alde aurreko hautaketa bati jarraiki egin dira. Horien barruan ausazko ibilbideen sistema bat ezarri da, abiapuntuko helbide batetik eta errolda-sekzio hori osatzen duen kale-izendegiaren barruan. Hori dela eta, kale-izendegia osorik zeharkatu da, hari hiru buelta oso eman arte edo galdetegi-kopurua osatu arte.

Metodologiaren aldaketa

Bi adierazle berri gehitu ditugu

Bazterkeria ulertzeko dugun izaera dinamikoa dela eta, bi adierazle berri gehitu ditugu ISESen. Bi aldagaiek bi funtsezko premisa betetzen dituzte. Alde batetik, 2018ko inkestan bildutako informazioarekin olatu horretako adierazleak eta ISES bera eraikitzea posible izatea. Bestalde, bazterkeria eraman dezaketen egoeren identifikazioa hobetzen laguntzea. Hala, adierazle hauek gehitzea erabaki dugu: zorrak pilatuta dituzten familiak (41) eta sostengatzaile nagusiak oso lan ezeگونkorra duen familiak (42).

(41) 36. adierazlea Pilatutako zergak dituzten familiak: horniduren, etxebizitzaren, administrazioaren edo maileguren ordainketan atzerapenak dituzten familiak eta hurrengo 12 hilabeteetan egunean erraz jarri ezingo direnak.

(42) 37. adierazlea Sostengatzaile nagusiak lan oso ezeگونkorra duen familia: urtebetean 3 kontratu edo gehiago, 3 enpresa edo gehiago izan dituen edo 3 hilabete baino gehiago langabezian egon dena.

Adierazle bakoitzaren pisuaren kalkuluan izandako aldaketa

Bigarren metodologia-aldaketa GBIS-ISESen zenbaketa orokorreko adierazle bakoitzari esleitzen zaion pisuekin dago lotuta. Eragindako adierazleen metaketa bazterketara daraman desabantaila argi gisa nabarmentzeko asmoz, haztapen berriak hori hartzen du kontuan, hau da, pisu handiagoa ematen die beste adierazle batzuekin batera joateko joera duten adierazleei, eta bakarrik agertzen diren beste adierazle batzuen pisua murrizten du.

Bi aldaketa metodologikoen serie apur bat aldarazi eta 2018an argitaratutako emaitzak berriro kalkularazten duten arren, abantailak askoz gehiago dira alderaketa mantentzeko egin beharreko aldaketak baino. Horrela, berriro kalkulatu ostean seriean eginiko aldaketak oso txikiak dira kasu gehienetan, eta, gainera, bazterkeria-prozesuetara zehatzago hurbiltzeko eta haien dinamikak hobeto ezagutzeko aukera ematen dute.

Nolanahi ere, aipatu ditugun aldaketak sakonago aztertzeko, FOESSA Fundazioaren «Gizarte-kohesioaren bilakaera eta COVID-19aren ondorioak Espainian» serie honetako txosten orokorreko metodologia atalera jo dezakezu.

Glosarioa

Arrakala digitala

Egoera horretan daude hiru elementu hauetakoren bat falta duten pertsonak: datuen konexio mugagabea izatea (kable edo wifi –propio– bidez), Interneteko konexioa duen gailua izatea (telefono mugikorra, *tableta* edo ordenagailua) eta familian administrazioko tramiteak online egiteko gai den trebetasun informatikoak dituen norbait izatea.

Gini koefizientea

Giniren koefizienteak diru-sarreraren banaketaren desberdintasuna neurtzen du eskualde bateko norbanakoen artean, denbora-tarte jakin batean. Koefizientea izanik, 0 eta 1 arteko balioak ditu: 0 oreka perfektua duen ekonomiari dagokio (norbanako guztiek diru-sarrera bera dute), eta aldeak areagotu egiten dira 1era hurbilduz doan heinean.

Gabezia material larria

Gabezia material larriak erreferentzia egiten dio hainbat baliabide eskuratzeko mugatuta dauden pertsonen egoerari. Zehazki, Europa mailan aukeratu dituzten 9 itemetatik gutxienez 4 eskuratu ezin dituzten familietan bizi diren pertsonak dira: alokairua edo letra ordaintzea; etxea bero mantentzea; ustekabeko gastuei aurre egitea; astean 3 aldiz gutxienez haragia, oilaskoa edo arraina (edo baliokide begetarianoak) duen otordua egitea; Urtean gutxienez astebeteko oporrak ordaintzea; autoa; garbigailua; koloretako telebista; telefonoa (finkoa edo mugikorra).

2021ean adierazle hori aldatu eta Europa 2030 helburuen esparrura birbideratu zuten arren, ikerketa honetarako urte horretara arte indarrean zegoen definizioa erabili dugu. Definizio berrian, 9 elementu beharrean 13 daude, eta adierazlea gutxienez horietako zazpi ez dituzten pertsonei dagokie. Txertatu dituzten elementu berriak dira: hondatutako edo altzari zaharrak ordezkatu ahal izatea; hondatutako jantziak berriengatik ordezkatu ahal izatea (bigarren eskukoak ez direnak); bi zapata pare izatea (edo urteko garai bakoitzerako pare egoki bat); hilabetean behin gutxienez lagunekin eta/edo senideekin elkartu ahal izatea zerbait hartzeko edo jateko; aldizka aisialdi-jardueretan parte hartu ahal izatea, hala nola kiroletan, zineman, kontzertuetan, etab.; astero diru kopuru txiki bat norberarentzat gastatzea; eta Internet konexioa izatea. Halaber, definizio berritik hiru elementu hauek desagertu dira: garbigailua, koloretako telebista eta telefonoa izatea (finkoa edo mugikorra).

S80/S20 harremana

Desberdintasun-adierazle honek adierazten du diru-sarrera baliokiderik altuenak dituzten pertsonen % 20k izandako diru-sarrera guztien eta diru-sarrera baliokide baxuenak dituzten % 20k jasotakoen arteko zatidura.

Errenta mediana baliokidea

Errenta mediana baliokidea kontsumo-unitateen errenta txikienetik handienera ordenatzen dugunean lortzen dugun balioa da, eta horietako % 50ek jasotako errenta balio horren azpitik uzten du eta beste % 50ena gaineratik. Errenta medianak hobeto adierazten du bizi-maila; izan ere, errentaren banaketaren ezaugarria asimetrikoa da, errenta altuen taldeetan oso balio altuak baititu, eta horrek batez besteko balio handiak ematen ditu.

Pobrezia-arriskua

Pobrezia-arriskuaren tasak (diru-sarrera txikien edo pobrezia erlatiboaren tasa ere esaten zaio) urteko diru-sarrera garbiak pertsona baliokide bakoitzeko medianaren %60a baino baxuagoak diren familietan bizi diren pertsonen ehunekoa adierazten du.

Mediana banako guztiak diru-sarrera txikienetik handienera ordenatuz, horien erdia balio horren azpitik uzten duen balioa da. Familia baten diru-sarrera garbiak pertsona baliokidearen diru-sarrera bihurtzeko, OCDEren zuzendutako eskala erabiltzen da, eta familiako lehengo helduari 1 esleitzen dio, gainerako helduei 0,5 eta 14 urtetik beherakoei 0,3.

Hori pobrezia adierazle erlatiboa da, eta, beraz, pertsona bat pobrea dela esan ohi dugu bere inguruko pertsonekin alderatuta desabantaila ekonomikoak dituenean.

Pobrezia larria

Tasa honek urteko diru-sarrera garbiak pertsona baliokide bakoitzeko medianaren %40 baino baxuagoak diren familietan bizi diren pertsonen ehunekoa adierazten du.

Sostengatzaile nagusia

Kontzeptu gisa, sostengatzaile nagusitzat hartzen da familiako diru-sarreraren iturri nagusia den 16 urtetik gorako pertsona, dirua laneko jardunetik edo diru-laguntza batetik edo bestelako gizarte-babes batetik lortzen duen kontuan hartu gabe. Familiaren gastuak ordaintzeko ekarpen handiena egiten duen pertsona ez bada familiako kidea, sostengatzaile nagusia izango da familiako gastuei aurre egiteko ekarpen ekonomikoak jasotzen dituen familiako kidea. Sostengatzaile nagusia ezin da inolaz ere etxeko zerbitzua, gonbidatua edo apopiloa izan.

Langabezia-tasa

Langabezia-tasak lanik ez duten pertsonen ehunekoa adierazten du herritar aktibo guztien gainean (lanean ari diren pertsonak edo aktiboki lan bila ari direnak). Langabeak dira 16 urtetik gorako pertsonak eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta egin zen astean lanik gabe, lanerako prest edo aktiboki lan bila zeuden pertsonak.

Era berean, Biztanleria Aktiboaren Inkestak langabetzat hartzen ditu dagoeneko lana topatu duten baina lanean hasi ez diren pertsonak.

Epe luzeko langabezia-tasa

Epe luzeko langabezia-tasak gutxienez azken 12 hilabeteetan lanik egin ez duten eta lanik topatu ez duten pertsonen ehunekoak adierazten du herritar aktibo guztien gainean (lanean ari diren pertsonak edo aktiboki lan bila ari direnak).

Estatuko pobrezia-aren atalasea eta pobrezia-aren atalase autonomikoa

Bizi Baldintzen Inkestatik datozen pobrezia-arriskuaren tasak bi modutara kalkulatu dira: estatuko pobrezia-aren atalasetik abiatuta eta autonomia erkidegoko pobrezia-aren atalasetik abiatuta. Estatuko atalasea lagin osoaren diru-sarrerera baliokideen banaketaren mediana kontuan hartuta lortzen dena da, atalase autonomikoak lortzeko, aldiz, autonomia erkidego bakoitzeko diru-sarreraren banaketa soilik hartzen da kontuan.

Ondorengo taulak 2020ko BBIren datuekin laburbiltzen ditu (datuak 2019koak badira ere) autonomia erkidegoetako pobrezia-aren arrisku-tasak, bi atalaseen arabera.

Ikus daitezkeen desberdintasunak ulertzeko gogoan izan behar da estatuko atalasean autonomia erkidegoen arteko alderaketak egin daitezkeela, aldiz, atalase autonomikoei dagokien zutabeetan, autonomia erkidegoko errealitatearen arabera interpretatu behar da bakoitza. Izan ere, aurretik esan dugun moduan, autonomia erkidego horretan bizi diren pertsonen diru-sarreretan oinarrituta soilik kalkulatu da.

	Pobrezia-arriskuaren tasa	
	Estatuko atalasea	Atalase autonomikoa
Andaluzia	28,5	18,9
Aragoi	16,0	18,8
Asturias	22,2	22,1
Balearrak	14,1	20,7
Kanariak	29,9	22,0
Kantabria	18,0	18,0
Gaztela-Leon	15,1	16,1
Gaztela-Mantxa	25,1	18,9
Katalunia	16,7	21,7
Valentziako Erkidegoa	24,6	21,7
Euskadi	10,0	19,3
Extremadura	31,4	15,9
Galizia	22,1	20,3
Madril	15,4	19,1
Murtzia	25,0	15,3
Nafarroa	9,9	17,6
Errioxa	15,0	17,7
Espainia	21,0	–

Iturria: geuk egina EINen 2020ko Bizi-Baldintzen Inkestatik abiatuta.